

NAFARROAKO
KOMUNITATEKO
EMANTZIPAZIOARI
INKESTA

FORU
GAZTEEN
BURUZKO

20

25



INKESTA

NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO GAZTEEN
EMANTZIPAZIOARI BURUZKOA

© Instituto Navarro de la Juventud
Nafarroako Gazteriaren Institutua
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

2025eko abendua
Egileak: Paloma Miquélez Gómez eta Joffre López Oller
Kordinazioa eta banaketa: Gazteen Behatokia, Nafarroako Gazteriaren Institutua

AURKIBIDEA

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA	2
2. TESTUINGURUA: BIZITEGI-EMANTZIPAZIOA, LANA ETA ETXEBIZITZA NAFARROAN ETA ESPAINIAN	4
3. ELKARRIZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN GAZTE NAFARREN PROFILA	9
4. EMANTZIPAZIOA	10
4.1 Biztanle emantzipatuak	10
4.1.1 Biztanle emantzipatuak sexuaren arabera	11
4.1.2 Biztanle emantzipatuak adinaren arabera	12
4.1.3 Biztanle emantzipatuak sorlekuaren arabera	13
4.1.4 Biztanle emantzipatuak, bizilekuaren eta udalerraren tamainaren arabera	14
4.1.5 Biztanle emantzipatuak eta buruturiko ikasketa-maila	15
4.1.6 Aitaren eta amaren ikasketa-mailarik altuena	16
4.1.7 Emantzipatzeko adina: Espainiako eta Nafarroako testuingurua	17
4.1.8 Nafarroan aitortutako emantzipazio-adina	19
4.1.9 Familia-etxetik ateratzea. Arrazoi nagusiak	20
4.1.10 Emantzipatu gabeko biztanleak: ez emantzipatzeko eta familia-etxera itzultzeko arrazoiak	23
4.1.11 Zer faktorek azaltzen dute bizitegi-emantzipazioa?	25
4.1.12 Ondorio nagusiak	27
5.1 Enplegu-mota	31
5.2 Kontratuen iraupena	32
5.3 Lanaldi-mota	34
5.4 Diru-sarreraren jatorria	41
5.5 Ondorio nagusiak	43
6. IKASKETAK ETA PRESTAKUNTZA	46
6.1 Hezkuntza-egoera eta emantzipazioa	46
6.2 Egindako ikasketa formalei buruzko gogobetetze-maila	47
6.3 Emantzipatzeko adinaren eta ikasketak burutu diren adinaren arteko erlazioa	49
6.4 Ikasketak areagotzea eta prestatzen jarraitzeko motibazioa	51
6.5. Ondorio nagusiak	53
7. ETXEBIZITZA	55
7.1 Etxebizitza Eskatzaileen Errolda	55
7.2 Etxebizitza edukitzea	55
7.2.1 Jabetzako etxebizitza ordaintzea	56
7.2.2 Alokairuko etxebizitza ordaintzea	57
7.3 Emantzipatzeko laguntzen berri izatea	58
7.4 Etxebizitzaren ezaugarri fisikoak eta gogobetetze-maila	60
7.5. Ondorio nagusiak	63
8. EPILOGOA: sinplifikatzeko ahalegina	66

8,1. Lehenengo etapa	66
8.1. Bigarren etapa.....	72
9. ONDORIOAK	75
9.1. Emantzipazioa	76
9.2. Lan- eta ekonomia-egoera.....	77
9.3. Ikasketak eta prestakuntza.....	79
9.4. Etxebizitza	80
10. FITXA TEKNIKOA	83
11. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	84
12. TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA	85
13. ERANSKINA	88
13,1. Taulak zabaltzea.....	88
13.2 Galdetegia	90

1. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkesta da Espainian daukagun erreferentzia bakarrenetako bat gazteen bizitegi-egoera erregularitasunez ezagutzeko. Lehenbiziko edizioa 2017an kaleratu zen, eta bi urtean behin argitaratu da harrezkero, galdetegiaren erregularitasunari eta oinarrizko gorputzari eutsita. 2025eko edizioaren berrikuntza gisa, halere, zenbait gai txertatu dira, hala nola etxebizitzaren baldintza fisikoak, bizitegien inguruko gogobetetzea edo zein diren emantzipazio «ideal» baten inguruko itxaropenak.

Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkestaren xede nagusia da, izenak berak adierazten duen bezala, Nafarroako gazte emantzipatuak zenbatestea, bai eta haien ezaugarri sozioekonomikoak zehaztea ere. 2023ra arte, dikotomikoki neurtzen zen bizitegi-emantzipazioa, autonomia-erkidegoetako, estatuko eta nazioarteko ikasketa gehienetan bezala; hau da, bizitegi-egoerari loturiko bi kategoria baztertzailerik hartzen ziren aintzakotzat: emantzipatuta edo emantzipatu gabe egotea. Alabaina, hurbilketa horrek ez ditu behar bezala atzematen tarteko egoerak — kontuan izanik gero eta ohikoagoak direla—, hala nola familia-egoitzatik kanpo bizi diren baina ekonomikoki familiaren mende dauden gazteak, edo ekonomikoki autonomoak izanik ere jatorrizko familia-etxean jarraitzen dutenak, betiere familia-zaintzak beren gain harturik. Horretaz gainera, gazteen emantzipazio-ibilbideak gero eta itzulgarriagoak, ez-linealagoak eta luzeagoak dira (Serracant, 2012), eta, beraz, «jatorrizko familia-etxean bizi da edo ez da han bizi» aldagai soilak eskas gelditzen zen egungo errealitatea deskribatzeko.

Horregatik, 2023ko edizioan aldaketa metodologiko bat egin zen, eta, hari esker, barne-desberdintasun nabarmenak identifikatu ziren emantzipatutako gazteen ezaugarri soziodemografikoetan. «Bizitegi-emantzipazioaren» kontzeptu klasikoa (harrezkero «emantzipazio osoa» deitua) bi azpikategoriatan banatu zen.

- «Bizitegi-emantzipazioa bakarrik»: jatorrizko etxetik atera diren baina erabat autonomoak ez diren gazteak (etxebizitza partekatzen dutenak edo bizitoki kolektiboetan bizi direnak, familia-laguntzak jasotzen dituztenak edo ikasketak egiteko soilik ateratzen direnak familia-etxetik).
- «Erabateko emantzipazioa»: etxebizitza partekatzen ez duten eta bizitoki kolektiboetan bizi ez diren gazteak, diru-sarrera propioak dituztenak, etxebizitza ordaintzeko familia-laguntzarik jasotzen ez dutenak eta ikasketa-arrazoiengatik bakarrik ez daudenak.


Orain arte argitaratutako ondorioekin jarraituko dela bermatzeko, adierazle klasiko bitarrarekin jarraitzen da egiten aurreko edizio guztiekiko denbora-konparazioa (biztanle emantzipatuak *vs* biztanle emantzipatu gabeak). Bestalde, garrantzitsua den kasuetan bakarrik erakusten da erabateko emantzipazioaren eta bizitegi-emantzipazioa soilik lortu dutenen arteko banakapena.

Metodologiari dagokionez, ohartarazi behar da 2025eko edizio berri honetan nabarmen murriztu dela azken laginaren tamaina 2023ko edizioarekin alderatuta (753 kasu, 1.414 kasu izan beharrean). Dena den, nahikotzat jotzen da Nafarroako Foru Komunitateko 16 eta 34 urte arteko biztanleriaren irismena eta ezaugarriak zehaztu ahal izateko. Gehienez ere, lehen hautematen ziren zenbait xehetasun edo gurutzaketa galarazten ditu, ez besterik. Txosten honetan ageri diren ustiapenek gutxieneko kasu-kopuru bat eta sendotasun estatistikoa ageri dituzte.

2. TESTUINGURUA: BIZITEGI-EMANTZIPAZIOA, LANA ETA ETXEBIZITZA NAFARROAN ETA ESPAINIAN

Zer gertatu da Nafarroan eta Espainian gazteen emantzipazioari dagokionez lehenengo ediziotik eta azken ediziora bitartean igarotako bederatzirteetan? Galdera horri erantzuteko, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestara jotzen ahal dugu, Espainiako Gazteriaren Institutuak (INJUVE)¹, Espainiako Gazteriaren Kontseiluak (CJE)² eta, oro har, erakunde ofizialek egiten duten bezala. Ez da berariaz gazteei zuzendutako inkesta bat, baina baditu emantzipatutako gazteen kopurua kuantifikatzeko behar adinako lagin-bolumena eta kalitatea³. Zenbatespen hori ez da zalantzarik gabea, ikerketa bakoitzak irizpide desberdinak erabiltzen baititu (Gil Solsona, 2018). Horren adibide adierazgarri gisa, gurasoen etxebizitza berean bizi ez diren 16 eta 34 urte arteko pertsonak hartu dira kontuan **1. grafikoan**.

1. grafikoa. Gurasoen etxebizitza berean bizi ez diren 16-34 urteko pertsonak. Nafarroa eta Espainia. 2017-2024



Iturria: egileek prestatua Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestako mikrodatuetan oinarrituta.

Nafarroan eta Espainian oso antzekoa izan da bizitegi-emantzipazioak azken zortzirteetan izan duen bilakaera (Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera), maila ia-ia berdinetan, gainera. COVID-19aren ondoriozko krisi sozioekonomikoaren ondotik erregistratu zen emantzipazio-tasa txikiena. 2022az geroztik, suspertu da pixka bat, baina sekula ez ditu berdindu 2017-2019 aldiko zifrak. Suspertze hori, funtsean, 30-34 urteko biztanleetan kontzentratu da (**I. taula – eranskina**). Europar Batasun osoan, askoz erregularragoa izan da 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen bizitegi-emantzipazioaren

¹ <<https://www.injuve.es/eu/observatorio/formacion-empleo-y-vivienda/jovenes-en-la-epa-segundo-trimestre-2025>> [2025eko urriaren 16an egindako kontsulta].


² [Emantzipazioaren Behatokia | Espainiako Gazteriaren Kontseilua](#) [2025eko urriaren 16an kontsultatua].

³ Nafarroan, 2024ko lau hiruhilekoetan, Biztanleria Aktiboaren Inkestan elkarrizketatutako 16 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen batez besteko kasu-kopurua, bitxia bada ere, *Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko azken inkestakoaren* oso antzekoa izan zen (710 kasu eta 753 kasu, hurrenez hurren).

azken aldiko bilakaera; izan ere, % 50 ingurukoa izan da azken urteetan beti, baita 2020-2021 aldian izaniko azken krisialdian ere⁴.

Enpleguari dagokionez, ondorioak partzialki desberdinak dira (**2. grafikoa**), eta horrek berresten du helduarorako trantsizio-prozesuak ez direla hertsiki ulertzen ahal lan-merkatuaren koiunturari emaniko erantzun arrazional eta kalkulatu gisa. Alde batetik, ia erabateko konbergentzia ageri da Nafarroako eta Espainiako gazteen enplegu-tasen artean. Eta, bestetik, 2020az geroztik oso modu konstantean indartu da enplegu-sorrera gazteen artean, nahiz eta, konparatiboki, abiadura txikiagoan handitu den adin aktiboan dauden gainerako biztanleen artean baino. Espainian, gaur egun, gazte gehiago ari dira lanean 2017an baino. Nafarroan, berdindu egin dira urte horretako zifrak.

2. grafikoa. Lanean ari diren 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak. Nafarroa eta Espainia. 2017-2024



Iturria: egileek prestatua Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestako mikrodatuetan oinarrituta.

Higiezin merkatua, bestalde, hedapen-fasean dago gaur egun, Espainia osoan gertatzen den bezala (**II. taula - eranskina**). 2024an, Nafarroan 2.680 etxebizitza berri hasi ziren altxatzen, 2023an baino % 14,3 gehiago. Libreak izan ziren haien guztien % 83,4, eta gainerakoak, berriz, babes-motaren bati lotuak (prezio tasatua dutenak, prezio hitzartukoak edo babes ofizialekoak)⁵. 2021etik, urtean zortzi mila etxebizitza inguru salerosten dira: ez zen gertatzen halakorik 2008tik, hots, azken higiezin-burbuila lehertu zenetik⁶. Salerosketa-prezioek ere etenik gabe egin dute gora 2020tik: batez beste, 183.112,14 euro 2024an. 2009tik (azken hamabost urteetan, alegia) izaniko zenbatekorik handiena da (**3. grafikoa**). Bada hemen datu sintomatiko bat: 2024an erregistratutako salerosketa gehienak etxebizitza libreenak izan ziren. 2024an, 213

⁴ <https://doi.org/10.2908/ILC_LVPS08> [2025eko urriaren 16an egindako kontsulta].


⁵ Nastat.Etxebizitza eta eraikinak. Hasitako eta Akitutako Etxebizitzak. [Estatistika eragiketa - Nastat - nafarroa.eus](https://estatistika.eraspina.eus) [2025eko urriaren 16an kontsultatua].

⁶ Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren arabera [Hasiera - notariotza](https://notariotza.eus). [2025eko urriaren 16an kontsultatua].

etxebizitza babesturen salmenta-eskriturak baino ez ziren egin (guztizkoaren % 2,8, hau da, 2007tik izaniko kuotarik txikiena).

Antzeko zerbait gertatu da alokairuaren merkatuan. Idealista⁷ atariaren arabera (eskaintza errealaren parte bat baino ez du jasotzen), 2018 eta 2024 artean alokairu-errenta % 36,4 igo da batez beste Nafarroan, eta % 30,2 Iruñean (kontuan izanik hiriburuak hartzen duela Foru Komunitateko alokairu-parkearen ia erdia). Atarietan iragarritako alokairu-prezioa kontuan hartu beharrean (beti ematen baitu nolabaiteko ziurgabetasuna), fidantza Nafarroako etxebizitzaren errentamendu-kontratuen erregistroan gordailutzen duten alokairu-kontratu berrietan jasotako zenbatekoa hartzen badugu erreferentziatzat, txikixeagoa da igoera (baina nabaria, dena den): % 22,8 Iruñean⁸.

3. grafikoa. Etxebizitza baten salmenta-prezioaren bilakaera, notario aurrean erregistratutako salerosketen arabera. Nafarroa. 2017-2024



Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

Eferbeszentzia-giro horretan, gazteen eginkizuna oso txikia izan da, egoera ekonomikoak ez baitie ahalbidetzen kasu gehienetan. Aski da azpimarratzea, konparazio baterako, Nafarroan 2024an erregistratutako etxebizitza-salerosketen % 41,6 hipoteka-mailegurik sinatu gabe egin zirela⁹. Horrek eskatzen du alde aurretik izan behar direla funtsak edo aurrezkiak, eragiketaren zenbateko osoa estaltzeko. Gutxi dute eskura aukera hori: pertsona juridiko eta inbertitzaile instituzionalek, erosteko ahalmen handia duten pertsona eta familiek edo beste etxebizitza bat jabetzan dutenek, ez beste inork.

⁷ Idealista, webgunea:

<https://www.idealista.com/sala-de-prensa/informes-precio-vivienda/venta/navarra/navarra/>

⁸ Oraingoz, ez da argitaratu Foru Komunitate osorako zenbatekoa. [JUSTIFIKAZIO MEMORIA](#) [2025eko urriaren 16an kontsultatua].

⁹ [Xehetasuna - notariotza](#) [2025eko urriaren 16an kontsultatua].

Tankera bertsuko ondorioak ateratzen ahal ditugu eskuragarritasun hertsiki ekonomikoari erreparaturik —hau da, gazte batentzat etxebizitza bat erostek edo alokatzeak ekarri lukeen hileko kostua alderatuz gero, alde aurretik aurreztea eta eskatzen den egonkortasun ekonomikoa kontuan hartu gabe—. Madril, Euskadi, Katalunia edo Balear Uharteetako muturretara iritsi gabe, Nafarroako gazte batentzat etxebizitza bat erosteko hipoteka bat hilero ordaintzeak ekarriko lukeen ahalegin ekonomikoak¹⁰ hautsi egin du 2022ra arte mantentzen zuen egonkortasuna, eta, harrezkero, bat-batean handitu da, kontuan izanik interes-tasek eta salerosketa-prezioek gora egin dutela (**4. grafikoa**). 2024an, ahalegin hori 16 eta 29 urte bitarteko pertsona baten batez besteko errentaren erdia baino gehiago zen (% 53,5), eta, lan egiten duen 25 eta 34 urteko biztanleria bakarrik kontuan harturik, soldata garbiaren % 35,0. Horri guztiari gehitu behar zaio kaudimen ekonomikoa eta diru-sarreraren egonkortasuna eskatzen direla hipoteka bat formalizatu ahal izateko, eta lan egiten duten gazte guztiek ez dute egiaztatzen ahal horrelakorik. 2024an, finantzaketak estaltzen ez duen etxebizitzaren prezioaren zenbatekoa estaltzeko behar den sarrera¹¹ ia 55 mila euro da (54.933,64 €).

1. taula. Gazte batek aurre egin beharreko kostua, etxebizitza erosteko eta alokatzeko. 2023-2024

	Erregimena	25-34 urtekoen soldata	Errenta garbia, 16-29 urte
Nafarroa	Erosketak (2024)	% 35,0	% 53,5
Iruña	Alokairua (2023)	% 42,2	% 64,8


Iturria: guk geuk egina, datu hauek oinarri hartuta: NASTAT (Nafarroako Biztanleen Errentaren Estatistika), Notariotzaren Kontseilu Nagusia (salerosketa-prezioak), Espainiako Bankua (etxebizitza libreak erosteko hipoteka-maileguetan aplikatutako interes-tasak), Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia (Tentsiopeko Merkatuko Zonaldearen justifikazio-memoria) eta Estatistikako Institutu Nazionala (Bizi Baldintzen Inkesta).

Alokairu-sektorean, are handiagoa da eskuragarritasunik eza. Alabaina egonkor jarraitu du 2013tik, hau da, Foru Komunitatean eta Espainian merkaturatu ziren etxebizitza berrien batez besteko errentak garestitzen hasi zirenetik (**5. grafikoa**). Iruñean, 2023an (oraingoz, hori da Nafarroako etxebizitzaren errentamendu-kontratuen erregistroan eskuragarri dagoen azken data) 25-34 urteko soldatapeko batek ordainsariaren % 42,2 behar zuen urte horretan kontratatutako alokairu baten batez besteko errenta ordaindu ahal izateko bakarrik. 16 eta 29 urte bitarteko pertsona baten batez besteko errentarekin —barnean harturik lan egiten dutenak eta langabeak—, etxebizitza eskuratzeko kostu ekonomikoa % 64,8ra iritsiko litzateke, errentamendu-kontratu bat sinatzeko behar diren gastuak kenduta (fidantzak, hornidura-altak, abalak...), eta kontuan hartu gabe azken urteetan urritzen joan dela bizitegi-etxebizitzak eskuratzeko alokairu-eskaintza.

¹⁰ 30 urteko amortizazio-epareekin, salmenta-prezioaren % 80 finantzatuta eta urte bakoitzeko batez besteko interes-tasan.


¹¹ Etxebizitza baten erosketa hipoteka-mailegu bidez finantzatzeko behar den sarrerak etxebizitzaren prezio osoaren % 30 hartzen du (etxebizitzaren prezioaren % 20ko sarrera, eskritura- eta formalizatzeko-gastuak eta abar).

4. grafikoa. Gazte batek etxebizitza hipoteka-mailegu bat kontratatuz jabetzan eskuratzearen kostua. Nafarroa. 2017-2024



Iturria: guk geuk egina, datu hauek oinarri hartuta: NASTAT (Nafarroako Biztanleen Errentaren Estatistika), Notariotzaren Kontseilu Nagusia (salerosketa-prezioak), Espainiako Bankua (etxebizitza libreak erosteko hipoteka-maileguetan aplikatutako interes-tasak) eta Estatistikako Institutu Nazionala (Bizi Baldintzen Inkesta).

5. grafikoa. Gazte batek aurre egin beharreko kostua, etxebizitza alokairuan eskuratzeko. Iruña. 2018-2023



Iturria: guk geuk egina, datu hauek oinarri hartuta: NASTAT (Nafarroako Biztanleen Errentaren Estatistika), Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia (tentsiopeko merkatuko zonaldearen justifikazio-memoria) eta Estatistikako Institutu Nazionala (Bizi Baldintzen Inkesta).

3. ELKARRIZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN GAZTE NAFARREN PROFILA

Laginak adinaren arabera banaketa orekatua du, 16-24 eta 25-34 adin-tarteetako zatiketa aplikatzen denean. Hala ere, Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren sailkapenaren arabera (16-29 urte/30-34 urte), ia bi heren talde gazteenean biltzen dira. Lan-egoerari dagokionez, ia erdiek lan bakarrik egiten dute, eta heren bat baino gehixeago ikasten ari dira, dela nagusiki horretan, dela enplegu batekin konbinatuta. Prestakuntza-mailari dagokionez, ia erdiek goi-mailako ikasketak dituzte, herenek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa daukate eginda, eta laurdenek-edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza. Hamar pertsonatik zazpi Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batean jaioak dira, eta erdiak baino gehixeago Iruñean eta Iruñerrian bizi dira. Amaren, aitaren edo figura baliokidearen ikasketa-maila handienari dagokionez, proportzio antzekoak dira nagusi goi-mailako ikasketak dituztenen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza dutenen artean. Alabaina, ez da hain ohikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa izatea.

Hau da profil ohikoena: 16 eta 29 urte bitarteko pertsona bat (Espainiako Gazteriaren Kontseiluak eginiko sailkapenaren arabera), lan egiten duena edo ikasketak eta enplegua konbinatzen dituena, goi-mailako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak egina, Espainian jaioa eta Iruñean eta Iruñerrian bizi dena. Familiari dagokionez, ohikoena da gutxienez gurasoetako batek goi-mailako edo derrigorrezko bigarren mailako ikasketak izatea.

2. taula. Laginaren ezaugarriak. 2025

Laginaren ezaugarriak aldagaiz aldagai		
Sexua	Emakumezkoa	% 49,0
	Gizonezkoa	% 51,0
Adina	16-24 urte	% 48,3
	25-34 urte	% 51,7
Adina (Espainiako Gazteriaren Kontseilua)	16-29 urte	% 72,5
	30-34 urte	% 27,5
Lan-egoera	Ikasten	% 28,7
	Ikasten eta lanean	% 14,0
	Soilik lanean	% 45,6
	Langabezian	% 9,8
	Beste egoera batean	*
Ikasketa-maila	Goi-mailako ikasketak	% 43,5
	Derrigorrezkoaren Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	% 33,5
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 23,0
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 70,6
	Espainiatik kanpokoak	% 29,4
Bizitegi-eremua	Iruña eta Iruñerria	% 54,3
	Gainerako eskualdeak	% 45,7
	Ez du gurasorik edo lan hori egiten duenik	*

Gurasoen altuena	ikasketa-maila	Goi-mailako ikasketak	% 38,4
		DBHren Ondokoa	% 18,3
		Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 39,3

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.


4. EMANTZIPAZIOA

4.1 Biztanle emantzipatuak

Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkestatik lortzen diren bizitegi-emantzipazioaren zifrak ez dira zuzenean alderatzen ahal Biztanleria Aktiboaren Inkestakoekin. Azken iturri hori oso sendoa da laginen diseinuari dagokionez, baina, adierazi bezala, hutsuneak ageri ditu gazteen bizitegi-emantzipazioa definitzeari loturik. Azpimarratu den bezala, gainera, Biztanleria Aktiboaren Inkestak berak definizio bat baino gehiago onartzen ditu bizitegi-emantzipazioari buruz, eta, oro har, zenbaki txikiagoak ematen ditu beti, gazteetara berariaz zuzendutako beste iturri batzuek ematen dituztenen aldean.

Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkestako emaitzen arabera, 2017tik 2025era bitartean, % 45,3tik % 49,5era igo da emantzipazio-tasa «osoa»; hau da, ehuneko 4,2 puntu igo da zortzi urtean. 2025ean, Nafarroan bizi diren gazteen % 49,5ek (16-34 urte) adierazi dute emantzipatuta daudela, hots, ehuneko bi puntu baino pixka bat gehiago handitu da kohorte hori 2023arekin alderatuta (**6. grafikoa**). 2017tik eskuragarri dagoen serie osoko baliorik handiena da, eta haren bilakaerak hazkunde jarraitua ageri du 2021az geroztik.


6. grafikoa. Bizitegi-emantzipazio «osoa» tasaren bilakaera. 2017-2025



Hala ere, emantzipazio osoa bere bi kategorietan banakatzean —erabateko emantzipazioa eta bizitegi-emantzipazioa—, ikusten da 2023tik 2025era bitartean 7,4 puntu igo dela bizitegi-emantzipazioa bakarrik lortu duen biztanleria. Aldiz, erabat emantzipatuek proportzio berean galdu dute pisu erlatiboa (**7. grafikoa**). Beste era

batera esanda: 2025ean nabari den bizitegi-emantzipazioa igo izanaren arrazoia da, hain justu, gero eta gehiago direla jatorrizko etxetik kanpo bizi diren baina autonomia ekonomikorik ez duten, etxebizitza partekatzen duten edo ikasketak egiteko bakarrik emantzipatuta dauden gazteak.

7. grafikoa. Bizitegi-emantzipazioa: motak. 2023-2025



4.1.1 Biztanle emantzipatuak sexuaren arabera

2025ean, gizonen emantzipazio tasa ia % 47 da, hau da, 2023an baino ehuneko bost puntu handiagoa, serie osoko baliorik altuena. Aldiz, emakumeen tasa jaitsi egin da pixka bat, % 51,5era arte. Dena den, gizonetzkoena baino handiagoa da. Aztertutako aldi osoan, emakume gazteek emantzipazio-maila handiagoak izaten jarraitzen dute, baina bi sexuen arteko arrakala ehuneko lau puntura murrizten da: serie osoko baliorik txikiena. Oro har, 2017az geroztik izandako bilakaerak erakusten du gizon gazteen artean nabarmenagoa izan dela hazkunde-joera. Emakumeen artean, aldiz, apalagoak izan dira aldakuntzak.

3. taula. Bizitegi-emantzipazio «osoaren» tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 2017-2025

Sexua	2017	2019	2021	2023	2025
Emakumeak	% 50,6	% 47,9	% 51,5	% 52,3	% 51,5
Gizonak	% 40,1	% 41,9	% 38,4	% 42,6	% 47,7
GUZTIZRA	% 45,3	% 44,8	% 44,9	% 47,4	% 49,5

2025: Pearsonen khi karratua = 3,57 (0,168) / Cramerren V = 0,069.

Edizio honetan emantzipazioaren hazkunde globala gizonen artean izandako gorakadak azaltzen duen arren, tipologiaren arabera eginiko analisiak erakusten du bizitegi-emantzipazioan kontzentratzen dela hazkunde hori, eta erabateko emantzipazioaren hazkundeak, aldiz, ia egonkor jarraitzen duela. Horrek adierazten du gizon gazte gehiago bizi direla familiaren etxetik kanpo baina oraindik independentzia ekonomiko osoa gabe (**3. taula**).

Emakumeen kasuan, emantzipazio osoa apur bat jaitsi izanaz gainera, ikusten da ehuneko hiru puntu baino gehiagoko barne-transferentzia ageri dela erabateko

emantzipaziotik bizitegi-emantzipaziora. Azken modalitate hori gizonena baino ehuneko sei puntu handiagoa da. Horrek adierazten du emakumeak gehiago direla bizitegi-autonomiari lotutako emantzipazio-moduetan, baina ez nahitaez ekonomikoan.

Emaitza horiek eutsi egiten diote 2021eko eta 2023ko txostenetan ikusitako joerari. Haietan jada aipatzen zen bat zetozela gazteriaren eta etxebizitzaren arloan genero-arrakala hautematen zuten beste azterlan batzuekin; izan ere, Espainiako emakumeek tradizionalki gehiago eta goizago utzi izan dute familiaren etxea, baina normalean beste pertsona batzuekin batera (Espainiako Gazteriaren Kontseilua, 2025).

Alde hori azaltzen ahal duten faktoreen artean, aipatzekoak dira ikasketak beranduago burutzea, lan-baldintzak (prekarietate, partzialtasun eta behin-behinekotasun handiagoak) eta soldata baxuagoak. Elementu horiek eragiten dute emakumeek kalteberatasun bikoitza izatea, zailagoa baitzaie bizitza erabat autonomo eta independenteari ekitea. 2023an sexu-aldagaiaren eta emantzipazio-tasaren arteko nolabaiteko harremana ageri zen, txikia izanagatik ere, baina 2025ean jada ez da ageri halako harremanik. Horren azalpena da gizonen emantzipazioa areagotu izanak nabarmen murriztu dituela bi sexuen arteko aldeak, nahiz eta funtsean «bizitegi-emantzipazioan bakarrik» izan. Gainera, kontuan izan behar da errore-marjinaren tartearen barruan daudela desberdintasun asko.

4. taula. Bizitegi-emantzipazioaren tasa, emantzipazio-moten eta sexuaren arabera. 2023-2025

Sexua	2023			2025		
	Erabateko	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabe	Erabateko	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabe
Emakumeak	% 32,2	% 20,1	% 47,7	% 27,4	% 24,1	% 48,5
Gizonak	% 29,0	% 13,6	% 57,4	% 29,2	% 18,5	% 52,3
GUZTIZRA	% 30,6	% 16,8	% 52,7	% 28,3	% 21,2	% 50,5

2025: Pearsonen khi karratua = 3,57 (0,168) / Cramerren V = 0,069.

4.1.2 Biztanle emantzipatuak adinaren arabera

Espainiako Gazteriaren Kontseiluak erabiltzen dituen analisi-tarteak hartuta, ikusten da Nafarroan 16 eta 29 urte bitarteko hamar pertsonatik lau inguru jatorrizko etxetik kanpo bizi dela: portzentaje horrek ehuneko 4,1 puntuko hazkundera izan du 2023arekin alderatuta (eta bizitegi-emantzipazioaren barnean gertatzen da osorik hazkunde hori). 30-34 urteko adin-tartean, erabateko emantzipazioa ehuneko 7,4 puntu jaitsi da.

5. taula. Biztanleria gaztearen banaketa, motaren eta adinaren arabera (Espainiako Gazteriaren Kontseilua). 2025

Adina	Erabatekoa (a)	Bizitegi-emantzipazioa bakarrik (b)	Emantzipazio osoa (c = a + b)	Emantzipatu gabea (d)	GUZTIZRA (c+d)
16-29 urte	% 15,9	% 21,2	% 37,2	% 62,8	% 100
30-34 urte	% 60,9	*	% 81,6	*	% 100
GUZTIZRA	% 28,3	% 21,1	% 49,4	% 50,6	% 100

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

2025: Pearsonen khi karratua = 165,8 (0,000) / Cramerren V = 0,469.

16-24 urteko gazteen % 72,3 emantzipatu gabe dago oraindik, eta 25-34 urtekoen artean, berriz, % 30,3ra jaitsi dira datu horiek. Bigarren talde horretan, familiaren etxetik kanpo bizi direnen ia erdiek independentzia ekonomikoa dute. Bizitegi-emantzipazioaren tasa antzekoa da bi kasuetan.

6. taula. Bizitegi-emantzipazioaren tasa, emantzipazio-moten eta adinaren arabera¹². 2025

Adina	Erabatekoa	Bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabe
16-24 urte	*	% 21,7	% 72,3
25-34 urte	% 49,1	% 20,6	% 30,3
GUZTIZRA	% 28,3	% 21,1	% 50,6

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

2025: Pearsonen khi karratua = 188,7 (0,000) / Cramerren V = 0,501.

4.1.3 Biztanle emantzipatuak sorlekuaren arabera

Sorlekuaren arabera bereiziz gero, ikusten da emantzipazioak gora egiten duela bi taldeetan, intentsitate desberdinarekin bada ere. Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batean jaiotako gazteen artean, tasa % 43,9 da 2025ean: aldiko baliorik altuena da, 2019tik goranzko bilakaera moderatua izan ondotik, eta ez du izan bat-bateko aldaketarik. Atzerrian jaiotako biztanleen kasuan, emantzipazioak batezbestekoaren gainetik jarraitzen du sistematikoki, eta hazkunde jarraitua ageri du. Horrek pixkanaka handitu egiten du bi taldeen arteko distantzia, 2025ean ehuneko 19 puntuko aldea lortu arte, serieko handiena.

7. taula. Bizitegi-emantzipazio «osoaren» tasaren bilakaera, jaioterriaren arabera. 16 urtetik 34 urtera bitarteko gazteak. 2017-2025

Jaioterria	2017	2019	2021	2023	2025
Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 42,9	% 40,1	% 40,4	% 42,5	% 43,9
Atzeritarrak	% 52,7	% 58,6	% 56,5	% 60,3	% 62,9
GUZTIZRA	% 45,3	% 44,8	% 44,9	% 47,4	% 49,5

2025: Pearsonen khi karratua = 22,71 (0,000) / Cramerren V = 0,174.

¹²Erroldan erregistratutako jaiotza-datetatik abiatuta kalkulatuak.

Emantzipazio-motaren arabera bereiziz gero, ikusten da bizitegi-emantzipazioek gora egin dutela talde guztietan, intentsitate desberdinarekin bada ere. Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako artean, erabateko emantzipazioa ehuneko bi puntu jaitsi da, eta bizitegi-emantzipazioa, berriz, lau puntu inguru igo. Atzerrian jaiotako biztanleei dagokienez, joera hori nabarmenagoa da: erabateko emantzipazioa modu moderatuan murrizten da, baina bizitegi-emantzipazio hutsa ia ehuneko hamabost puntu areagotu da.

Bi taldeen arteko desberdintasunak bizi-ibilbide desberdinak eraginak dira, neurri handi batean: atzerrian jaiotako biztanleen artean, emantzipazioa migrazio-prozesuaren parte izan ohi da, eta hurbileko familia-sarerik ezarekin edo mugikortasun eta behin-behinekotasun handiagoko enpleguekin dago loturik. Horrek irteera goiztiarrak errazten ditu, baina ezegonkorragoak. Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsonen artean, berriz, familiaren eta tokiko sareen laguntza izateak ahalbidetzen du emantzipazioa atzeratzea edo nolabaiteko mendekotasun ekonomikoa duten bitarteko moduei eustea. Normalean egonkortasun laboral edo pertsonal handiagoko etapekin egon ohi dira lotuta. Cachónek (2004) adierazten duen bezala, gazte migratzaile asko beren jatorrizko herrialdean independizatuta zeuden edo migratzeko garaian uzten dute familiaren etxea; beraz, emantzipazio-tasak handiagoak izaten dira bertako biztanleenak baino. Nazionalitatearen edo jaiolekuaren arabera emantzipatzeko probabilitateen arteko alde hori estrukturala da, eta, beraz, mantendu egiten da denboran, egoeraren araberrako aldakuntza logikoekin bada ere.

8. taula. Bizitegi-emantzipazioaren tasa, emantzipazio-moten eta jaioterriaren arabera. 16 urtetik 34 urtera bitarteko gazteak. 2023-2025

Jaioterria	2023			2025		
	Erabateko	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabe	Erabateko	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabe
Nafarroa edo beste autonomia-erkidego batzuk	% 27,8	% 14,6	% 57,5	% 25,4	% 18,5	% 56,1
Atzerrikoa	% 37,9	% 22,3	% 39,7	% 35,3	% 37,1	% 37,1
GUZTIZRA	% 30,6	% 16,8	% 52,7	% 28,3	% 21,2	% 50,5

2025: Pearsonen khi karratua = 22,71 (0,000) / Cramerren V = 0,174.

4.1.4 Biztanle emantzipatuak, bizilekuaren eta udalerriaren tamainaren arabera

Aurreko urteetan bezala, laginaren tamainak ez du ahalbidetzen estatistikoki emaitza garrantzitsuak lortzea eremu guztietako gazteen emantzipazioan ageri diren lurraldearteko desberdintasunei buruz, eta, beraz, kategoria bakar batean bildu dira Iruñekoak eta Iruñerrikoak ez diren guztiak. Datuek antzeko banaketa ageri dute Nafarroako hiriburuaren eta gainerako lurraldeen artean, oro har: biztanleek erdiak-edo

familiaren etxean jarraitzen du bizitzen, eta, Iruñerrikanpo, handixeagoa da erabateko emantzipazioa.

9. taula. Biztanle emantzipatuak, motaren eta bizilekuaren arabera. 2025

Bizitegi-eremua	Erabatekoa	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabe
Iruña eta Iruñerria	% 27,7	% 21,6	% 50,7
Gainerako eskualdeak	% 29,0	% 20,9	% 50,1
GUZTIZRA	% 28,3	% 21,2	% 50,5

2025: Pearsonen khi karratua = 0,166 (0,920) / Cramerren V = 0,15.

Era berean, ez da lortu tamaina guztietako udalerrien gaineko informaziorik, ezta aldagai horren eta emantzipazio-tasen arteko erlazio nabarmenik ere. Hala ere, emantzipatzeko joera handiagoa nabari da hiriguneetan eta biztanleria-tamaina handiagoko eremuetan: ehuneko 8 puntuko aldea ere ageri da 1.001 eta 5.000 biztanle bitarteko udalerrien (% 54,0) eta hiriburuaren (% 46,4) artean. Era berean, emantzipazio osoaren tasa handiagoa da tentsiopeko merkatuko zonaldeetat jotako udalerrietan (% 51,6 eta % 45, hurrenez hurren), nahiz eta bizitegiari dagokionez bakarrik emantzipatu diren gazteak gero eta gehiago izatearen bizkar gertatu (% 23,9 eta % 15,5, hurrenez hurren).

10. taula. Biztanle emantzipatuak, tentsiopeko merkatuko zonaldean bizi diren kontuan hartuta. 2025

Tentsiopeko merkatuko zonaldean bizi dena	Erabatekoa	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabe
Ez	% 29,5	% 15,5*	% 54,9
Bai	% 27,7	% 23,9	% 48,3
GUZTIZRA	% 28,3	% 21,2	% 50,5

*Laginketa-erroreak izan ditzaketan datuak. Ez esanguratsuak.

2025: Pearsonen khi karratua = 7,079 (0,029) / Cramerren V = 0,097.

4.1.5 Biztanle emantzipatuak eta buruturiko ikasketa-maila

Aurreko urteetan bezala, goi-mailako ikasketak dituzten gazteak bizi dira gehienbat familiaren etxetik kanpo, eta horrek pentsarazten du oraindik ere hezkuntza-maila altua izateak errazten ahal duela independentzia, baina ez nahitaez bermatzen. 2025ean, talde horren erabateko emantzipazioa ia ehuneko bost puntu murriztu da, eta bizitegi-emantzipazioa eta emantzipatu gabeko biztanleak, berriz, igo egin dira. Baliteke horrek ezegonkortasun edo mendekotasun handiagoko ibilbideak erakustea, aurreko urteetan baino.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoaren kasuan, emantzipatutako gazteak ehuneko zortzi gehiago dira, ia guztiak bizitegi-emantzipazioko modalitatean bildurik —ziur asko ikasten jarraitzeko irteera handiagoa izatearen ondorioz—. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza buruturik dutenen artean, oso txikiak dira aldeak, eta emantzipazioa jaitsi egin da pixka bat.

11. taula. Biztanleria emantzipatua, emantzipazio-motaren eta ikasketa-mailaren arabera.
2023-2025

Ikasketa-maila	2023			2025		
	Erabat ekoa	Soilik bizitegi- emantzipaz ioa	Ez emantzipatu a	Erabat ekoa	Soilik bizitegi- emantzipaz ioa	Emantzipatu gabe
Goi-mailako ikasketak	% 38,8	% 19,5	% 41,7	% 33,6	% 21,7	% 44,6
DBHren Ondokoa ¹³	% 21,9	% 15,0	% 63,1	*	% 23,8	% 54,8
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza ¹⁴	% 30,8	*	% 56,6	*	*	% 55,5
GUZTIZRA	% 30,6	% 16,8	% 52,7	% 28,3	% 21,2	% 50,5

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

2025: Pearsonen khi karratua = 13,963 (0,007) / Cramerren V = 0,096.

4.1.6 Aitaren eta amaren ikasketa-mailarik altuena

Lan hori egiten duten ama, aita edo pertsonen ikasketa-mailaren arteko erlazioari dagokionez, aurreko urteetako joerari eutsi zaio: zenbat eta txikiagoa hezkuntza-maila, orduan eta emantzipatzeko probabilitate handiagoa seme-alaben artean, batez ere erabateko emantzipazioaren modalitatean —derrigorrezko edo lehen mailako ikasketak dituzten familietatik datozenen artean, 12,7 puntu handiagoa da probabilitatea hori, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoak dituztenen artean baino—.

2023arekin alderatuta, ikusten da erabateko emantzipazioak behera egin duela pixka bat, eta bizitegi-emantzipazioak, berriz, gora, bai goi-mailako ikasketak eginiko gurasoak dituztenen artean, bai derrigorrezko edo lehen mailako ikasketak eginiko familietatik datozenen artean. Hala ere, lehen taldean pixka bat igo egin da emantzipazio osoa, eta bigarrenean, berriz, egonkor jarraitu du. Bestalde, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituzten familietatik datozenen artean, gora egin du emantzipatu gabeko pertsonen proportzioak; horrek esan nahi du nolabaiteko geldialdia edo atzerapena ageri dela familia-etxetik ateratzeko prozesuan.

¹³ Batxilergoa, erdi-mailako LH, 2. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak.

¹⁴ DBH, Oinarritzko LH, Lanbide Heziketako irakaskuntza, 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria

12. taula. Biztanle emantzipatuak, gurasoen edo guraso-lanak egiten dituztenen ikasketa-mota eta -maila altuenaren arabera. 2023-2025

Gurasoen ikasketa-maila	2023			2025		
	Erabatekoa	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabea	Erabatekoa	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipatu gabea
Goi-mailako ikasketak	% 24,7	% 17,8	% 57,5	% 22,1	% 22,8	% 55,0
DBHren Ondokoa	% 33,0	% 13,8	% 53,2	*	*	% 56,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 38,4	% 17,6	% 43,9	% 34,8	% 21,3	% 43,9
GUZTIZRA	% 30,6	% 16,8	% 52,7	% 28,3	% 21,2	% 50,5

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

2025: Pearsonen khi karratua = 14,903 (0,021) / Cramerren V = 0,099.

4.1.7 Emantzipatzeko adina: Espainiako eta Nafarroako testuingurua

Aurreko hiru edizioetan aipatu zen bezala, metodologikoki zaila da kalkulatzeko gazteek batez beste zer adinetan uzten duten familia-etxea, beren bizi-ibilbideari buruzko luzetarako daturik gabe. Informazio hori lortzeko modurik ohikoenak dira, batetik, zeharkako metodoak erabiltzea, eta, bestetik, galde-sortan zuzenean galdetzea, azterketa honen edizio guztietan egin den bezala. Horregatik, askotan informazio desberdinak aurkitzen ditugu, baina, kontraesankorrak emanagatik ere, ez dira hala.

Zeharkako metodo erabilien artean, Europako Batzordearen Estatistika Bulegoarena (EUROSTAT) nabarmentzen da. Bulego horrek gazteen emantzipazioaren batez besteko adina kalkulatu du, *Labour Force Survey* (Espainiako Biztanleria Aktiboaren Inkesta) oinarri hartuta. *Labour Force Survey* ez da luzetarako inkesta bat, eta ez du galdetzen zehazki gazteek zer adinetan utzi zioten beren gurasoekin bizitzeari (kontuan hartu gabe beste senide batzuekin bizi diren). Emantzipatzeko batez besteko adina lortzeko, EUROSTATEk familia-etxetik «ateratzeko» probabilitatea kalkulatu du, eta adinaren arabera aldeak haztatzen ditu, premisa gisa harturik 38 urterekin emantzipatuta daudela biztanle guztiak.

Kalkulu-metodo horren abantaila da Europar Batasuneko herrialde guztietan aplikatzen ahal dela: lehendik dagoen iturri estatistiko bat aprobetxatuz, erraz aurkitzen ahal da komunikazioari dagokionez. Emaitzen arabera, gazteak beranduen emantzipatzen diren herrialdeen artean seigarrena zen Espainia 2024an (30 urterekin). Kroazia da zerrendaburu, batez beste 31,3 urterekin (**8. grafikoa**). Adierazle horrek, denbora-serie luzeagoa izanik, zalantza gehiago sortzen ditu eta baditu zenbait inkongruentzia ere, denboran zehar oso gorabehera gutxiko zifrak eman ohi baititu, edozein izanik ere bizitegi-emantzipazio osoaren bilakaera.

8. grafikoa. Europako 15-34 urteko biztanleen batez besteko adin zenbatetsia. 2017-2024




Iturria: EUROSTAT.

<https://ec.europa.eu/eurostat/databrowser/view/yth_demo_030/default/table?lang=en> [2025eko urriaren 16an kontsultatua].

Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkestaren 2025eko emaitzei EUROSTATen kalkulu-metodologia aplikatuz, batez besteko adina 30,9 urte da erabat emantzipatutako biztanleen kasuan, eta 26,5 urtera jaisten da bizitegiari dagokionez bakarrik emantzipatutako biztanleak ere kontuan hartuz gero (9. grafikoa).

9. grafikoa. Emantzipatzeko batez besteko adina, metodologiaren arabera. 2023-2025



4.1.8 Nafarroan aitortutako emantzipazio-adina

Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko 2025eko inkestako datuekin zuzenean, 21,4 urte da emantzipazio osorako aitortutako batez besteko adina. Adin hori 22,3 urte izan zen 2021ean, eta 2023an, berriz, 21,8 urte; hala, beheranzko joera ageri du, alde handirik gabe. Erabateko emantzipazioaren kasuan, 23,1 urte da (22,7 zen 2023an), eta bizitegi-emantzipazioarako, berriz, 19,4 (20 urte 2023an) (**13. taula**).

Ikusten ahal denez, distantzia nabari da objektiboki zenbatetsitako adinaren eta aitortutako adinaren artean, eta agerian gelditzen da ezen, iturri bera erabilia ere, emantzipatzeko batez besteko adin oso desberdinak lortzen ahal direla. Beste ikerketa batzuetan ere agertzen da desadostasun hori. Zenbatespen «objektiboak» egiteko, zeharkako metodo batzuk baliatzen dira, adinaren arabeko emantzipazio-tasen diferentzietan oinarrituta, eta, aldiz, aitortutako adinak zuzenean jasotzen du gazteek elkarriketaren unean adierazitako iritzia.

Gurasoekin (edo gurasoetako batekin) edo guraso-lanak egiten zituenarekin bizitzeari gazteagotan utzi diotela adierazten duten profilak bereizita (**14. taula**):

- Emakumeak
- Ikasten ari diren pertsonak.
- Lehen edo bigarren mailako derrigorrezko ikasketak dituztenak, prestakuntza-etapa goizago burutzearekin lotuta. Aldiz, goi-mailako ikasketak dituztenak beranduago ateratzen dira familia-etxetik.
- Espainiatik kanpo jaiotako pertsonak.
- Iruñetik eta Iruñeritik kanpo bizi direnak.
- Lehen edo bigarren mailako derrigorrezko ikasketak dituzten gurasoen seme-alabak —arrakala handirik gabe goi-mailako ikasketak burutu zituztenekin—.

Aldagai hori familia-etxe motarekin eta emantzipazio-motarekin gurutzatuz gero, ikusten da gazteagotan emantzipatzen direnek pisua partekatze joera dutela, batez beste 19,5 urterekin (**13. taula**). Beste muturrean, bikotean edo bakarrik bizi direnei dagozkie adin

handienak, eta emantzipazio osorako batez besteko adina 22,5 eta 22,4 urte da, hurrenez hurren.

13. taula. Aitortutako batez besteko emantzipazio-adina, familia-etxe motaren eta emantzipazio-motaren arabera. 2023-2025

Etxe-mota	Batez besteko adina emantzipazio osoa		Batez besteko adina erabateko emantzipazioa		Batez besteko adina soilik bizitegi-emantzipazioa	
	2023	2025	2023	2025	2023	2025
Bakarrik	22,4	22,4	23,1	23,2	*	*
Pisua partekatuta	20,0	19,5	*	*	20,0	19,5
Bikotean**	22,1	22,5	22,3	23,2	*	*
GUZTIZRA	21,8	21,4	22,7	23,1	20,0	19,4

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

**2023: «Bikotean» eta «bikotean eta seme-alabekin» bizi diren familia-etxeen batez besteko adina.

14. taula. Emantzipatzeko batez besteko adina, zenbait aldagai kontuan hartuta. 2023-2025

		Aitortutako batez besteko adina	
		2023	2025
GUZTIZRA		21,8	21,4
Sexua	Emakumezkoa	21,4	21,1
	Gizonezkoa	22,2	22,0
Lan-egoera	Ikasten	19,1	19,1
	Ikasten eta lanean	21,7	21,7
	Soilik lanean	22,3	22,5
Ikasketa-maila	Goi-mailako ikasketak	22,7	22,9
	Derrigorrezkoaren Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	20,6	20,4
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	20,2	20,2
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego batzuk	22,6	22,2
	Espainiatik kanpokoak	20,2	20,4
Bizitegi-eremua	Iruña eta Iruñerria	22,1	22,0
	Gainerako eskualdeak	21,4	21,0
Gurasoen ikasketa-maila altuena	Goi-mailako ikasketak	22,1	21,8
	DBHren Ondokoa	21,6	21,8
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	21,5	21,2

4.1.9 Familia-etxetik ateratzea. Arrazoi nagusiak

Egindako azken 3 txostenetan, hauek izan dira familia-etxea uzteko arrazoi aipagarrienak: independizatu nahia, bikotekidearekin bizitzea edo ezkontzea, eta ikasketengatik edo lanagatik lekualdatzea. Hala ere, independizatzeko nahiak pisua galdu du etengabe


(2021ean % 43,8 izatetik 2025ean % 31,3 izatera), eta, aldiz, handitzen joan dira inguruabar zehatzei lotutako motibazioak, hala nola ikasketengatik lekualdatzea edo bikotekidearekin bizitzea (**10. grafikoa**).

Aldaketa horiek nolabaiteko trantsizio bat adierazten dute: autonomia pertsonalean oinarritutako emantzipaziotik, kanpoko edo egiturazko faktoreek gehiago baldintzatutako formetara, alegia. Kasu askotan, etxetik ateratzea aldi baterako edo funtzionala izaten da, eta horrek oztopo ekonomiko eta sozial handiagoak iradokitzen ditu, denboran zehar erabateko emantzipazio iraunkorra lortzeari dagokionez.

2023ko emaitzen ildotik, alde garrantzitsuak ikusten dira sexuaren arabera: emakumeek neurri handiagoan adierazten dituzte bikotekidearekin bizitzearekin lotutako arrazoiak (% 32,1) eta ikasketekin lotutakoak (% 35,6); gizonek, aldiz, independentzia-nahia nabarmentzen dute (% 38,2). Alde horrek izanen du zerikusirik, ziur aski, ikasketak beranduago burutzearekin eta txostenean adierazitako sexuen araberako arrakala ekonomikoarekin.

«Beste batzuk» kategorian, garrantzi txikiagoarekin bada ere, familia-arrazoiak aipatzen dira batez ere (bizikidetzaren txarra edo bizi-gertakarien ondoriozko familia-berregituraketa, besteak beste, gurasoen heriotza edo amatasuna), baita migrazio-arrazoiak ere. Ageri dira, orobat, etxeko zailtasun ekonomikoari edo egoera puntualei buruzko aipamenak ere, hala nola pandemiak adinekoekin bizitzean izaniko inpaktua. Kasu batzuetan, bizitegi-emantzipazio iraunkorrak aitazen dira, familiaren laguntzarekin edo lagatako etxebizitzetan. Kategoria horrek garrantzi estatistikorik ez duen arren, indartu egiten du lehen adierazitako kanpo-faktoreek baldintzatutako emantzipazioen ideia, ikuspegi kualitatibotik erreparatuta.

10. grafikoa. Emantzipazioaren arrazoi nagusiak*. 2023-2025



* Aukera anitzeko galdera.

Emantzipazio-motaren eta emantzipatzeko arrazoi nagusiaren arteko gurutzaketak indartu egiten du irakurketa hori. 2025ean, erabateko emantzipazioa batez ere bizi-erabaki finkatuekin lotzen da, hala nola bikotekidearekin bizitzearekin (% 47,6) edo independizatu nahiarekin (% 40), eta bizitoki-emantzipazio hutsa, berriz, batez ere ikasketengatik beste norabait joatearekin lotzen da (% 63,2). Adina kontuan hartuta, ikasketak direla-eta lekualdatzen direnak ateratzen dira lehenbizi familia-etxetik, eta emantzipatu nahi dutenak ia lau urte geroago ateratzen dira. Hori horrela, eutsi egiten zaio 2023an ikusitako joerari: paradoxikoki, independizatzeko gogo handiena duten pertsonak behar dute denbora gehien horretarako.

15. taula. Aitortutako batez besteko adina: aitorturiko arrazoi nagusiak. 2023-2025

Etxe-mota	Batez besteko adina	
	2023	2025
Independizatzeko gogoia	22,9	22,6
Bikotekidearekin bizitzea/ezkontzea	22,6	23,5
Ikasketengatik lekualdatzea	19,1	18,8
GUZTIZRA	21,8	21,5


Edizio honetan sartutako galderak emantzipatzeko itxaropen eta eredu idealak ezagutzera bideratuak ziren, eta, haien artean, independizatzeko egokitzat jotzen den adinari eta emantzipazio-egoera idealari buruzkoak ageri ziren.

Lehenengoari dagokionez, erantzunak nahiko modu orekatuan daude banatuta: 25 urte baino lehen izan behar duela iruditzen zaienak (% 47,6) eta 25 eta 34 urte bitartean kokatzen dutenak (% 52,4). Bigarren galderari dagokionez, bikotean bizitzea (% 44,1) edo bakarrik bizitzea (% 45,1) dira lehentasunak, eta % 9,3k bakarrik hautatuko luke pisu partekatuan bizitzea.

Emitza horiek adierazten dute ezen, gazte gehienek iritzian, emantzipazioa erabateko autonomiarako proiektu bat dela, banaka edo bikotean izanik ere. Aldiz, behin-behineko soluziotzat ikusten dute etxebizitza partekatua, baita bizitegi-emantzipazioa soilik lortzea ere.

Hala ere, itxaropen horiek ez datoz bat errealitate honekin: biztanle emantzipatuen % 25ek partekatzen du etxebizitza eta % 21,8 bizi da bakarrik. Bikotean bizitzeari dagokionez ageri da konbergentzia handiena aitortutako itxaropenen eta biztanle emantzipatuen benetako baldintzen artean (**11. grafikoa**).

11. grafikoa. Bizikidetzamota: egiazkoa eta desiratua. 2025




4.1.10 Emantzipatu gabeko biztanleak: ez emantzipatzeko eta familia-etxera itzultzeko arrazoiak

Inkestatutako pertsonen erdiak familia-etxean bizi dira (% 50,5), eta horietatik % 77,1ek adierazi dute ez diotela utzi sekula han bizi zeari (% 81,1 ziren 2023an). Galde-sortaren edizio honetan erantsitako galderen artean, emantzipatu gabeko pertsonen zuzendutako bat sartu zen: une honetan independizatzeko nahiri buruzkoa. % 40,7k baiezkua erantzun zuten, eta % 49,3k adierazi zuten oraindik ez zutela interesik horretarako.

«Beste batzuk» kategorian —ez da adierazgarria estatistikoki—, inguruabar pertsonalak edo iragankorrak agertu ziren, hala nola osasun-arazoak, bikotekideak ikasketak burutu arte itxarotea edo epe ertainean prestakuntza bat planifikatzea familia-etxetik kanpo. Komenigarria litzateke txostenaren hurrengo edizioetan alderdi kualitatibo horietan sakontzea, gazteen emantzipazioa baldintzatzen duten faktore pertsonalak eta inguruabarrak hobeki ulertzeko.

2017tik, gaztetasuna edo ikasketekin jarraitzea dira ez emantzipatzeko arrazoi nagusiak, eta, ondotik, baliabide ekonomiko gutxi izatea —goranzko joera ageri dute 2021etik—. Aldi berean, familia-etxeko ongizateari lotutako arrazoiak behera egin dute modu jarraituan (esaterako, «gurasoekin gustura bizi zena»), urte horretan bertan igoera puntual bat izan ondotik. Lan-ezegonkortasunarekin edo enplegu faltarekin lotutako arrazoiak, bestalde, gorabeherak izan dituzte aztertutako aldian, eta 2025ean lorturiko mailak 2019koen antzekoak izan dira (% 15,9), 2021ean ikusitako gorakadaren eta gero (ziurrenik pandemia ondoko giroarekin lotuta).

12. grafikoa. Ez emantzipatzeko arrazoi nagusiak. 2017-2025




«Beste batzuk» kategoriak, estatistikoki modu nabarmenean ez bada ere, modu kualitatiboan indartu egiten du faktore ekonomikoaren eta etxebizitza eskuratzearen garrantzia, emantzipazioarako baldintzatzaile nagusi gisa. Behin eta berriz agertzen dira merkatuko prezioei aurre egiteko zailtasuna, aurrezkerik eza edo landa-eremuetako eskaintza-eraketa. Enplegu prekarioa edo ezegonkorra duten kasuak gehitu behar zaizkio horri, kontuan izanik mugatu egiten dutela etxebizitza-gastuak edo epe luzerako konpromisoak hartzeko gaitasuna.

Arrazoi estruktural horiekin batera, ageri dira etxetik ateratzea atzeratzen duten arrazoi pertsonalak eta familiarak ere, batik bat ikasten jarraitzen dutenen, oraindik prest ez daudela uste dutenen edo bizitzako beste helburu batzuk lehenesten dituztenen artean. Zenbaitetan, emantzipatu gabe jarraitzea estrategia funtzional gisa azaltzen da (erosotasunagatik, elkarri laguntzeagatik edo aurrezki partekatuagatik), inposizio gisa baino gehiago. Oro har, testigantzek erakusten dute emantzipazioa gero eta gehiago dagoela baldintzatuta oztopo ekonomikoaren eta bizi-ibilbideen aldaketaren konbinazioarekin; kasu horietan, independentzia lortu nahi den helburu bat da, baina eskuratzeko zaila.

Bizitzan zehar noizbait familiararen etxetik atera direla dioten artean (% 22,9), gehienek behin bakarrik egin dute (% 19,3): eskuarki 16 eta 24 urte bitartean atera dira familia-etxetik, eta pisu partekatu batean bizi izan dira, batez ere bizitegi-emantzipazioan. Pertsona horietako gehienak familia-etxera bueltatu ziren ikasketak burutu ondotik. % 3,6k dio bitan edo gehiagotan emantzipatu dela, baina kasuen kopuruak eta laginaren tamainak ez dute ahalbidetzen talde horri buruzko ondorio estatistikoki nabarmenak ateratzerik. Oro har, datuek emantzipazio-ibilbide itzulgarriak bistaratzen dituzte, eta goranzko joerarekin.

13. grafikoa. Familia-etxera itzulitakoaren ehunekoa. 2021-2025



4.1.11 Zer faktorek azaltzen dute bizitegi-emantzipazioa?

Emantzipazio-jarraibideetan desberdintasunak banan-banan definitzen dituzten aldagaiak zerrendatzeak nolabaiteko paralisi- edo saturazio-sentsazioa eragiten ahal du, ikusirik ezinezkoa dela bereiztea zein osagai diren argigarrienak. Erregresio logistikoa lagungarria izaten ahal da ziurgabetasun hori konpontzeko; izan ere, «aldagai anitzeko estatistika-teknika bat da, mendeko aldagai baten eta aldagai independenteen multzo baten arteko mendekotasun-erlazioa aztertzeraz bideratua, erregresio lineal klasikoaren analisiak jokatzen duenaren ildo bertsutik. Analisiaren helburua da portaeraren iragarpenak egin ahal izatea; hau da, mendeko aldagaiak definituriko gertaera baten probabilitateak zenbatestea, iragarpen- edo pronostiko-adierazleen multzo baten arabera» (Roldan, 2016: 10). Beste era batera esanda, haren bidez zehazten ahal da zer aldagai diren lagungarriak zenbait gertaera azaltzeko (esaterako, gazte bat emantzipatuta egotea), eta, bide batez, beste zenbait aldagai baztertzeko, ikusiz gero lotura zuzena izan arren murriztu egiten dela haien eragina edo are bazterturik gelditzen dela aldi berean beste aldagai batzuk kontuan hartzen direnean.

Antzeko ariketa egin da *Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkestaren* aurreko edizioetan ere. 2023an, konparazio baterako, nabarmentzen zen adinak, sexuak eta jaioterriak ahalbidetzen zutela zehaztasun handienez, ordena horretan, gazte batek emantzipatuta egoteko duen probabilitatea kalkulatzeko. 2025ean, emaitzak oso antzekoak dira (**16. taula**), baina aldea da eredu bi aldagairekin bakarrik dela nabarmena: adinarekin eta jaioterriarekin, alegia. Jaioleku berean, etxebizitza-emantzipazioa % 23 handitzen da adin-urte bakoitzeko; era berean, Nafarroan bizitzeak % 47 murrizten du pertsona bat emantzipatuta egoteko probabilitatea, eta konstante mantentzen du adina. Bi aldagai horiekin lortutako doikuntza-maila 2023koa baino txikixeagoa da, baina ez da nahikoa hauskorra dela baieztatzeko. Bidean, alde batera utzi dira *a priori* garrantzitsuak diren beste aldagai batzuk, hala nola sexua, lan-egoera, ikasketa-maila edo bizilekua.

**16. taula. Erregresio logistikokoaren eredu osoa etapaz etapa
Mendeko aldagaia: bizitegi-emantzipazio osoa. 2025**

Pasabidea	Aldakorra/ Kategoria	Probabilitate- arrazoia (<i>odds ratio</i>)	R ² Nagelkerke	Khi karratua	Esangura- maila
1. urratsa	Adina	1,24**	0,31	197,22	0,00
	Konstantea	0,00**			
2. urratsa (azken eredua)	Jaioterria (Nafarroan bizi)	0,53**	0,32	209,00	0,00
	Adina	1,23**			
	Konstantea	0,01**			

Kasu-kopurua: 753 / Eten-puntua: 0,50.

Azken ereduari ongi sailkatutako kasuen %a: % 72,6 (% 50,5 eredu nulua).

Hosmer eta Lemeshow testen esanahia: % 53,1.

Kanpoan utzitako aldagaiak: lan-egoera, buruturiko ikasketak, lan-egoera, gurasoen ikasketa-maila altuena, sexua, bizitegi-eremua, tentsiopeko merkatuko zonaldean bizi izatea, lanaldi osoko lana eta kontratu mugagabea izatea.

** Esangura-maila altua (<0,01).

* Esangura-maila baxua (0,01 eta 0,05 artean).

Logika berarekin, erregresio logistikoko beste eredu bat aplikatzen ahal da, zehazteko zerk azaltzen duen gazte bat erabat edo bizitegiari dagokionez bakarrik emantzipatuta egotea (**17. taula**). Agertoki horretako kasuen kopurua askoz txikiagoa da (367), eta ia erabat gerturaten da zenbait egilek teknika hori aplikatzeko egokitzat jotzen duten mugara. Bitxia bada ere, bigarren eredu hori pixka bat konplexuagoa da aurrekoa baino, hiru aldagai hartzen baititu kontuan, eta ez bi: lehenik eta behin, adina; bigarrenik, ikasketak burutu zirenetik igaro den denbora; eta, hirugarrenik, kontratu mugagabearekin aritzea lanean. Hori horrela, baztertu egiten dira aurreko ereduak jasotzen ez zituen aldagai haiek berak (sexua, bizilekua, lan-egoera...), baina baita jaioterria ere. Horrek adierazten du ez dela lagungarria gazte batek lortzen duen emantzipazio-mota bereizteko. Diru-sarreraren jatorriak —hau da, beste pertsona batzuen ekarpenen mende egoteak edo ekonomikoki buruaskia izateak— ez du laguntzen bizitegi-emantzipazio osoari buruzko pronostikoak hobetzen, baldin eta hautatutako hiru aldagaiekin konbinatzen bada aldi berean. Aitzitik, beste ñabardura bat gaineratzen du: emantzipazioaren eta ikasketak egitearen arteko harremana, eta, zehazkiago, ikasketak burutu bezain laster edo geroago emantzipatzea. Horrek guztiak adierazten du adin aurreratuetan lortzen dela erabateko emantzipazioa, lanpostu bat kontratu mugagabe batekin betetzea lortzen denean eta prestakuntza akademikoko aldia burutu ondotik.

17. taula. Erregresio logistikoko eredu osoa etapaz etapa Mendeko aldagaia: erabateko emantzipazioa. 2025

Pasabidea	Aldagaia / Kategoria	Probabilitate-arrazoia (odds ratio)	R ² Nagelkerke	Khi karratua	Garrantzia
1. urratsa	Adina	1,24**	0,25	76,64	0,00
	Konstantea	0,00**			
2. urratsa	Adina	1,20**	0,36	116,65	0,00
	Ikasketak burutu zituen adin berean emantzipatu zen	5,05**			
	Ikasketak burutu ondotik emantzipatu zen	5,07**			
	Ikasten ari zela emantzipatu zen	1,17			
	Konstantea	0,00**			
3. urratsa (azken eredu)	Adina	1,20**	0,39	128,32	0,00
	Kontratu mugagaberi gabe	0,41**			
	Ikasketak burutu zituen adin berean emantzipatu zen	3,54*			
	Ikasketak burutu ondotik emantzipatu zen	3,98**			
	Ikasten ari zela emantzipatu zen	0,93			
	Konstantea	0,01**			

Kasu-kopurua: 367 / Eten-puntua: 0,50.

Azken ereduari ongi sailkatutako kasuen %a: % 74,0 (% 57,1 eredu nulua).

Hosmer eta Lemeshow testen esanahia: % 75,1.

Kanpoan utzitako aldagaiak: jaiolekua, lan-egoera, buruturiko ikasketak, lan-egoera, gurasoen ikasketak-maila altuena, sexua, bizitegi-eremua, tentsiopeko merkatuko zonaldean bizi izatea, lanaldi osoko lana, kontratu mugagabea izatea eta diru-sarreraren jatorria.

** Esangura-maila altua (<0,01).

* Esangura-maila baxua (0,01 eta 0,05 artean).

4.1.12 Ondorio nagusiak

- Nafarroako gazteen emantzipazio-tasa maximo historikora iritsi da 2025ean (% 49,5), bizileku-emantzipazio hutsaren igoerak bultzatuta (% 43), kontuan izanik emantzipazio-mota hori 7,4 puntu igo dela 2023arekin alderatuta; erabateko emantzipazioa, berriz, proportzio berean jaitsi da (% 35,5).
- Emakumeek emantzipazio-tasa handiagoak dituzte oraindik ere (% 51,5) gizonen baino (% 47,7), baina serieko txikienera murrizten da aldea. Gizonen emantzipazioaren gorakadak eragin du murrizketa hori, zeina bizitegi-modalitatean kontzentratu baita ia erabat. Emakumeetan, aldiz, erabateko emantzipazioak behera egin du eta bizitegi-emantzipazioak, berriz, gora (ehuneko sei puntu handiagoa izaten jarraitzen du gizonen kasuan baino).

- Espainiako Gazteriaren Kontseiluaren adin-tarte berberak baliaturik¹⁵, 16-29 urteko biztanleen % 37,2 familia-etxetik kanpo bizi dira, 2023an baino 4,1 puntu gehiago, eta 30-34 urtekoen artean, berriz, % 81,6. Bizitegi-emantzipazioa da nagusi gazteen artean, eta erabatekoa, berriz, goiko tartean (azken hori 7,4 puntu jaitsi da 2023arekin alderatuta).
- Atzerrian jaiotako biztanleek dituzte oraindik ere emantzipazio-tasarik altuenak (% 62,9), Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoek baino hemeretzi puntu gehiago (% 43,9). Serie osoko arrakala handiena da, batez ere bizitegi-emantzipazioa ehuneko 15,2 puntu handitu baita 2023arekin alderatuta (2023an % 37,1ekoa zen).
- Bizilekuaren arabera. Iruñeak eta Iruñerriak Nafarroako gainerako eskualdeen antzeko balioak dituzte —erabateko emantzipazioa ehuneko 2 puntu handiagoa da hiriburutik kanpo—. Tentsiopeko merkatuko zonaldetzat jotako eremuek ehuneko 6 puntu gehiago dituzte, bizitegi-emantzipazio handiagoaren kaltetan.
- Hezkuntza-mailari dagokionez, emantzipazioak behera egin du goi-mailako ikasketak dituztenen artean (2,9 puntu), eta erabateko emantzipazioak, berriz, 5,2 puntu egin du behera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak burutu dituztenen artean, emantzipazioa ehuneko 8,3 puntu igo da.
- Gurasoen hezkuntza-mailaren eta emantzipazioaren arteko harremanak bere horretan jarraitzen du: zenbat eta txikiagoa familiako prestakuntza-maila, orduan eta probabilitate handiagoa erabateko emantzipaziorako —ehuneko 11,1 puntuko alde ageri da lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen seme-alaben (% 43,9) eta goi-mailako ikasketak dituztenen (% 55) artean—. Era berean, ehuneko 5 puntu igo da emantzipazioa goi-mailako ikasketak eginiko gurasoak dituzten gazteen artean.
- EUROSTAT metodologiarekin kalkulaturako erabateko emantzipazioko batez besteko adina 30,9 urte da (26,5 urte emantzipazio osorako), eta igoera txiki bat hautematen da (29,4) 2023arekin alderatuta (25,3 osorako). Gazteek aitortutako adina, berriz, 23,1 urte da (21,4 urte osorako).
- 2025ean, independentzia-nahia da oraindik emantzipatzeko arrazoi nagusia, baina pisua galdu du ikasketek eraginda lekualdaketen eta bikotekidearekin bizitzearen aurrean. Erabateko emantzipazioa erabaki egonkorragoekin lotzen da; bizitegi-emantzipazioa, berriz, arrazoi akademikoekin batez ere, eta adin txikiagoetan gertatzen da.
- Gazteen erdiak ez dira emantzipatu, batez ere ikasten jarraitzeagatik edo baliabide ekonomikorik ez izateagatik. Arrazoiak egonkor jarraitzen dute 2017tik, eta beren

¹⁵ [Emantzipazioaren Behatokia | Espainiako Gazteriaren Kontseilua](#) [2025eko urriaren 16an kontsultatua].


horretan segitzen dute ibilbide itzulgarriek: ikasketak burutu ondotik familia-etxera bueltatzen direnak.

Kapitulu honen azterketan ikusten ahal denez, emantzipazio osoa areagotzen bada ere, hazkundera bizitegi-emantzipazioa bakarrik lortzen dutenetan kontzentratzen da; erabateko emantzipazioa, berriz, jaitsi egiten da. Hala, finkaturik gelditzen da kanpo-faktoreek edo faktore estrukturalak gehiago baldintzatzen dituzten formetarantz igarotzeko joera. Familia-etxetik ateratzea aldi baterakoa edo funtzionala izan ohi da maiz, eta horrek islatzen du iraun egiten dutela erabateko independentzia lortzeko oztopo ekonomiko eta sozialek.


Gainera, bere horretan jarraitzen du aitortutako emantzipazio-adinaren eta independentzia ekonomikoa ardatz duten adierazle tradizionalen arabera kalkulaturakoaren arteko aldeak, oraindik ez baitira jasotzen mendeko emantzipazio-modu berriak. Aitortutako adinaren arabera, ikasketengatik lekualdatzen direnak ateratzen dira lehenbizi familia-etxetik, eta emantzipatu nahi dutenak, berriz, ia lau urte geroago. Hala, mantendu egiten da 2023an jada ikusitako paradoxa: independentzia nahi duten pertsonak behar dute, aldi berean, hori lortzeko denbora gehien.

Hala, bere horretan jarraitzen du aurreko txostenean adierazitako egoerak: indarrean dauden etxebizitza- eta enplegu-politikek ez diete erabat erantzuten Nafarroako gazteen emantzipazio-behar eta -nahiei, denboran egonkor segitzen duten arren.

Bizileku-emantzipazioaren zenbateko handienak erregistratzen dituzten kolektiboak



Emantzipatu gabeko pertsona gehien dituzten kolektiboak




5. LAN- ETA EKONOMIA-EGOERA

2023tik 2025era bitartean, apenas aldatu da lan bakarrik egiten dutela dioten gazteen proportzioa (% 45,8 ziren 2023an eta % 45,6 dira 2025ean). Alabaina, bada aldatu den zerbait: lan egiten duten herritarren artean, nola banatzen den bizitegi-egoera (**14. grafikoa**). Hain zuzen ere, 2025ean murriztu egin dira erabat emantzipatuta daudenak, eta, aldiz, gehiago dira lan egin bai baina emantzipatu gabe daudenak edo bakarrik bizi direnak. Hala ere, oraindik familia-etxean bizi diren gehienak ikasten ari dira (% 43,7).

Datuak adierazten dute enplegu egonkorak pisu txikiagoa duela egoera nagusi gisa, eta dibertsifikatzen ari direla lana, prestakuntza eta familia-mendekotasuna maizago uztertzen dituzten ibilbideak.

14. grafikoa. Lan bakarrik egiten duten gazteak. 2023-2025




Lan bila ari diren pertsonen % 43,2k adierazi dute onartuko luketela enplegu bat Nafarroan. Foru Komunitatetik kanpo onartzeko prest daudenen datuak ez dira estatistikoki adierazgarriak.

5.1 Enplegu-mota

Inkestatutako gazteen % 59,7k lan egiten du, batez ere besteren kontura (% 92,2), eta haien artean gehiago dira emakumeak eta Espainian jaiotako pertsonak (Nafarroa edo beste autonomia-erkidego batzuk). Egoerak egonkor jarraitzen du 2023arekin alderatuta, eta igoera txiki bat hautematen da gizonen eta atzerrian jaiotako biztanleen artean. Aldiz, gutxiago dira emakumeak eta Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak (**15. grafikoa**).

Norberaren kontura lan egiten duten edo kooperatiba bateko kide diren pertsonen datuak ez dira estatistikoki adierazgarriak, eta, laginaren tamaina dela medio, talde nagusia bakarrik hartzen ahal da kontuan —hots, soldatapekoak—.

15. grafikoa. Soldatapeko gazteak, sexuaren eta jaiolekuaren arabera



5.2 Kontratuen iraupena

2025ean, soldatapeko lau gaztetik hiruk kontratu mugagabea dute (% 75,6); 2023an baino ia % 12 gehiago dira, eta 2021ean baino % 20 gehiago. Aldi berean, behin-behineko kontratuak behera egin dute etengabe: 2021ean % 44,8 izatetik 2025ean % 21,1 izatera igaro dira. 2023an txertatutako aldizkako finkoaren kategoriak hondar-pisua segitzen du izaten, eta apenas du garrantzi estatistikorik. Oro har, datuek erakusten dute hobetu egin dela kontratu-egonkortasuna gazteen artean, azken lan-erreformaren ondorioekin bat¹⁶.

18. taula. Soldatapeko gazteak, kontratu-motaren arabera. 2017-2025

Kontratu-mota	2017	2019	2021	2023	2025
Mugagabea	% 59,2	% 55,3	% 55,2	% 63,7	% 75,6
Aldi baterakoa	% 40,3	% 44,2	% 44,8	% 29,7	% 21,1
Aldizkako finkoa	**	**	**	% 6,7	*

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

**Kategoria hori ez zen jasotzen 2023a baino lehen.

Aldagaien arabera eta 2023arekin alderatuta, gai hauek nabarmentzen dira:

- 30-34 urteko pertsonen lan-egonkortasun handiagoa jarraitzen dute izaten, nahiz eta 16-29 urteko taldearekiko aldea ia ehuneko 7 puntu murriztu den. Gazteen behin-behinekotasunak (% 28 eta % 18,6, hurrenez hurren) adierazten du are ezegonkorragoa dela lanean hasteko prozesua lehen etapetan.
- Gizonek lan-egonkortasun handiagoa mantentzen dute, nahiz eta emakumeekiko aldea ehuneko 6,2 puntu murriztu den, haien arteko kontratu mugagabeen gorakada nabarmenari esker.
- Goi-mailako ikasketak dituztenek lan-egonkortasun handiagoa jarraitzen dute izaten, baina murriztu egin da batez besteko mailekiko aldea: kontratu mugagabeen tasa

¹⁶ Espainiako azken lan-erreforma handia 2021aren hondarrean izan zen (32/2021 Legegintzako Errege Dekretua), eta 2022an hartu zuen indarra. Haren helburua zen behin-behinekotasuna murriztea eta kontratu mugagabeak sustatzea, eta funtsezkoa da aldizkako finkoaren figura.

15,5 puntu igo da goi-mailako ikasketak dituztenen artean, eta 8,2 puntu derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak burutu dituztenen artean. Derrigorrezko ikasketak soilik dituztenetan, berriz, zertxobait jaitsi da tasa hori (ehuneko 1,6 puntu gutxiago).

- Espainian jaiotako pertsonen kontratazio mugagabeari dagokionez, ehuneko 15,8 puntu egin du gora, eta, hala, alderantzikatu egin da 2023ko joera, orduan atzerritarrek baitzuten lan-egonkortasun handiagoa.
- Lan-egonkortasuna handitu egiten da familien hezkuntza-maila guztietan, baina taldeen arteko aldeek marjina estuak dituzte (ehuneko 2 puntu ingurukoak).


19. taula. Kontratu mugagabea duten soldatapeko gazteak, zenbait aldagaien arabera. 2023-2025

		2023	2025
GUZTIZRA		% 63,7	% 75,6
Sexua	Emakumezkoa	% 58,5	% 73,6
	Gizonezkoa	% 68,5	% 77,4
Adina (Espainiako Gazteriaren Kontseilua)	16-29 urte	% 55,7	% 72
	30-34 urte	% 77,1	% 81,4
Ikasketa-maila	Goi-mailako ikasketak	% 65,7	% 81,2
	Derrigorrezkoaren Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	% 59	% 67,2
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 71,7	% 70,1
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 60,6	% 76,4
	Espainiatik kanpokoak	% 72,2	% 73,8
Gurasoen ikasketa-maila altuena	Goi-mailako ikasketak	% 58,2	% 74,6
	DBHren Ondokoa	% 64,2	% 75,3
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 71,6	% 76,7

Emantzipazio-motaren arabera, kontratu mugagabeen proportzio handiagoa ageri da erabat emantzipatutako pertsonen artean. Jarraian dituzte emantzipatu gabek eta, azkenik, bizitegi-emantzipazioa bakarrik lortu dutenak. Horrekin, alderantzikatu egin dira 2023ko datuak, orduan emantzipatu gabeko pertsonak baitzituzten lan-egonkortasunari loturiko tasarik txikiak. Talde horretan kontratu mugagabeak nabarmen igo direnez (ehuneko 21,5 puntu gehiago), ondorioztatzen da enplegu egonkorra izateak ez duela bermatzen bizitegi-independentzia. Egoera hori faktore batek baino gehiagok azaltzen ahal dute: etxebizitza garestitzeak (zaildu egiten baitu emantzipazioa, baita enplegu

egonkorra izanik ere); diru-sarrera apalak izaten jarraitzea kontratu mugagabea izanik ere, soldata txikiak edo lanaldi partzialak edukitzeagatik; edo familiaren laguntzari eusteko lehentasuna egoera ekonomiko pertsonala sendotzen den bitartean.

16. grafikoa. Kontratu mugagabea duten gazteak, bizitegi-egoeraren arabera. 2023-2025



5.3 Lanaldi-mota

Era berean, lanaldi-mota nagusia osoa da, 35 edo 40 ordu artekoa (% 79,6). Lanaldi partzialean lan egiten duten gazteak % 20,4 dira 2025ean; hau da, behin-behinekotasunak behera egin du 2023arekin alderatuta.

20. taula. Soldatapeko gazteen lanaldi-mota. 2017-2025

Lanaldi-mota	2017	2019	2021	2023	2025
Osoa	% 72,2	% 77,9	% 82,5	% 76,4	% 79,6
Partziala	% 27,0	% 22	% 17,5	% 23,6	% 20,4

Aldagaien arabera banakatuta, partzialtasuna ohikoagoa da 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, emakumeen artean, Espainian jaiotako biztanleen artean eta gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko hezkuntza-maila dutenen artean (**21. taula**). Hona hemen zenbait alderdi aipagarri:

- **Sexuaren arabera;** lanaldi osoan lan egiten duten gizonak % 85,9 dira, eta emakumeak, berriz, % 71,8; ehuneko 14 puntuko alde horrek erakusten du lan-dedikazioan desberdintasun iraunkorra ageri dela, nahiz eta arrakala ehuneko ia 5 puntu murriztu den 2023arekin alderatuta.
- **Adinari dagokionez,** 30 eta 34 urte bitarteko pertsonak % 11,1 gehiago dira 16 eta 29 urte bitartekoak baino lanaldi osoko enpleguan; baliteke alde hori lotuta egotea hurrengo etapetan lan-konsolidazio handiagoa izatearekin.
- **Hezkuntza-mailari** dagokionez, partzialtasuna Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituztenen artean kontzentratzen da (% 71,3k soilik egiten du lan lanaldi osoz); goi-mailako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikasketak dituztenen artean, berriz, antzeko tasak ageri dira, % 82tik

gorakoak. Eredu horrek iradokitzen du lanaldi partzialeko enpleguek tarteko prestakuntza-mailetan dutela eragina bereziki.


21. taula. Lanaldi osoko soldatapekoak, zenbait aldagairen arabera. 2025

		Lanaldi osoa (35/40 ordu)
GUZTIZRA		% 79,6
Sexua	Emakumezkoa	% 71,8
	Gizonezkoa	% 85,9
Adina	16-29 urte	% 75,6
	30-34 urte	% 86,7
Ikasketa-maila	Goi-mailako ikasketak	% 83,1
	Derrigorrezkoaren Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa	% 71,3
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 82,1
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 78,7
	Espainiatik kanpokoak	% 81,7
Gurasoen ikasketa-maila altuena	Goi-mailako ikasketak	% 81,1
	DBHren Ondokoa	% 76,5
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 80,1

Emantzipazio-motaren arabera, erabat emantzipatutako pertsonek jarraitzen dute izaten lanaldi osoko enpleguaren proportzio handiena. Ondotik, emantzipatu gabeek, eta, azkenik, bizitegi-emantzipazioa baino ez dutenek.

2023arekin alderatuta, lanaldi osoak gora egin du erabat emantzipatutako pertsonen artean (ehuneko 5,3 puntu) eta emantzipatu gabeen artean (ehuneko 12,7 puntu). Aldiz, behera egin du bizitegi-emantzipazioa soilik dutenetan (ehuneko 8 puntu). Aldaketa horren arabera, lanaldi osoko enplegua izateak ez du nahitaz bermatzen bizitegi-independentzia, eta baliteke mendekotasun handieneko emantzipazio-moduak enplegu prekarioagoi edo trantsizioan dauden lan-egoerei lotuta egotea.

17. grafikoa. Lanaldi osoz lan egiten duten soldatapeko gazteak, bizitegi-egoeraren arabera. 2023-2025




5.2.4 Enpleguan jarraitzeko itzaropena

2025ean, enpleguan jarraitzeko itzaropena handiagoa da 2023an baino. Langile gazteen % 62k oso konfiantza handia du lanpostuari eusteko. Horrek lan-egonkortasunaren aldeko pertzepzio orokorragoa islatzen du. Ez dago alde nabarmenik generoaren arabera. Gainera, ia erdiek diote beren egungo lanpostuak zerikusia duela beren prestakuntzarekin/espezializazioarekin.

- **Adinaren arabera**, 30-34 urtekoek egonkortasun handiagoa dute 16-29 urtekoek baino.
- **Jaiolekuaren arabera**, Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsonak konfiantza handiagoa dute lanean jarraitzeko, atzeritarrek baino.
- **Familiaren hezkuntza-mailaren arabera**, goi-mailako ikasketak dituzten gurasoek egonkortasunari buruzko pertzepzio handiagoa dute oinarriko hezkuntza duten familietatik datozenek baino.

Emantzipazio-motaren arabera, nabarmentzekoa da emantzipatu gabeko biztanleen % 61,9k itzaropen handia duela enpleguan jarraitzeko. Erabat emantzipatutako biztanleriaren aldean, 6,7 puntuko aldea baino ez dago, espero zitekeena baino txikiagoa. 2023tik 2025era bitartean, emantzipatu gabeko biztanleentzako itzaropenak ehuneko 26,1 puntu hobetu dira: ia bikoiztu egin da bi urte lehenago erregistratutakoa, eta nabarmen murriztu da bi taldeen arteko arrakala.

18. grafikoa. Datozen sei hilabeteetan egungo lanpostuan jarraitzeko itzaropen oso handiak, aldagaien arabera. 2025



*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

5.2.5 Soldata

Hileko soldata garbia

Elkarrizketa pertsonalen bidez diru-sarrerei loturik eskuratutako informazioari dagokionez, baliteke datuek inkestatutako pertsonen nolabaiteko errezeloa islatzea. Hala ere, ikusirik joera posible horrek egonkor jarraitu duela denboran, datuak alderagarriak dira edizio batzuetatik besteetara. Ikuspegi horretatik, aurreko edizioetan aipatutako soldata-banaketaren polarizazio gero eta handiagoa hautematen da: 2017 eta 2025 artean, ehuneko 10,7 puntu murriztu da diru-sarrera txikiak dituen taldea, eta diru-sarrera handiak dituen, berriz, bikoiztu egin da. Emaitzek adierazten dute hobekuntza jarraitua izan dela ordainsari-baldintzetan, gazte gehiago baitaude soldata-tarte altuetan. Aldi berean, gainera, areagotu egin da lan-egonkortasuna, eta lanbide arteko gutxieneko soldata, berriz, igo egin da urtez urte.

22. taula. Aitortutako hileko soldata garbia, tarteen arabera. 2017-2025

Hileko soldata garbia	2017	2019	2021	2023	2025
800 € baino gutxiago	% 22,3	% 12,7	% 6,5*	% 14,3	% 11,6
1400 € baino gehiago	% 22,4	% 33,9	% 29	% 44,5	% 56,5

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

2025ean, Nafarroako gazteen hileko batez besteko soldata garbia 1.448,91 euro da; hau da, 2023an baino % 6,6 handiagoa.

Aldagaien arabera, gizon gazteek soldata handiagoak jasotzen jarraitzen dute batez beste emakumeek baino, eta hilean 170 euro inguruko arrakala ageri da batzuetatik besteetara. 30-34 urteko pertsonen artean ikusten dira oraindik ere diru-sarrera handiak; 200 eurotik gorako aldea dago 16 eta 29 urte bitartekoen taldearekin alderatuta. Halaber, ikusten da Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsonak diru-sarrera handiagoak dituztela atzeritarrek baino, eta, berebat, goi-mailako ikasketak dituztenak ageri direla ordainsari-tarte altuetan (380 eurotik gorako abantailak bigarren mailako ikasketak dituztenen aldean).

Emantzipazio-motaren arabera, erabat emantzipatutako pertsonak eusten diete diru-sarrera altuenei, eta, ondotik, emantzipatu gabekoek; izan ere, haiek izan dute hazkunderik handiena 2023arekin alderatuta, hilean 200 eurotik gorako igoerarekin. Horrek esan nahi du hobekuntza nabarmena izan dutela posizio ekonomikoan, baina ez nahitaez independizatzeko gaitasun handiagoa izan dutenik. Pixka bat jaitsi egin da emantzipatutako pertsonen batez besteko soldata. **Eranskinen III. taulak** gazte baten batez besteko soldataren bilakaera, kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta Nafarroako etxebizitzaren prezioen indizea jasotzen ditu. Era berean, egiaztatzen du gazteen soldatek bizitzaren kostu orokorraren (KPI) bide beretik jarraitu dutela, baina 2017tik ez direla igo etxebizitzaren prezioa igo den erritmo berean.

23. taula. Aitortutako hileko soldata garbia. 2017-2025

		2017	2019	2021	2023	2025
GUZTIZRA		1.074	1.259	1.377	1.359	1.449
Sexua	Gizonak	1.175	1.361	1.377	1.450	1.525
	Emakumeak	968	1.144	1.378	1.259	1.358
Jaioterria	Nafarroa edo Espainiako gainerakoak	1.132	1.299	1.483	1.400	1.493
	Atzerritarra	884	1.145	1.128	1.244	1.342
Adina (Espainiako Gazteriaren Kontseilua)	16-29 urte	987	1.142	1.275	1.217	1.367
	30-34 urte	1.183	1.425	1.530	1.603	1.586
Emantzipatu gabeko populazioa	Ez	930	1.102	1.210	1.147	1.350
	Bai	1.166	1.372	1.473	1.494	1.514
	Erabat emantzipatua	*	*	*	1.540	1.611
	Bizitegi-emantzipazioa bakarrik	*	*	*	1.378	1.339
Ikasketa-maila**	Goi-mailako ikasketak	1.206	1.340	1.530	1.500	1.586
	DBHren Ondokoa	1.029	1.107	1.147	1.138	1.202
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza****	*	*	*	*	1.350
Bizitegi-eremua**	Iparraldea	*	*	*	1.416	*
	Erdialdea	*	*	*	1.501	*
	Iruñerria	*	1.239	1.377	1.327	1.482
	Hegoaldea/Erribera	*	*	*	1.343	*
	Tutera	*	*	*	*	1.473
Aitaren eta amaren ikasketa-mailarik altuena	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza ****	*	1.257	1.271	1.319	1.402
	DBHren Ondokoa	*	1.231	1.298	1.311	1.370
	Goi-mailako ikasketak	*	1.294	1.560	1.412	1.545

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

** Ikasketa-maila. 2017an, egiten ari diren ikasketei buruz dihardu. Hortik aurrera, lortutako ikasketa-maila altuenean.

*** Eremu geografikoa: 2023ko txostenetik aurrerako zonakatzea ez dator bat aurreko edizioetakoarekin.

**** 2023an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arte sartzen da.

Urteko soldata garbia

Gazteek urtean aitortutako ordainsari guztiak kontuan hartuta (% 45,5 bakarrik, 2023an baino 7,5 puntu gutxiago), ondorioak berdina dira: batez besteko soldatak, oro har, handitu egin dira 2023arekin alderatuta, eta 19.923,80 €-ra iritsi dira batez beste. Alabaina, arrakala estrukturalak ageri dira:

- **Sexuaren arabera**, arrakala urteko 2.500 €-tik gorakoa da gizonen alde.
- **Adinaren arabera**, 30 eta 34 urte bitartekoek urtean 3.500 € baino gehiago irabazten dute 16 eta 29 urte bitartekoek baino.
- **Jaiolekuaren arabera**, Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako pertsonak diru-sarrera handiagoak izaten jarraitzen dute atzerriko biztanleek baino; aldeak txikitzen ari diren arren, oraindik ere 3.000 € ingurukoak dira urtean.
- **Hezkuntza-mailaren arabera**, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonak segitzen dute ordainsari-tarterik altuenak kontzentratzen, eta 5.700 €-ko aldeak ere ageri dira bigarren mailako ikasketak egin dituztenen aldean. Jarraibide hori 2.500 € inguruko aldearekin errepikatzen da, jatorri-familien goi-mailako prestakuntzari erreparatzen zaionean.
- **Emantzipazio-motaren arabera**, erabat emantzipatutako pertsonak jarraitzen dute diru-sarrera handienak izaten. 2023arekin alderatuta, emantzipatu gabekoek soldata-igoera nabarmena izan dute; hala, bigarren postuan paratu dira eta murriztu egin dute erabat emantzipatuekiko arrakala. Bizitegi-emantzipazioa bakarrik dutenek, aldiz, urtean 1.000 € pasatxo egin dute behera diru-sarreretan.

24. taula. Aitortutako urteko soldata garbia. 2017-2025

		2017	2019	2021	2023	2025
GUZTIZRA		14.300	16.885	18.821	18.978	19.924
Sexua	Gizonak	15.633	18.283	18.846	20.114	21.126
	Emakumeak	12.862	15.310	18.793	17.740	18.566
Jaioterria	Nafarroa edo Espainiako gainerakoak	15.189	17.602	20.244	19.726	20.761
	Atzerritarra	11.338	14.823	15.119	16.848	17.777
Adina	16-29 urte	*	15.206	17.537	16.860	18.595
	30-34 urte	*	19.260	20.601	22.575	22.097
Emantzipatu gabeko populazioa	Ez	12.498	14.608	16.970	15.919	18.304
	Bai	15.399	18.528	19.797	20.922	20.915
	Erabat emantzipatua	*	*	*	21.623	22.502
	Bizitegi-emantzipazioa bakarrik	*	*	*	19.141	18.074
Ikasketa-maila**	Goi-mailako ikasketak	16.168	18.158	20.808	21.166	21.972
	DBHren Ondokoa	13.771	14.604	15.680	15.517	16.285
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza ****	*	*	*	*	17.938
Bizitegi-eremua**	Iparraldea	*	*	*	19.688	*
	Erdialdea	*	*	*	20.685	*
	Iruñerria	*	16.660	19.013	18.540	20.182
	Hegoaldea Erribera	*	*	*	18.924	*
	Tutera	*	*	*	*	20.429
Aitaren eta amaren ikasketa-mailarik altuena	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza ****	*	17.102	17.341	18.302	18.965
	DBHren Ondokoa	*	16.355	17.727	18.276	19.004
	Goi-mailako ikasketak	*	17.298	21.257	19.795	21.548

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

** Ikasketa-maila. 2017an, egiten ari diren ikasketei buruz dihardu. Hortik aurrera, lortutako ikasketa-maila altuenean.

*** Eremu geografikoa: 2023ko txosteneko zonakatzea ez dator bat aurreko edizioetakoarekin.

**** 2023tik aurrera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arte sartzen da.

5.4 Diru-sarreraren jatorria

2023tik 2025era hobekuntza txiki bat ikusten da gazteen autonomia ekonomikoan: diru-sarrera propioetatik soilik bizi diren pertsonen ehunekoa % 40,5eraino igotzen da (serie osoko baliorik handiena da). Aldi berean, behera egin du diru-sarrera propioak eta laguntza uztartzen dituen taldeak (% 15,5). Hala, sendotu egin du 2017tik ageri duen beheranzko joera.

Bestalde, beste pertsona batzuekiko mendetasun osoak edo partzialak egonkor jarraitzen du: % 16,3k besteren diru-sarrerak baliatzen ditu nagusiki, eta % 27,7 besteren diru-sarreraren mende dago erabat. Datuek erakusten dutenez, gazteek polarizazio handiagoa ageri dute ekonomikoki: gehiagok lortzen dute erabateko independentzia, baina ez da nabarmen murrizten mendetasun-egoeran jarraitzen dutenen pisua.

25. taula. Diru-sarrerekin lotutako egoera. 2017-2025

	2017	2019	2021	2023	2025
Diru-sarrera propioak soilik	% 29,5	% 39,2	% 35,5	% 38,5	% 40,5
Batez ere diru-sarrera propioak, laguntzarekin	% 27,0	% 19,4	% 24,7	% 18,0	% 15,5
Batez ere besteren diru-sarrerak, eta propio batzuk	% 15,4	% 16,9	% 12,3	% 17	% 16,3
Besteren diru-sarrerak soilik	% 28,2	% 24,4	% 27,4	% 26,4	% 27,7

2025ean autonomia ekonomikoak alde nabarmenak ditu jatorriaren, familiaren hezkuntza-mailaren eta emantzipazio-motaren arabera.

Espainiatik kanpo jaiotako pertsonen autonomia ekonomiko handiagoa dute Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoek baino, nahiz eta mendetasun-maila handiak ageri bi taldeetan: Espainian jaiotakoek % 29,2 eta atzerrian jaiotakoek % 23,8 bizi dira beste pertsona batzuen diru-sarreretatik soilik.

Familiaren hezkuntza-mailari dagokionez, aldaketak txikiak dira 2023arekin alderatuta, baina baieztatzen da independentzia ekonomikoak ohikoagoa jarraitzen duela izaten hezkuntza-maila txikiagoa duten familien artean, ziurrenik lan-merkatuan goizago sartzeari lotuta. Goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben artean, % 21,5ek diru-sarrera propioak eta familia-laguntza konbinatzen ditu, eta % 32,3k beste pertsona batzuen erabateko mendekotasuna du. Oinarrizko hezkuntza-maila duten familia-etxeetan, % 18,9 batez ere beren diru-sarreretatik bizi dira laguntzarekin, eta % 22,9 beste pertsona batzuen diru-sarreretatik soilik.

Emantzipazio-motaren arabera, aldeak bereziki nabarmenak dira: erabat emantzipatutako pertsonen autonomia ekonomiko oso handia dute (% 77,5), eta emantzipatu gabeen artean, berriz, % 15,5ek soilik dituzte diru-sarrera propioak. Datu horrek, minoritarioa izanik ere, agerian uzten du independentzia ekonomikoa ez dela beti bizitegi-independentzia.

26. taula. Beren diru-sarreretatik soilik bizi diren pertsonak, aldagaiaren arabera. 2023-2025

		2023	2025
Jatorria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 37,0	% 36,3
	Atzerrikoa	% 42,8	% 50,7
Gurasoen ikasketa-maila altuena	Goi-mailako ikasketak	% 33,5	% 33,3
	DBHren Ondokoa	% 39,2	% 38,8
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 46,6	% 46,1
Emantzipazio-mota	Erabatekoa	% 71,8	% 77,5
	Bizitegi-emantzipazioa	% 55,5	% 50,9
	Emantzipatu gabe	% 13,8	% 15,5

2025ean, finkatu egin da gazteen egoera ekonomikoaren hobekuntza, eta enpleguaren pisua nabarmen handitu da diru-iturri nagusi gisa: gazteen % 60k ohiko lanetik lortzen dituzte baliabideak; 2023an, aldiz, % 46,9 ziren. Aldi berean, familia-babesak diru-iturri gisa duen pisua ere areagotu egin da: % 38,7tik % 44,4ra, hain justu. Horrek iradokitzen du ezen, gazte gehiagok lortu arren enplegua, diru-sarrera horien egonkortasuna edo nahikotasuna ez dela beti erabatekoa, eta mendekotasun ekonomiko partziala izaten jarraitzen dela familiarekin. Datu horien arabera, sostengu-iturriak dibertsifikatu egin dira, eta enpleguak protagonismoa irabazi du, nahiz eta familiaren babesa erabat ordeztu ez (izan ere, euskarri garrantzitsua izaten jarraitzen du Nafarroako gazte askorentzat).

- **Sexuaren arabera**, gizonek adierazten dutenez, emakumeek baino neurri handiagoan jasotzen dituzte beren laneko diru-sarrerak (% 64,8k eta % 55,2k, hurrenez hurren), eta emakumeek, aldiz, sarriago adierazten dute beren diru-iturri nagusia familia dela (% 46,8k eta % 42,2k, hurrenez hurren).
- **Emantzipazio-motaren arabera**, emantzipatutako pertsonen % 60k eta emantzipatu gabeen % 71,8k adierazi dute familia dela beren diru-iturri nagusia, eta horrek adierazten du mendetasun ekonomikoa nabarmena dela oraindik ere bi kasuetan¹⁷.

¹⁷Familia-mendekotasun hori bat dator Mediterraneoko ongizate-ereduaren edo eredu familistaren ezaugarriekin: familiak jarduten du laguntza-sare nagusi gisa, eremu jakin batzuetako estaldura publiko mugatuaren aurrean (Gøsta Esping-Andersen).

5.5 Ondorio nagusiak

- **Lan-egoera orokorra.** 2023tik 2025era bitartean, bakarrik lan egiten duten gazteen proportzioak egonkor jarraitzen du (% 45,6), baina bizitegi-banaketa aldatu egin da: erabateko emantzipazioak behera egin du, eta, aldiz, areagotu egin da emantzipatu gabe lan egiten duten pertsonen ehunekoa (4,1 puntu) edo bizitegi-emantzipazioa soilik bizi dutenena (3,3 puntu). Oraindik familiaren etxean bizi diren gehienek ikasten jarraitzen dute (% 43,7).
- **Enplegu-mota.** 2025ean, 10 gaztetik ia 6k lan egiten dute, gehienak besteren kontura (% 92,2). Egoerak egonkor jarraitzen du 2023arekin alderatuta, eta igoera txiki bat hautematen da gizonen eta atzerrian jaiotako biztanleen artean. Aldiz, gutxixeago dira emakumeak eta Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak.
- **Kontratuen iraupena.** Soldatapeko gazteen % 75,6k kontratu mugagabea dute (2023an baino % 11,9 gehiagok). Lan-egonkortasuna handitu egin da talde guztietan, baina intentsitate desberdinarekin.
- **Lanaldi-mota.** Lanaldi osoak gehiengo izaten jarraitzen du (% 79,6), eta ehuneko 3,2 puntu igo da 2023arekin alderatuta; partzialtasuna, aldiz, % 20,4ra jaitsi da.
- **Egonkortasun-pertzepzioa.** Nabarmen hobetu da lan-egonkortasunaren inguruko pertzepzioa: gazteen % 62k enpleguari eusteko itxaropena dute (2023an baino ehuneko 26,1 puntu gehiago), eta ia erdiek diote beren lanpostua loturik dagoela ikasitakoarekin.
- **Hileko eta urteko soldata garbiak.** 2025ean, Nafarroako gazteen batez besteko soldata hilean 1.448,91 €-koa da (19.923,80 € urtean), 2023an baino % 6,6 handiagoa. Finkatu egin dira ordainsarien hobekuntza eta soldata-tarte altuen kontzentrazioa, eta diru-sarrera txikiak dituen taldea ehuneko 8 puntu murriztu da 2017tik. Gazteen % 45,5ek bakarrik adierazi dute aparteko ordainsariak jasotzen dituztela (2023an baino ehuneko 7,5 puntu gutxiago).
 - **Sexuaren arabera.** Gizon gazteek posizio laboral eta ekonomiko hobea dute: % 77,4k kontratu mugagabea daukate (emakumeek baino ehuneko 3,8 puntu gehiago), % 85,9k lanaldi osoan dihardute lanean (ehuneko 14 puntu gehiago, eta, 2023arekin alderatuta, ehuneko 5 puntu murrizten da arrakala), eta batez beste 170 € gehiagoko soldata jasotzen dute hilean (2.500 € inguru gehiago urtean).
 - **Adinaren arabera.** 30 eta 34 urte bitartekoek posizio sendoagoa dute: % 81,4k kontratu mugagabearekin dihardute (16 eta 29 urte bitartekoek baino ehuneko 9,4 puntu gehiago), maiztasun handiagoarekin egiten dute lan lanaldi osoz (ehuneko 11,1 puntu gehiago) eta lan-egonkortasunaren pertzepzio handiagoa dute. Gainera, hileko soldata 200 € handiagoa dute, hau da, urtean 3.500 €-tik gorako aldea.

- **Jaiolekuaren arabera.** Espainian jaiotako biztanleek lan-egonkortasun handiagoa dute (% 76,4k kontratu mugagabea dute, eta atzerritarren artean, berriz, % 73,8k dute kontratu-mota hori). Hala, alderantzikatu egin da 2023ko joera. Era berean, egonkortasun-pertzepzio handiagoa ageri dute, eta, soldatei dagokienez, urtean 3.000 € inguruko abantaila dute atzerriko biztanleriarekin alderatuta, nahiz eta aldeak apaltzeko joera izan.
- **Hezkuntza-mailaren arabera.** Goi-mailako ikasketak dituztenek egonkortasun handiagoa daukate (% 81,2k kontratu mugagabea dute), bai eta soldata handiagoak ere, hilean 380 €-ko aldearekin (urtean 5.700 € inguru). Erdi-mailako ikasketak dauzkatenak daude egoera okerreanean, haiek baitute kontratu mugagabeen proportzio txikiena (% 67,2, behe-mailakoek baino 3 puntu gutxiago), bai eta lanaldi osoko kontratuena ere (% 71,3, goi- eta behe-mailakoek baino ehuneko 11 puntu gutxiago).
- **Familiaren hezkuntza-mailaren arabera.** Goi-mailako ikasketak eginiko familietatik datozen pertsonen lan-egonkortasun handiagoa dute (altuagoak dira kontratazio mugagabearen tasak) eta enplegu-jarraitutasunaren pertzepzio handiagoa dute. Gainera, urteko diru-sarrerak 2.500 € inguru handiagoak dira hezkuntza-maila txikiagoa duten familietatik datozenen artean baino.
- **Emantzipazio-motaren arabera.** Erabat emantzipatutako pertsonen dituzte egonkortasun- eta dedikazio-tasa altuenak, baita diru-sarrera handienak ere. Ondotik, emantzipatu gabeak ageri dira, zeinek nabarmen hobetzen baitute egoera 2023arekin alderatuta: ehuneko 21,5 puntu igo dira kontratazio mugagabeen, 12,7 lanaldi osoan eta 200 € baino gehiagoko aldea dute hilean batez besteko soldatan (2.400 € inguru urtean). Era berean, nabarmen murriztu da erabat emantzipatuta daudenekiko arrakala. Hala ere, haien soldata 3.400 € inguru txikiagoa da oraindik urtean. Beste muturrean, bizitegi-emantzipazioa bakarrik duten emakumeek ageri dituzte baldintzarik txarrenak: txikiagoa da kontratu mugagabeen eta lanaldi osoko kontratuen proportzioa, ehuneko 8 puntu jaitsi da lan-dedikazioa eta urtean 1.000 € inguru gutxiago soldatan (are emantzipatu gabekoen azpitik gelditzen dira).
- **Egoera ekonomikoa – diru-sarrerak.** Gazteen autonomia ekonomikoak serieko mailarik altuena lortu du 2025ean (% 40,5 bere diru sarreretatik bakarrik bizi da), nahiz eta polarizazio handia ageri den oraindik erabateko independentzia lortzen dutenen eta erabat edo partzialki beste pertsona batzuen mende jarraitzen dutenen artean.
 - **Aldagaien arabera.** Handiagoa da Espainiatik kanpo jaiotako biztanleen artean eta hezkuntza-maila txikiagoa duten etxekoen unitateetan, lanean goizago hasteari lotuta. Genero-arrakalak ageri dira oraindik: gizonak independenteagoak dira ekonomikoki (% 64,8k lortzen ditu laneko diru-sarrerak) eta emakumeek, aldiz, familiaren babes handiagoa dute (% 46,8).

- **Emantzipazio-motaren arabera.** Erabat emantzipatutako pertsonen % 77,5ek diru-sarrera propioak ditu, eta emantzipatu gabeen % 15,5ek, berriz, autonomia-eredu oraindik partziala ageri du.

- Enplegua da diru-sarreren iturri nagusia (% 60), baina familiaren laguntzak funtsezko zutabe izaten jarraitzen du (% 44,4). Horrek islatzen du enpleguaren hobekuntzak oraindik ez duela bermatzen erabateko egonkortasun ekonomikorik.

Nahiz eta Nafarroako gazteen lan-baldintzek eta autonomia ekonomikoak hobera egin duten 2023tik 2025era bitartean (kontratu mugagabe gehiago, lanaldi osoko dedikazio handiagoa eta soldata handiagoak), aurrerapen horrek ez du esan nahi erabateko emantzipazioa gertatzen denik. Emantzipatu gabe lan egiten duten edo bizitegi-emantzipazioa bakarrik duten pertsonen kopuruak gora egin du. Horrek erakusten du lan-egonkortasunak ez duela bermatzen independentzia ekonomikoa, eta familia-mendekotasunak eta etxebizitza lortzeko zailtasunek markatutako ibilbideekin bizi direla. Oraindik ere ageri dira sexuaren, adinaren, hezkuntza-mailaren eta jatorriaren arabera arakalak, baina txikiagoak izateko joera dute.

Erabat emantzipatutako pertsonak eusten diote posizio positiboari, eta emantzipatu gabeek, berriz, hobera egiten dute egonkortasunean eta soldatan, oraindik benetako independentziarik lortu gabe ere. Aldeak ekonomikoa izaten jarraitzen du: haien diru-sarrerak txikiagoak dira erabat emantzipatuenak baino. Horrek berresten du faktore ekonomikoa dela autonomiaren baldintzatzaile nagusia. Aldiz, erdi-mailako ikasketak dituztenek eta emantzipatutako emakumeek murriztu egiten dituzte beren egonkortasuna eta diru-sarrerak, eta haiek ageri dituzte gazteen baldintzarik ahulenak.

Nafarroan, gazteen enplegua egonkortasun formal handiagorantz ari da egiten, baina ez independentzia eraginkorrerantz. Lan-ibilbideak indartzen ari dira, baina bizi-ibilbideak faktore estrukturalak mugatzen dituzte oraindik (hala nola etxebizitzaren kostuak, soldata-prekaritateak edo genero-desberdintasunak). Diru-sarrerek hobera egin arren, oraindik ere ez dira nahikoa emantzipazio ekonomiko egonkorrari eusteko, eta gazte askok mendeko autonomian jarraitzen dute.

6. IKASKETAK ETA PRESTAKUNTZA

Txosten honetan ikusi den bezala —eta aurreko edizioetan ere adierazi zen—, ikasketak burutzea funtsezko mugarrria da gazteak emantzipatzeko; izan ere, loturik dago lan-merkatuan sartzearekin eta familia-etxetik ateratzea ahalbidetuko duen independentzia ekonomikoa lortzeko aukerarekin.

Ildo horretan, 2025ean eutsi egin zaio Nafarroako gazteen egoera akademikoaren egonkortasunari: % 57,1ek jada ez dute ikasten, eta % 42,9k trebatzen jarraitzen dute. Zifra horiek aurreko aldikoen oso antzekoak dira, eta ikasten jarraitzen duen biztanleriaren beherakada txiki bateranzko joera berresten dute.

27. taula. Gazteak egoera akademikoaren arabera, 2017-2025

	2017	2019	2021	2023	2025
Ikasten jarraitzen du	% 43,6	% 41,4	% 40,2	% 44,7	% 42,9
Burutu zituen/utzi egin zituen	% 56,4	% 58,6	% 59,8	% 55,3	% 57,1

Aldagaien araberako analisiak alde nabarmenak erakusten ditu Nafarroako gazteen egoera akademikoan, eta joera egonkorra ikusten da 2023arekin alderatuta:

- **Emakumeek** gehiago jarraitzen dute ikasten gizonak baino, ehuneko 10 puntutik gorako arrakalarekin.
- **30 eta 34 urte** bitarteko ia pertsona guztiek burutu dute prestakuntza, eta gazteenen artean, berriz, hezkuntza-sisteman irauteak joera nabarmena jarraitzen du izaten.
- Atzerriko biztanleriak jarraitutasun txikiagoa du ikasketetan: ehuneko 16 puntutik gorako aldea **Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoekin alderatuta**. Eredu hori migrazio-ibilbideekin eta lanean goiz hastearekin lotzen ahal da.
- **Familiaren hezkuntza-mailak** faktore erabakigarria jarraitzen du izaten: ikasten segitzeko probabilitateak gora egiten du gurasoen prestakuntzak aurrera egin ahala, eta 20 puntutik gorako aldea dago goi-mailako ikasketak dituzten familia-unitateen eta oinarrizko ikasketa-maila dutenen artean. Horrek agerian uzten du hezkuntza-kapitala belaunaldien artean transmititzen dela oraindik ere.

6.1 Hezkuntza-egoera eta emantzipazioa

Datuek erakusten dutenez, lotura argia dago egoera akademikoaren eta emantzipazio-motaren artean. Erabat emantzipatuta dauden pertsona gehienek jada ez dute ikasten. Bizitegi-emantzipazioa bakarrik lortu duten pertsonen artean, banaketa nahiko orekatua hautematen da ikasten ari direnen eta ikasketak burutu edo utzi zituztenen artean. 2023arekin alderatuta, ordea, ehuneko 3,1 puntu igo da azken talde horrekin alderatuta. Emantzipatu gabeko hamar pertsonatik lauk ikasketak burutu edo utzi egin dituzte, eta proportzio hori handitu egin da 2023ko datuekin alderatuta (% 34,7). Igoera horrek adierazten du ikasketak burutzeak jada ez duela bermatzen emantzipazioa, nahiz eta

baden korrelaziorik erabat independentea izatearen eta ikasketak burutu edo utzi izanaren artean.

28. taula. Gazteak, egoera akademikoaren, adinaren, sexuaren, jaiolekuaren eta emantzipazio-motaren arabera. 2025

		Ikasten jarraitzen du	Burutu zituen/utzi egin zituen
Sexua	Emakumezkoa	% 48,2	% 51,8
	Gizonezkoa	% 37,8	% 62,2
Adina (Espainiako Gazteriaren Kontseilua)	16-29 urte	% 54,5	% 44,1
	30-34 urte	*	% 87,4
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 47,7	% 52,3
	Espainiatik kanpokoak	% 31,5	% 68,5
Gurasoen ikasketa-maila altuena	Goi-mailako ikasketak	% 54,9	% 45,1
	DBHren Ondokoa	% 43,5	% 56,5
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 32,7	% 67,3
Emantzipazio-tipologia	Erabatekoa	*	% 88,2
	Bizitegi-emantzipazioa	% 44,0	% 56,0
	Emantzipatu gabe	% 59,8	% 40,2



*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

Nafarroako gazteen hezkuntza-mailak altua izaten jarraitzen du: 2025ean, % 76,9k gutxienez eginak dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak, eta, talde horren barruan, % 43,4k dauzkate eginda goi-mailako ikasketak. 2023arekin alderatuta, halere, beherakada txiki bat ikusten da lortutako hezkuntza-mailan. Goi-mailako ikasketak dituztenen proportzioa ia egonkor mantentzen da (% 45,5 orduan eta % 43,4 gaur egun), baina nabarmen jaisten da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituztenen pisua. Jaitsiera horren ondorioz, gora egin du oinarrizko prestakuntza duen taldeak: % 11,3tik % 23,0ra, alegia.

6.2 Egindako ikasketa formalei buruzko gogobetetze-maila

Gehienek adierazi dute gogobetetze-maila «altua edo nahiko altua» dutela egindako ikasketa formalekin (% 71,2). Gogobetetzea handiagoa da ikasten jarraitzen dutenen eta emakumeen artean (**29. taula**). «Txikia edo nahiko txikia» dela irizten diotenen datua ez da adierazgarria estatistikoki.

19a eta 19b grafikoak. Buruturiko ikasketa-maila eta eginiko ikasketa formalekiko gogobetetze-maila. 2025



29. taula. Egindako ikasketa formalekiko gogobetetze-maila, aldagai nabarmenen arabera. 2025

Sexua		Ez txikia, ez handia	Nahiko handia	Handia
		Emakumezkoa	% 18,4	% 30,9
Gizonezkoa		% 27,3	% 27,5	% 37,7

Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 21,6	% 30,5	% 43,2
	Atzerrikoa	% 25,8	% 25,8	% 39,4
Egungo egoera ikasketei dagokienez	Ikasten jarraitzen du	% 16,4	% 35,9	% 44,9
	Burutu zituen/utzi egin zituen	% 27,7	% 24	% 39,9
Emantzipazio-mota	Erabatekoa	% 27,2	% 25,8	% 38,5
	Bizitegi-emantzipazioa	*	% 31,3	% 42,5
	Emantzipatu gabe	% 21,6	% 30,3	% 43,8

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

Ikasketak burutu zirenetik igarotako batez besteko urte-kopuruak (sei eta zazpi urte artean) erakusten du aldeak ageri direla hezkuntza uzteko adinean. Beste adierazle batzuetan ikusitako ereduekin bat etorriz, Espainiatik kanpo jaiotako pertsonak eta oinarrizko hezkuntza-maila (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza) eginiko familietatik etorritakoek lehenago uzten dituzte. Dena den, azken talde horretan gazte guztiekiko aldea 3,4 urte murriztu da 2023arekin alderatuta, eta horrek adierazten du konbergentzia txiki bat ageri dela familia-jatorri desberdineko gazteen hezkuntza-ibilbideetan.

30. taula. Ikasketak burutu zituztenetik igarotako urteak. 2025

		2023	2025
Sexua	Emakumezkoa	7,1	6,8
	Gizonezkoa	7,2	7,4
Jatorria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	6,4	6,3
	Beste herrialde bat	8,6	8,7
Gurasoen ikasket-maila altuena	Goi-mailako ikasketak	6,1	5,2
	DBHren Ondokoa	6,9	6,9
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	8,4	5,0


6.3 Emantzipatzeko adinaren eta ikasketak burutu diren adinaren arteko erlazioa

Emantzipatzeko adinaren eta ikasketak burutu diren adinaren arteko erlazioak aurreko urteetako joerari eusten dio: gazte gehienak prestakuntza-etapa burutu ondotik emantzipatzen dira, eskuarki enplegu egonkorra lortzen dutenean edo etxebizitza-gastuei aurre egiteko adinbat baliabide dituztenean.

Hala ere, aukera horrek pisua galtzen jarraitzen du 2021etik, eta ikasketak burutzetik gertuago dauden emantzipazioetarako joera progresiboa berresten da. 2025ean gora egin du ikasketak burutzen dituzten adin berean emantzipatzen diren gazteen proportzioak, baita inkestaren unean ikasten jarraitzen dutenenak ere. Aldiz, egonkor mantendu da oraindik ikasten ari direnean emantzipatzen direnena.

Aldaketa horiek erakusten dute dibertsifikatu egin direla emantzipazio-ibilbideak: batera ageri dira ibilbide goiztiarragoak, ikasketekin jarraitzeari lotuak, eta sendotu ahal izateko lan-egonkortasunaren mende jarraitzen dutenak.

20. grafikoa. Emantzipatzeko adinaren eta ikasketak burutu diren adinaren arteko erlazioa. 2021-2025



- **Sexuaren arabera**, gizon gazteen ia erdiak (% 44,8) ikasketak burutu ondotik emantzipatzen dira; emakumeak, berriz, % 32,1 dira.
- **Jatorriaren arabera**, Espainiatik kanpo jaiotako hamar gaztetatik lau (% 40) ikasketak burutu ondotik emantzipatzen dira, eta Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoen kasuan, aldiz, % 36,9.

6.4 Ikasketak areagotzea eta prestatzen jarraitzeko motibazioa

2025ean, gazteen % 59,7k aurreikusten du trebatzen jarraitzea etorkizun hurbilean. Galderaren formulazioa aurreko urteetatik desberdina bada ere¹⁸, datuek adierazten dute prestakuntzak pizten duen interesa suspertu egin dela 2021ean ikusitako jaitzieraren ondotik (% 54). Hala, 2019ko mailetara hurbildu da (% 61). Ikasten dutenek baloratzen dute gehien aukera hori: lautik hiruk prestakuntzarekin jarraitzea aurreikusten du. Ikasketak burutu dituztenen edo utzi dituztenen artean, ia erdiek uste dute berriro ekin behar zaiela, eta eutsi egin zaio 2023an ikusitako joerari.

Emakumeek gizonen baino asmo handiagoa dute ikasten jarraitzeko, baita 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen eta goi-mailako ikasketak eginiko familia-etxeetako kideek ere. Jatorriaren arabera, atzerritarrek Espainian jaiotakoek baino interes handiagoa dute prestakuntzarekin, eta hori enplegarritasuna hobetzeko estrategiekin lotzen ahal da.

Emantzipazio-motaren arabera, erabat emantzipatuta dauden pertsonen ikasten jarraitzeko asmo txikiagoa dute gainerakoek baino. Alabaina, erdiek inguruk dute

¹⁸ Aurreko urteetan, «datorren urtean» ikasketak jarraitzeari buruz galdetzen zen, eta 2025ean, aldiz, «etorkizun hurbileran» zabaldu zen galdera.

oraindik ere ikasten jarraitzeko interesa. Aldiz, bizitegi-emantzipazioa bakarrik dutenek eta emantzipatu gabeek ikasten jarraitzeko joera handiagoa dute.

31. taula. Hurrengo urtean ikasketa-maila handitzeko asmoa, aldagai nabarmenen arabera. 2025

		Bai	Ez
Sexua	Emakumezkoa	% 65,9	% 34,1
	Gizonezkoa	% 53,9	% 46,1
Adina (Espainiako Gazteriaren Kontseilua)	16-29 urte	% 63,5	% 36,5
	30-34 urte	% 49,8	% 50,2
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 55,9	% 44,1
	Espainiatik kanpokoak	% 68,8	% 31,2
Gurasoen ikasketa-maila	Goi-mailako ikasketak	% 60,9	% 39,1
	DBHren Ondokoa	% 60,1	% 39,9
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 57,9	% 42,1
Emantzipazio-mota	Erabatekoa	% 49,1	% 50,9
	Soilik bizitegi-emantzipazioa	% 62,9	% 37,1
	Emantzipatu gabe	% 64,3	% 35,7
Gaur egun ikasten	Bai	% 75,9	% 24,1
	Ez	% 47,6	% 52,4

2025ean, ikasten jarraitzeko motibazio nagusia etengabeko prestakuntzan segitzeko beharra da (% 40), eta, ondotik, lan-aukera hobekak bilatzea (% 27) eta garapen pertsonala (% 21). Motibazioei dagokienez, aldaketa nabari da 2023arekin alderatuta: hazkunde pertsonalarekiko interesak pisua hartu du, eta prestakuntzaren eta emantzipazioaren arteko loturak, berriz, garrantzia galdu eta utzi egin dio garrantzi estatistikoa izateari («beharrezkoa ikusten dudalako independentzia lortzeko»). Hezkuntzaren ikuspegi instrumentalagoa ikusten da atzerritar jatorriko pertsonen eta ikasketa baxuagoak dituztenen artean, hau da, enplegarritasuna hobetzera edo lanez aldatzera bideratua.

32. taula. Ikasten jarraitzeko arrazoi nagusiak, aldagai soziodemografikoen arabera. 2025

		Merkatuaren eskakizunak/ Lana aurkitzea edo aldatzea	Etengabeko prestakuntzaren beharra	Garapen pertsonala
Sexua	Emakumezkoa	% 43,5	% 62	% 33,3
	Gizonezkoa	% 38,6	% 60,1	% 31,1
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 40,8	% 64,2	% 33,7
	Espainiatik kanpokoak	% 42,1	% 55,2	*
Bukatutako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	% 34,8	% 66,5	% 34,4
	DBHren Ondokoa	% 42,9	% 61,5	% 34,4
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	% 48,9	% 52,2	%25,9

*Laginketa-erroreak izan ditzaketan datuak. Ez esanguratsuak.

6.5. Ondorio nagusiak

- Inkestatutako gazteen % 57,1ek jada ez du ikasten, eta % 42,9k, berriz, trebatzen jarraitzen du.
- % 76,9k gutxienez eginak ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak, eta % 43,4k goi-mailakoak. Halere, beherakada txiki bat ikusten da erdi-mailako ikasketak dituen taldean 2023arekin alderatuta, eta oinarrizko prestakuntza dutenak ugaritu egin dira (% 11,3tik % 23,0ra).
- Emakumeek gizonek baino proportzio handiagoan jarraitzen dute ikasten (ehuneko 10 puntu gehiago), eta 30 eta 34 urte bitarteko ia pertsona guztiek osatu dute prestakuntza.
- Hezkuntzaren jarraitutasuna txikiagoa da atzerriko biztanleen artean (ehuneko 16 puntuko aldea) eta prestakuntza-maila txikia duten familia-etxeen artean (ehuneko 20 puntuko aldea), nahiz eta azken horietan arrakala 3,4 urte murriztu den 2023arekin alderatuta.
- Emantzipatu gabekoen artean, hamarretik lauk jada ez dute ikasten (2023an % 34,7 ziren), eta emantzipatu direnen artean, berriz, ehuneko 3,1 puntu igo da ikasketak burutu dituztenen taldea.
- Ikasketak burutuz geroztik sei eta zazpi urte bitarteko denbora igaro da batez beste.

- Gehienak ikasketak burutu ondotik emantzipatzen dira, baina ikasten ari den taldeak gora egin du. Oraindik ere aldeak ageri dira sexuaren arabera (gizonen % 44,8 eta emakumeen % 32,1), bai eta jatorriaren arabera ere (atzerrian jaioetakoen % 40 eta Espainian jaioetakoen % 36,9).
- Prestatzen jarraitzeko interesa % 59,7ra igotzen da, eta berreskuratu egin dira 2021. urtea baino lehen ageri ziren mailak. Interes hori handiagoa da emakumeen, 16-29 urteko pertsonen, atzerritarren eta goi-mailako ikasketak eginiko familia-etxeetatik datozenen artean. Erabat emantzipatuta daudenek daukate ikasten jarraitzeko prestasun txikiena.
- Ikasten jarraitzeko motibazio nagusia etengabeko prestakuntzan jarraitzeko beharra da (% 40), eta, ondotik, lan-hobekuntza (% 27) eta garapen pertsonala (% 21). Hazkunde pertsonalagatik motibaturik daudenak, bestalde, gero eta gehiago dira. Prestakuntzaren eta emantzipazioaren arteko harremanak indarra galtzen du, eta ez du garrantzi estatistikorik. Atzerritar jatorriko pertsonen eta hezkuntza-maila txikiagoa dutenen motibazioak bi oinarri ditu nagusiki: enplegarritasuna hobetzea edo lanez aldatzea.
- % 71,2k dio «handia edo nahiko handia» dela egindako ikasketa formalekin duen gogobetetasuna, batez ere ikasten jarraitzen dutenen eta emakumeen artean.

Kapitulu honen azterketan ikusten ahal denez, Nafarroako gazteen hezkuntza-maila altua da eta egoera akademikoa, berriz, egonkorra; hala eta guztiz ere, desberdintasun-seinaleak eta nolabaiteko prestakuntza-hauskortasuna ageri dira. Oinarrizko prestakuntza duen taldeak gora egin du, eta jatorriaren eta familiaren hezkuntza-mailaren arabera arrakalak ikusten dira oraindik, belaunaldien arteko konbergentzia txikia izan arren.

Gehienak ikasketak burutu ondotik emantzipatzen dira, baina ikasten ari den taldeak gora egin du, eta horrek ibilbide askotarikoagoak islatzen ditu. Hala ere, prestakuntza osatzeak jada ez du bermatzen independentzia ekonomikoa, ezta bizitegi-emantzipazioa ere.

Prestakuntza jasotzen jarraitzeko interesa suspertu egiten da eta motibazio pertsonalak indarra hartzen du, nahiz eta sexuaren, jatorriaren eta hezkuntza-mailaren arabera desberdintasunek autonomia-aukerak baldintzatzen jarraitzen duten.

7. ETXEBIZITZA

7.1 Etxebizitza Eskatzaileen Errolda

Nafarroako Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Errolda da Foru Komunitatean etxebizitza babestu bat eskuratu nahi duten pertsona guztiak jasotzeko erregistro ofiziala (ez ditu biltzen gazteak bakarrik). Etxebizitza-mota horren bila dabilzanak identifikatzeko aukera ematen du, dela ez dutelako eskuratzen ahal etxebizitza bat merkatu librean, dela ezaugarri zehatzak behar dituztelako, dela finantzaketa-baldintzak interesgarriak zaizkielako.

Komenigarria da «eskaria» eta «beharra» bereiztea, ez baitira sinonimoak; «beharra» kontzeptuak forma bat baino gehiago hartzen ahal ditu (Bradshaw, 1972). Erroldan izena emateak etxebizitza babestuaren premia adierazten du, baina ez ditu islatzen irizpide objektiboetatik abiatuak definitzen ahal diren behar guztiak.

Eskatzaileen erroldan izena emandako gazteen zenbatespena egiteko, zuzenean jotzen ahal da erregistroa ustiatzera. 2014an martxan jarri zenetik, Erroldako izen-emateak etengabe ugartu dira. 2024an 27.691 pertsonak eman zuten izena, eta 16 eta 34 urte artekoak izan ziren horietatik % 47,9. Gazteen ia erdiak alokairuko etxebizitza babestuen bila ari ziren (% 49,6), nahiz eta urteak igaro ahala handitu egin diren jabetzako etxebizitza-eskaerak eta, bereziki, edukitzagatik diskriminatzen ez dutenak.

7.2 Etxebizitza edukitzea

Gazte emantzipatuen artean (% 49,5), % 62,3 etxebizitza libreko alokairuan bizi dira. Formula hori zabaldu egin da 2017tik. 2025ean mantendu egin da 2023ko ehuneko bera; orduan iritsi zen, hain justu, maximo historikora (**33. taula**). Aldi berean, etxebizitza jabetzan edukitzeak jaitsiera jarraitua izan du aldi osoan, eta 2025ean lortu du gutxieneko historikoa: ehuneko 5,2 puntuko alde 2023arekin alderatuta, eta 2017arekin alderatuta, berriz, ehuneko 18,2 puntukoa.

Lagatako etxebizitzaren edo bestelako formulen bidez emantzipatzeak beste behin ere galdu egiten du garrantzi estatistikoa. Ez dute halakorik, era berean, etxebizitza babestuetan, erositako etxebizitzetan (babes ofizialekoak/tasatuak) eta alokairu-etxebizitzetan (NASUVINSA Alokairuen Poltsa) bizi direnek ere.

33. taula. Bizitegi-emantzipazioa lortu duten gazteen etxebizitzaren edukitza-erregimena. 2017-2025

	2017	2019	2021	2023	2025
Jabetza	% 39,7	% 38,5	% 29,3	% 26,7	% 21,5
Alokairua	% 55,3	% 53,6	% 58,1	% 62,3	% 62,3
Etxebizitza-lagapena eta beste batzuk	*	*	% 12,6%	% 11	*

*Laginketa-erroreak izan ditzaketan datuak. Ez esanguratsuak.

Aldagai soziodemografikoen arabera bereizita, etxebizitza erostea ohikoagoa da 30-34 urteko pertsonen artean, nahiz eta erdiak baino gehiago oraindik alokairuan bizi diren. 2023an ere adin-tarte horretan aukeratzen zen erostea (% 39,2). Era berean, Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batean jaiotako pertsonak neurri handiagoan dute etxebizitza jabetzan izateko joera beste herrialde batean jaiotakoek baino; hain zuzen, atzerrian jaiotakoek ez dute zifra nabarmenik etxebizitza-jabetzari dagokionez. Alokairua da nagusi 16-29 urteko biztanleen eta bizitegi-emantzipazioa bakarrik lortzen dutenen artean; bi talde horiek bat etorri ohi dira maiz, txostenean zehar adierazi den bezala.

34. taula. Edukitze-erregimena, aldagaien arabera. 2025

		Jabetza	Alokairua
GUZTIZRA		% 21,5	% 62,3
Sexua	Gizonezkoa	*	% 63,1
	Emakumezkoa	*	% 67,4
Adin-tarteak	16-29 urte	*	% 77,5
	30-34 urte	% 41,2	% 51,8
Jatorria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	% 33,5	% 55,2
	Atzerrikoa	*	% 81,9
Emantzipazio-mota	Erabatekoa	% 35,8	% 54,2
	Bizitegi-emantzipazioa	*	% 81,6
Bukatutako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	% 34,1	% 56,4
	DBHren Ondokoa	*	% 72,4
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	*	% 75,6

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

Edizio honetan sartu zen lehenbizikoz etxebizitza edukitzeko idealari buruzko galdera bat. Emaitzek argi eta garbi erakusten dute nahiago dutela jabetza: gazteen % 80,7k jabetzako etxebizitza batean bizitzea aukeratuko lukete, eta % 18,2k, berriz, alokairukoan. Orientazio horrek baieztatzen du ezen, gehienak gaur egun alokairu-erregimenean bizi diren arren, jabetzak jarraitzen duela izaten erreferentziazko bizitegi-eredua. Horrek iradokitzen du alokairua aukeratzeak gehiago erantzuten diola higiezinaren merkatuan sartzeko zailtasunei, lehentasun pertsonal bati baino.

7.2.1 Jabetzako etxebizitza ordaintzea

Hipoteka duten gazteen % 86,2k adierazi du hipoteka-maileguarekin lotutako ordainketak bukatu gabe dauzkala oraindik, eta % 90,5ek adierazi du baliabide propioekin baino ez diola aurre egiten ordainketari, dela bakarrik, dela bikotekidearekin edo elkarrekin. Datu horren arabera, % 9,5ek hirugarren pertsonen laguntza behar du hipotekari aurre egin ahal izateko. Hipotekaren hileko kuotari dagokionez, pertsona bakoitzak batez beste 554,68 € ordaintzen ditu.

Adin-taldean arabera, 30 eta 34 urte bitarteko 10 pertsonatik 4k dute etxebizitza bat jabetzan, ikusi den bezala; 29 urtetik beherakoan artean, berriz, kopurua oso txikia da,

eta joera horri eutsi egin zaio aurreko txostenarekin alderatuta. Erosteko arrazoi nagusia da aurrezteko eta etorkizuneko segurtasuna bermatzeko modutzat hartzen dela (% 54,8). 2023an aukera hori zen nagusi, nahiz eta ehuneko nabarmen txikiagoa izan (% 36,1). Horrek erakusten du handitu egin dela etxebizitza babes-balio gisa hautemateko pertzepzioa, merkatuan nabari den garestitze orokorra ikusirik.

7.2.2 Alokairuko etxebizitza ordaintzea

Alokairu-erregimenean bizi diren pertsonen erdiak baino gehiagok adierazi du alokairuaren zenbatekoa 500 €-koa edo handiagoa dela. % 37,7k, bestalde, 251 eta 500 € artean ordaintzen du hilean, eta % 34,4k, azkenik, 500 eta 750 € bitarte. Oro har, inkestan parte hartu eta alokairu-erregimenean bizi direnek batez beste 547,15 € ordaintzen dituzte hilean.

% 75ek baliabide propioekin ordaintzen du, dela bere diru-sarrerekin, dela bikotekidearen diru-sarrerekin, dela elkarrekin. Horrek esan nahi du lau pertsonatik batek hirugarrenen laguntza behar duela alokairua ordaindu ahal izateko. Erabat emantzipatutako biztanleen artean, ehuneko hori % 87ra igotzen da, eta bizitegi-emantzipazioan bakarrik dauden pertsonen artean, berriz, % 64,2ra jaisten da.

Alokairu garestienak ordaintzen dituztenen profilarri dagokionez, 30-34 urte bitarteko gazteak dira, gizonak, atzeritar jatorrikoak, erabat emantzipatuak eta lanean okupatuak, eta batez beste 560 eta 580 € inguru edo gehiago ordaintzen dituzte hilean. Aldiz, bizitegi-emantzipazioa bakarrik dutenen edo hezkuntza-maila txikiagoko familia-etxeetatik datozenen artean kontzentratzen dira zenbateko txikiak, 500 eta 535 € inguruko batezbestekoarekin.

Aldagai soziodemografikoen arabera, multzo osoaren arrakala handiena emantzipazio-motaren arabera ikusten da, eta 80,80 €-ko aldea ageri da erabat emantzipatu direnen eta bizitegi-emantzipazioa soilik dutenen artean. Aldaketa horrek adierazten du erabat emantzipatutako pertsonak, batez beste, gastu individual handiagoa hartzen dutela beren gain alokairua ordaintzeko, bizitegi-emantzipazioa bakarrik dutenen aldean. Etxebizitza prezioaren guztizkoa ez badugu ere, arrakala horrek iradokitzen du independentzia ekonomiko erabatekoak karga zuzen handiagoa duela alokairua ordaintzeko, eta emantzipazio partziala, berriz, bizikidetzaren formula edo gastu-banaketa doiagoekin lotzen da.

Adinaren edo sexuaren araberako arrakalak dira txikiak. Adin-taldearen arteko alde txikiak (8,42 €) erakusten du alokairuaren prezioa ez datorrela bat adinarekin, ezta bizi-ibilbidearekin ere; aitzitik, merkatuaren baldintzak homogeneoki tenkatuta daude gazte guztientzat.

35. taula. Banaka ordaindutako alokairuaren batez besteko zenbatekoa, aldagaien arabera. 2025

		€/hil
GUZTIZRA		547,15
Adin-tarteak	16-29 urte	543,87
	30-34 urte	552,29
Sexua	Emakumezkoa	537,41
	Gizonezkoa	557,23
Jatorria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego bat	539,59
	Atzerritarra	555,31
Emantzipazio-mota	Erabatekoa	586,27
	Bizitegi-emantzipazioa	505,47
Lan-egoera	Ikasi besterik ez	*
	Lana eta ikasketak	*
	Soilik lanean	564,47
	Langabezian	*
Gurasoen edo guraso-lanak egin dituztenen ikasketamaila	Goi-mailako ikasketak	549,69
	DBHren Ondokoa	556,07
	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	535,05
	Hezkuntza	

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

Etxebizitza bat alokatzeko motibazio nabarmenenak erosteko zailtasunak dira: 2023an % 46,1 izatetik 2025ean % 49 izatera igaro da, eta alokairua hipoteka bat baino ekonomikoagoa dela uste izatea, berriz, % 45,2tik % 21,5era jaitsi da epe berean. Bilakaera horrek erakusten du jabetza eskuratzeko oztopo estrukturalak pisu handiagoa dutela, eta arrazoi ekonomiko hutsek, berriz, garrantzia galtzen dutela higiezin-merkatuaren garestitzeak eta hipoteka-baldintzak gogortu izanak markatutako testuinguru batean.

7.3 Emantzipatzeko laguntzen berri izatea

Aurreko urteetan bezala, inkestan gazte guztiei galdetu zitzairen ea ezagutzen zituzten emantzipaziorako laguntza publikoak, hala nola Nafarroako Gobernuaren Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Errolda, Nafarroako Gobernuaren Alokairuen Poltsa Programa, Emantzipaziorako Laguntzen Programa (EMANZIPA) edo Etxebizitza eskuratzeko alokairurako kenkarien Programa (DAVID).

Oro har, gora egin du emantzipatzeko laguntza publikoei buruzko ezagutzak. Nafarroako gazteek EMANZIPA ezagutzen dute oraindik ere gehien: inkestatutako pertsonen % 48,7k adierazi du baduela haren berri (2023an % 42,9 ziren). Ondotik, nolabaiteko tartearekin, Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Errolda (% 34,4k ezagutzen zuen, eta 2023an, berriz, % 25,6k) eta Nafarroako Gobernuaren Alokairuen Poltsa ageri dira (% 31), zeinak igoera bereziki nabarmena izan baitu 2023arekin alderatuta (orduan ozta-ozta iristen zen % 11ra).

Bestalde, DAVID programa ezagutzen dute oraindik gutxien (% 17,8k baino ez, 2023an % 16,1ek eta 2021ean % 11,4k). Hori koherentea da inkestari erantzuten dioten pertsonen profilarekin, laguntza hori EMANZIPA programa eskuratu ezin dutenentzat baita (eta programa hori gehiago dago lotuta parte hartzen duten gazteei).

2023ko ildoari jarraituz, emantzipatzeko laguntzak gehien ezagutzen dituzten taldeak 30-34 urteko pertsonak eta erabat emantzipatuta daudenak dira, eta profil horiek, txostenean zehar adierazi den bezala, bat etorri ohi dira neurri handi batean. Aurreikusten ahal denez, haiek ezagutzen dute gehien, berebat, DAVID laguntza. 16 eta 29 urte bitartekoen eta emantzipatu gabekoen artean, programen gaineko ezagutza-mailak gora egin du 2023arekin alderatuta, batez ere Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erroldaren (ehuneko 10 puntu inguru) eta Alokairuen Poltsaren (ehuneko 10 puntu baino gehiago) gainekoak. Sexuaren eta jatorriaren arabera, oraindik ere emakumeek eta Espainian jaiotako pertsonak ezagutzen dituzte gehien.

36. taula. Gazteek ezagutzen dituzten emantzipatzeko laguntza publikoak. 2025

		Etxebizitza babeatuaren eskatzaileen zentsua	Nafarroako Gobernuaren Alokairuen Poltsa	EMANZIPA ¹⁹	DAVID ²⁰
GUZTIZRA		% 34,4	% 31	% 48,7	% 17,8
Sexua	Emakumezkoa	% 40,2	% 34,9	% 50,0	% 20,8
	Gizonezkoa	% 28,8	% 27,3	% 47,4	% 14,9
Adina (Espainiako Gazteriaren Kontseilua)	16-29 urte	% 30,8	% 26,4	% 44,9	% 13,7
	30-34 urte	% 43,7	% 43,2	% 58,7	% 28,6
Jaioterria	Nafarroa edo beste autonomia- erkidego bat	% 38,0	% 32,8	% 55,4	% 19,2
	Espainiatik kanpokoak	% 25,6	% 26,6	% 32,5	*
Emantzipazio- mota	Erabatekoa	% 45	% 42	% 68,6	% 25,8
	Soilik bizitegi- emantzipazioa	% 32,1	% 32,5	% 48,7	*
	Emantzipatu gabe	% 29,4	% 24,2	% 37,5	*

*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

** Erantzun anitzeko galdera.

Laguntzak ezagutzeari dagokionez igoera orokorra izan den arren (2019an 1.963 izatetik 2024an 3.072 izatera), inkestatutako pertsonen % 8k baino ez du adierazi horietako baten onuradun izan dela, zehazki, EMANZIPAren onuradun. Gainerako programetarako ez dago estatistikoki datu adierazgarririk.

¹⁹ Emantzipaziorako laguntzeko programa.

²⁰ Etxebizitza eskuratzeko itzulketen programa.


7.4 Etxebizitzaren ezaugarri fisikoak eta gogobetetze-maila

Aurtengo edizioan sartutako galderen artean, etxebizitzaren ezaugarri fisikoei eta eremuarekiko eta etxearekiko gogobetetze-mailari buruzko informazioa jasotzen da. Emantzipatutako gazte gehienak eraikin kolektiboetako bigarren eskuko etxebizitzetan bizi dira, eta erdiek-edo 50 urte baino gehiago dituzte. Igogailuak eta berriki berritze-lanak egiteak —erabatekoak edo partzialak— etxebizitza-parkearen kontserbazio- eta eguneratze-maila ertaina erakusten du: eraikin zaharrekin batera ageri dira, nolabaiteko modernizazio-mailarekin (**21. grafikoa**).


Edukitze-motaren arabera bereiziz gero (**22. grafikoa**), eraikin-motarekin eta eguneratze-mailarekin loturiko ezaugarriak nabarmentzen dira. Igogailuaren presentziak eta etxebizitza eraikin kolektibo batean edo bigarren eskuko batean egoteak arrakala handiagoak dituzte, eta horrek erakusten du alokairua hiri-blokeetan eta bigarren eskuko blokeetan kontzentratzen dela. Aitzitik, gazteak jabetza-erregimenean bizi diren etxebizitzek birgaitze-maiztasun handiagoa eta espazio erantsi gehiago dituzte.

Alde nabarmenak ageri dira berriki eginiko eraberritzeetan eta bainugela-kopuruan ere, eta haien presentzia nabarmen handiagoa da alokairuko etxebizitzaren artean, nahiz eta ematen duen partzialki berrituta daudela, zaharrak izanik ere. Aldiz, aldeak txikiagoak dira azaleran, trastelekuan eta garajea, eta horrek iradokitzen du bi taldeek tamaina ertaineko eta antzeko egitura-ezaugarriak dituzten etxebizitzak eskuratzen dituztela.

21. grafikoa. Etxebizitzaren ezaugarriak. Biztanle emantzipatu guztiak. 2025



22. grafikoa. Etxebizitzaren ezaugarriak edukitza-motaren arabera. 2025




*Laginketa-erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak.

Oro har, bizitegiaren arloan gogobetetasun handia ikusten da, eta balorazio positiboagoa ematen zaio inguruari etxebizitzari baino: erdiek baino gehiagok «gogobetetze handia» adierazten dute (**23. grafikoa**). Aukera hori hautatzen dutenen artean, % 70,4 Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak dira, eta % 29,6, berriz, atzeritik etorriak.

Etxebizitzarekiko gogobetetzeak ehuneko 9,4 puntuko arrakala du ingurunea balioesteari dagokionez, eta horrek adierazten du hautemandako bizitegi-ongizatea gehiago oinarritzen dela hiri-testuinguruan eta testuinguru sozialean etxebizitzaren baldintza fisikoetan baino. Gazte gehienak beren etxebizitzarekin pozik dauden arren, gogobetetze hori ez da inguruak sortzen duena bezain handia, eta ñabardura gehiago ditu, gainera.


Sexuaren arabera, balioespen-eredu egonkor positiboagoa ikusten da emakumeen artean, ehuneko 8 puntu inguruko aldearekin, bai ingurunearekiko gogobetetzeari dagokionez (% 54,0 eta % 46,0, hurrenez hurren), bai etxebizitzarekiko gogobetetzeari dagokionez (% 54,2 eta % 45,8, hurrenez hurren).

23. grafikoa. Ingurunearekiko eta etxebizitzarekiko gogobetetze-maila. 2025



Egungo etxebizitzak aurreikuspen pertsonalak zenbateraino betetzen dituen aztertzeari dagokionez (egoerari, kokapenari, prezioari eta ezaugarriei loturik), gazte gehienek tarteko balorazioa edo positiboa egiten dute. Ia bi herenek (% 66,8) uste dute beren itxaropenak «zertxobait» edo «erabat beteta» daudela, nahiz eta hamarretik lauk baino ez duten egiten aukera mesedegarrienaren alde (**24. grafikoa**). Oro har, emaitzek adierazten dute etxebizitzaren baldintza materialek, ekonomikoek eta kokapenarekin loturikoek emantzipatutako gazteen bizitegi-asmoei erantzuten dietela partzialki, sexuaren arabera alde nabarmenik gabe. Itxaropenak «erabat betetzat» jotzen dituztenen artean, % 80,2 Espainian jaiotakoak dira.


24. grafikoa. Etxebizitzari buruzko itxaropenen betetze-maila. 2025



Datozen bi urteetan nahi den etxebizitza eskuratzeari buruzko pertzepzioari dagokionez, ikuspegi ez oso baikorra da nagusi gazteen artean. Hamar pertsonatik ia seik (% 58,8) uste dute ez daukatela aukerarik datozen bi urteetan beren ezaugarriekin, kokapenarekin edo edukitze-erregimenarekin bat datorren etxebizitza bat eskuratzeko, edo oso


gertagaitza dela, eta % 40,1ek, aldiz, gertagarritzat edo oso gertagarritzat daukate aukera hori (**25. grafikoa**).

25. grafikoa. Bi urtean nahi den etxebizitza eskuratzeari buruzko pertzepzioa. 2025



Azkenik, gazteek etxebizitza bat eskuratzeko hautemandako oztopo nagusiak identifikatzeko galdera bat ere sartu zen aurtengo edizioan. Emaitzek erakusten dutenez, nabaria da higiezin-merkatuaren faktore ekonomiko eta estrukturalen inguruko kontzentrazioa. Erosketa-prezioa da oztopo nagusia (% 36,7), eta, ondotik, diru-sarrera nahikorik ez izatea edo lan-ezegonkortasuna eta alokairuaren prezioa (**26. grafikoa**). Zailtasun horiek 2023ko ildoari jarraitzen diote. Alde horretatik, galdetzen zen Nafarroako Gobernuak zer-nolako soluzioak ezarri beharko lituzkeen emantzipazioa errazteko: hain zuzen, merkatu libreko etxebizitzaren prezioak mugatzea eskatzen zen gehien, espekulazioan esku hartzea barne (% 28,7).

26. grafikoa. Gazte batek etxebizitza bat eskuratzeko adierazitako oztopo nagusiak. 2025



* Erantzun anitzeko galdera.

7.5. Ondorio nagusiak

- 2025ean, gazte emantzipatu gehienak (% 62,3) alokairuan bizi dira etxebizitza librean, eta eutsi egiten zaio 2023ko maximo historikoari. Jabetzako etxebizitzak, berriz, behera egiten jarraitzen du eta minimo historikora iritsi da (ehuneko 5,2 puntu egin du behera 2023arekin alderatuta eta ehuneko 18,2 puntu 2017arekin alderatuta).
- Aukeratzetik izanez gero, % 80,7k nahiago du etxebizitza propioan bizi, eta % 18,2k, berriz, alokairuan.
- 30 eta 34 urte bitarteko taldean erosten da etxebizitza gehien, baina erdiek baino gehiagok alokairuan jarraitzen dute. Jabeen % 86,2k hipoteka aktibo daukate, eta % 10ek kanpoko laguntza behar dute hipoteka horri aurre egiteko. Pertsona bakoitzak batez beste 554,68 €-ko kuota dauka, eta erosteko motibazio nagusia aurrezkoa eta etorkizuneko segurtasuna da (% 54,8, ehuneko 18,7 puntu gehiago 2023arekin alderatuta).
- Alokairua da nagusi 16-29 urteko biztanleen eta emantzipatuen artean. Alokatzeko arrazoi nagusien artean ageri dira jabetzan eskuratzeko zailtasunak (% 49) eta, neurri txikiagoan, hipoteka batek baino kostu txikiagoa duela iruditzea (% 21,5, ehuneko 23,7 puntu gutxiago 2023arekin alderatuta).
- Erdiek baino gehiagok 500 € edo gehiago ordaintzen dituzte hilean pertsonako: 547,15 € batez beste, hipoteka baten antzera. % 75ek baliabide propioekin ordaintzen dute, baina lautik batek kanpoko laguntza behar du. Erabat emantzipatutako pertsonak dituzte alokairu handienak (80,8 € gehiago, batez beste).
- Emantzipatzeko laguntza publikoen berri dutenen kopuruak gora egin du 2025ean, eta nabarmentzekoak dira EMANZIPA (% 48,7, ehuneko 5,8 puntu gehiago), Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Errolda (% 34,4, ehuneko 8,8 puntu gehiago) eta Alokairuen Poltsa (% 31, ehuneko 20 puntu gehiago). Ezagutza-maila hori handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen eta erabat emantzipatuta daudenen artean, bai eta emakumeen eta Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako biztanleen artean ere.
- Laguntzen gaineko ezagutza-mailak gora egin badu ere, gazteen % 8k soilik jaso du laguntzaren bat —zehazki, EMANZIPA programaren barruan—.
- Gazte emantzipatuak batez ere bigarren eskuko etxebizitza zaharretan bizi dira, 50 urtetik gorako eraikin kolektiboetan, zeinek kontserbazio-egoera ertaina baitute, eraberritze partzialen edo erabatekoen ondotik.
- Alokairuko etxebizitzak igogailua eta nolabaiteko modernizazioa duten hiri-blokeetan kontzentratzen dira, eta jabetzakoak, berriz, eskuragarritasun txikiagoa eta berrikuntza gutxiago dituzte.
- Bizitokiei dagokienez, gogobetetzea handia da, batez ere inguruneari dagokionez: erdiek baino gehiagok gogobetetasun handia adierazi dute, eta etxebizitzaren inguruko pertzepzioa, berriz, apalagoa (ehuneko 9,4 puntu gutxiago). Emakumeek

balorazio positiboagoak eman dituzte (ehuneko 8 puntu gehiago), bai inguruari buruz, bai etxebizitzari buruz.

- % 66,8k uste du beren bizitegi-itxaropenak nahiko edo erabat asebeteta daudela, baina hamarretik lauk bakarrik diote erabat pozik daudela.
- % 58,8k uste du datozen bi urteetan emantzipatzea ez dela oso edo batere litekeena. Oztopo nagusiak ekonomikoak eta estrukturalak dira, eta nabarmentzekoak dira erosketa-prezioa (% 36,7), diru-sarrera nahikorik ez izatea edo lan-ezegonkortasuna, baita alokairu garestiak ere.
- Erabat pozik daudenen artean, % 80,2 dira Espainian jaioak, eta horrek erakusten du gogobetetze-arrakala ageri dela jatorriaren arabera.

Kapitulu honetako azterketan ikusten ahal denez, alokairua da Nafarroako gazteek etxebizitza eskuratzeko duten bide nagusia, eta jabetzak, berriz, gutxieneko historikoa izan du. Aldaketa horrek ez du islatzen lehentasunak aldatu izana, baizik eta erosketa zailtzen duten oztopo ekonomiko eta estrukturalak egokitzea. Alokatzeari erostea baino eskuragarriagoa dela uste izaten jarraituagatik ere, datuek hileko zenbateko ia baliokideak erakusten dituzte, eta horrek aukera garesti bihurtzen du alokairua, baina eskuragarriagoa epe laburrean.

Egoera horrek independentzia-modu baldintzatuak eraten ditu: gazte asko kanpoko laguntzen mende daude beren etxebizitzari eusteko. Laguntza publikoei buruzko ezagutza-mailak gora egin duen arren, haien inpaktua mugatua da oraindik ere, eta ez du lortzen eskuratzeko desberdintasunak zuzentzea.

Bizitegien gaineko gogobetetze-maila handia da, batez ere ingurunearekin, zeinak etxebizitzak berak baino balorazio positiboagoak lortzen baititu. Hala ere, txikia da hobetzeko itxaropena: gehienek uste dute datozen urteetan ez dela oso gertagarria beren helburuekin bat datorren etxebizitza bat eskuratzeko. Gazteen bizitegi-ongizateak oreka hauskorra du oinarrian, eguneroko gogobetetasunaren eta segurtasun falta estrukturalaren artean. Oreka horrek erabateko emantzipazio iraunkorra zailtzen jarraitzen du, nahiz eta gazteek etxebizitza erostea babeslekutzat eta etorkizuneko egonkortasun-bermetzat hartzen jarraitzen duten.

8. EPILOGOA: sinplifikatzeko ahalegina

Nafarroako Foru Komunitateko Gazteen Emantzipazioari buruzko Inkestaren aurreko edizioak beti akitzen ziren azaldutako emaitzak «tipologia estruktural eta artikulatu» baten bidez (Roldán, 1996) sintetizatze ahalegin batekin. Hala, askotariko gazte-motak identifikatzen ahal ziren, galde-sortan bilduriko aldagai garrantzitsuenetatik abiaturik. Hori lortzeko prozedurak bi etapa ditu. Lehenengoan, aurreko ikerketen eta teorikoki justifikatutako garrantzi substantiboaren arabera bereizketa hori azaltzen laguntzen ahal duten aldagaiak hautatzen dira. Bigarren etapan, berriz, zenbait talderen arabera sailkatzen da inkestatutako biztanleria, barne-antzekotasun handienak dituztenak eta elkarrengandik urrunen daudenak.

8.1. Lehenengo etapa


2025ean, alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Adina, urte naturaletan adierazita.
- Nafarroan jaioa izatea.
- Lan-egoera:
 - Lanean; lanaldi osoan; kontratu mugagabearekin eta soldata jasotzen.
 - Langabezian egotea.
- Goi-mailako ikasketak izatea.
- Bizitegi-egoera:
 - Bikotekidearekin bizitzea.
 - Alokairuko etxebizitza batean bizitzea.
 - Besteren diru-sarrerak jasotzea.
- Tentsiopeko Merkatuko Zonaldeko 21 udalerrietako batean bizitzea.

Bestalde, baztertu egin dira beste aldagai batzuk (hala nola bizitegi-eremua, bizi den udalerraren tamaina edo sexua), ez baitzuten ekartzen hobekuntza gehigarri aldagai bat baino gehiago aldi berean kontuan hartzeak dakarren heterogeneotasuna eta konplexutasuna laburbiltzeko egiten den Osagai Nagusien Analisisian.

27. grafikoak hautatutako hamahiru aldagaien arteko korrelazio-matrizea erakusten du. Ikusten ahal denez, ia aldagai guztiek dute gutxienez korrelazioen bat beste aldagaietako batekin, eta horrek gaitu egiten ditu Osagai Nagusien Analisisia aplikatzeko baldintzak. Badirudi Tentsiopeko Merkatuko Zonaldeak bakarrik ez duela harreman esturik beste aldagaiekin, baina, jarraian zehaztuko den bezala, ñabardura gehigarri bat txertatzen du gazteen barne-egituraketan, diskriminatzaileena ez bada ere.

27. grafikoa. Jatorrizko aldagaien korrelazio-matrizea. 2025




Lehen etapa honen emaitza, bitxia bada ere, askoz sendoagoa eta sintetikoagoa da aurreko edizioetan baino; izan ere, bereizketa-faktore (edo dimentsio) bat gutxiago baliaturik, areagotu egiten da azalpen-ahalmen globala. Hain justu ere, 2025ean bost aldagairekin bakarrik azaltzen da inkestatutako gazteen guztizko dispersioaren ia % 75 (bost aldagai horiek jatorrizko aldagaien konbinazio asimetriko bat dira). Hona hemen bost faktore horiek, garrantziaren arabera ordenatuta:


- **1. faktorea.** Lan-egonkortasuna (lanaldi osoko lan mugagabea izatea) eta buruaskitasun ekonomikoa (beste pertsona batzuen diru-sarreraren mende ez egotea) adin handieneko pertsonen artean.
- **2. faktorea.** Alokairuan bizitzea, Nafarroan jaio gabea izanik.
- **3. faktorea.** Gurasoen eta seme-alaben hezkuntza-mailaren kontrastea, hau da, goi-mailako ikasketak dituzten gazteak izatea, nahiz eta haien gurasoek sekula lortu ez antzeko curriculum-prestakuntzarik.
- **4. faktorea.** Langabezian egotea eta jatorrizko familia-etxean segitzea elkarrekin bizitzen.
- **5. faktorea.** Tentsiopeko Merkatuko Zonaldeko udalerrri batean bizitzea eta, aurreko ardatzean bezala, emantzipatuta ez egotea.

28., 29., 30., 31. eta 32. grafikoek jatorrizko aldagai bakoitzaren definizioan zer ekarpen egiten duten erakusten dute faktore horietako bakoitzerako.

28. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 1. faktorearen espazio biratuan: «Lan-egonkortasuna eta buruaskitasun ekonomikoa». 2025
PC1erako karga-partzela




29. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 2. faktorearen espazio biratuan: «Alokairuan bizi den biztanleria ez-nafarra». 2025
PC2erako karga-partzela




30. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 3. faktorearen espazio biratuan: «Gurasoena baino hezkuntza-maila hobea». 2025

PC3erako karga-partzela




31. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 4. faktorearen espazio biratuan: «Langabezian dauden eta gurasoen etxebizitzan bizi diren biztanleak». 2025

PC4erako karga-partzela




32. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 5. faktorearen espazio biratuan: «Tentsiopeko zonaldean bizi diren biztanle emantzipatu gabeak». 2025

PC5erako karga-partzela




Bost osagai nagusietatik, lehenengo biek bakarrik azaltzen dute beren kabuz bariantza osoaren % 50,1 (% 34,2 lehenengoak eta % 15,9 bigarrenak). Beste hiru ardatzen eginkizuna askoz ere txikiagoa eta homogeneoagoa da (**33. grafikoa**). **34. grafikoa** ikusten ahal da lehen bi dimentsio horietako jatorrizko aldagaien banaketa (Nafarroatik kanpo jaiotako biztanleen lan-egonkortasuna eta alokairu-emantzipazioa). Zenbat eta luzeagoa gezia, orduan eta garrantzi handiagoa aldagai horrek dimentsio horren sorreran:

33. grafikoak. Osagai nagusien analisiaren sedimentazio-grafikoa. 2025




34. grafikoa. Osagai Nagusien Anlisiaren lehen eta bigarren faktoreetan txandakatutako espazioko aldagai orijinalak. 2025



8.1. Bigarren etapa

Osagai Nagusien Analisiaren birtualtasuna zera da, nabarmena eta sendoa denean, biztanleria zenbait taldetan sailkatzeko aukera ematen duela (barnetik ahalik eta antzekoenak direnak eta elkarrengandik urruten daudenak). Bigarren etapan, lagin osoaren sailkapen hierarkikoaren analisia egiten da (Warden distantziaren bidez), Osagai Nagusien Analisiaren bost faktoreetatik abiatuta. 2025ean lortzen den soluziorik onenak bost talde ezartzen ditu. Horiek definitzeko, Osagai Nagusien Analisiaren bost dimentsioek horietako bakoitzean duten pisua aztertzen ahal da (**35. grafikoa**).

35. grafikoa. Osagai Nagusien Analisiaren azken dimentsioen banaketa biztanle gazteen taldeetan. 2025



PC1: «Lan-egonkortasuna eta buruaskitasun ekonomikoa».

PC2: «Alokairuan bizi den biztanleria ez-nafarra».

PC3: «Gurasoena baino hezkuntza-maila hobea».

PC4: «Langabezian dauden eta gurasoen etxebizitzan bizi diren biztanleak».

PC5: «Tentsiopeko merkatuko zonaldean bizi diren emantzipatu gabeko biztanleak»


Bisualki, ikusten da lehen taldea batez ere laugarren dimentsiotik aurrera definitzen dela (langabezian dagoen emantzipatu gabeko biztanleria); bigarrena, lehenengotik (lan-egonkortasuna); hirugarrena, argi eta garbi bosgarrenetik (emantzipatu gabeko biztanleria tentsiopeko merkatuko zonaldeetan); laugarrena, bigarrenetik (alokairuan bizi dena eta Nafarroatik kanpo jaioa); eta bosgarrena, batez ere lehenengoarekin, bigarrenarekin eta bosgarrenarekin kontrajarrita. Hirugarren dimentsioa gazteen eta haien guraso eta/edo amen hezkuntza-mailari buruzkoa da, eta bost taldeetan banatzen da erlatiboki, nahiz eta presentzia handiagoa izan hirugarren taldean, zentzu negatiboan.

Definizio hori gehiago zehazten ahal da bost taldeak Osagai Nagusien Analisia elikatu zen hasierako hamahiru aldagaiekin gurutzatzen badira. Honela etiketatzen ahal dira:

- 1) **Lehen taldea – lan-merkatuan erabat eta modu egonkorrean sartzea (guztizkoaren % 20,2):** 30 urte edo gehiagoko biztanleria, emantzipatua, lan onak dituen eta bikotekidearekin bizi dena.
- 2) **Bigarren taldea – emantzipatu gabea, lanarekin eta prestakuntza-maila handiarekin (guztizkoaren % 24,0):** Nafarroan jaiotako biztanle emantzipatu gabeak, baina lanpostu mugagabeetan lan egiten dutenak, gazte guztien batez besteko soldata baino handiagoarekin.
- 3) **Hirugarren taldea – langabezian eta ikasketa-maila txikiagoa (guztizkoaren % 9,8):** goi-mailako ikasketarik gabeko biztanleria, langabezian dagoena eta, neurri handiagoan, Nafarroan jaio ez dena.
- 4) **Laugarren taldea – kalteberatasunez emantzipatzea (guztizkoaren % 16,7):** alokairuko etxebizitzetan emantzipatutako biztanleria, lanpostu prekarioagoak dituen eta, neurri handiagoan, Tentsiopeko Merkatuko Zonaldeko udalerriren batean bizi dena.
- 5) **Bosgarren taldea – erabateko familia-mendetasuna (guztizkoaren % 29,2):** emantzipatu gabeko biztanleak, 20 urte baino gutxiagokoak, ikasten jarraitzen dutenak eta beste pertsona batzuen diru-sarreretatik bizi direnak.

36. grafikoak erakusten du erlazio oso estua dagoela azken bost talde horien eta txosten honetan definitutako hiru bizitegi-emantzipazioko egoeren artean: i) erabat emantzipatutako biztanleriaren % 59,2 lehen taldean biltzen da (bikotekidearekin emantzipatzea, lan egonkorak izatea eta ordainsari onekin); ii) bizitegi-emantzipazioa bakarrik dutenen % 57,2 laugarren taldean dago (alokairuan emantzipatzea, ezegonkortasun ekonomikoarekin), eta iii) emantzipatu gabeko biztanleria 2. taldean (bertako biztanle emantzipatu gabeak, lan egiten dutenak) eta 5. taldean (ikasle gazteak) banatzen da (azken hori da maioritarioa).

36. grafikoa. Gazteen bizitegi-egoera, talde batzuetan eta besteetan. 2025



Txosten honetan erabilitako sailkapen-analisiak deskriptiboak dira nagusiki, ez baitute aurkitu nahi kausa- edo azalpen-elementurik; aitzitik, aztertutako biztanleria egituratzeko moduari buruzko diseinu argiagoa eskaintzea da haien xedea. Adibidez, berresten ahal da sexua ez dela Nafarroako biztanleria gaztea modu erabakigarrian bereizten duen aldagai bat, emakumeak eta gizonak oso antzera banatzen baitira bost taldeen artean. Bigarren taldean gizon gehiago daude (% 29,2) emakumeak baino (% 18,7), eta horrek adieraziko luke gizon gazte batek, lanaldi osoan eta goi-mailako ikasketak buruturik izan arren, aukera handiagoa duela oraindik ere familiaren etxebizitzan bizitzen jarraitzeko.

Ez da gauza bera gertatzen, sexua kontuan hartu ordez, Tentsiopeko Merkatuko Zonaldeko udalerriren batean bizi diren gazteekin zer gertatzen den aztertzen bada. Kasu horretan, haien presentzia izugarri handitu da 3. eta 4. taldeetan (bi taldeetako gazteen % 70 baino gehiago dira, eta laugarren taldean % 79,1 dira gehienez). Beraz, azpimarratu behar da arrisku handiagoa dutela langabezian eta alokairuan emantzipatuta egoteko, gainerakoek baino egoera ekonomiko irregularragoarekin.

9. ONDORIOAK

2025eko emaitzek berretsi egiten dute Nafarroako gazteen lan-, ekonomia- eta prestakuntza-baldintzen hobekuntza erlatiboa, baita emantzipazio-tasaren igoera historiko bat ere. Alabaina, aurrerapen horrek independentzia-modu partzial eta behin-behinekoak ditu oinarrian. Hazkundera bizitegi-emantzipazio hutsean kontzentratzen da, eta erabateko emantzipazioa, berriz, murriztu egin da. Hori horrela, sorturiko ibilbideak faktore estrukturalek baldintzatuta ageri dira, bereziki etxebizitzaren prezioak, diru-sarreraren ezegonkortasunak eta gizarte- eta genero-desberdintasunen iraunkortasunak.

Erregresio logistikoaren analisiak berresten du adina eta jaioterria direla 2025ean bizitegi-emantzipazio hutsa azaltzeko faktore erabakigarrienak. Beste faktore batzuek (hala nola sexuak, lan-egoerak edo hezkuntza-mailak) galdu egiten dute egoera azaltzeko garrantzia, aldi berean kontuan hartzen direnean. Aldiz, erabateko emantzipazioa loturik dago adinarekin, ikasketak burutu zirenetik igarotako denborarekin eta kontratu mugagabea izatearekin, eta horrek indartu egiten du erabateko independentzia beranduago lortzen dela iradokitzen duen ideia —hau da, prestakuntza burutu eta enplegu egonkorra lortu ondotik—.

Lan-merkatua egonkortasun formal handiagorantz doa: kontratu mugagabeek, lanaldi osoko dedikazioak eta batez besteko soldatek gora egin dute, eta nabarmen hobetu da egonkortasun-pertzepzioa. Hala ere, bilakaera hori ez da proportzionalki benetako independentzia ekonomiko bihurtzen. Enplegua da diru-sarreraren iturri nagusia (% 60), baina familiaren laguntzak funtsezko zutabe izaten jarraitzen du (% 44,4). Horrek lortutako autonomiaren hauskortasuna islatzen du. Gazteen independentzia ekonomikoak maximo historikoa lortu du (% 40,5), baina oraindik ere polarizazio handia ageri da erabateko independentzia lortzen dutenen eta jatorrizko familia-etxearen mende (erabat edo partzialki) jarraitzen dutenen artean.

Desberdintasun estrukturalek hortxe jarraitzen dute, nahiz eta batzuek moteltzeko joera izan. Gizonek egoera ekonomiko sendoagoa eta familiarekiko mendekotasun txikiagoa dute; emakumeek, berriz, prestakuntza-maila handiagoa izan arren, gehiago jarraitzen dute familian oinarritzen. Espainiatik kanpo jaiotako biztanleek emantzipazio-tasa eta autonomia ekonomiko handiagoak dituzte, baina egoitza-baldintza kalteberagoak. Hezkuntza-mailaren arabera, prestakuntza txikiagoko familia-etxeetatik datozen pertsonak lehenago eskuratzen dute enplegua, baina baldintza prekarioagoetan eta egonkortasun txikiagoarekin.

Hezkuntzaren arloan, Nafarroako gazteen prestakuntza-mailak altua jarraitzen du izaten, baina desberdintasun- eta hauskortasun-seinaleak agertzen ari dira. Oinarrizko prestakuntza duen taldeak gora egin du, eta handitu egin dira jatorriaren eta familia-hezkuntzaren araberrako arrakalak. Gehienak ikasketak burutu ondotik emantzipatzen dira, baina ikasten ari diren bitartean emantzipatzen direnen kopuruak gora egin du. Horrek ibilbide askotarikoagoak islatzen ditu. Hala ere, prestakuntza osatzeak jada ez du bermatzen independentzia ekonomikoa, ezta bizitegi-emantzipazioa ere.

Etxebizitza eskuratzea da, gaur-gaurkoz ere, erabateko emantzipaziorako oztopo nagusia. Alokairua da gehienek aukera, eta jabetza, berriz, gutxieneko historikora iritsi da. Joera hori ez da lehentasun-aldaketa baten ondorio, ezpada erosteko zailtasunaren ondorio, prezio garestiak eta soldata eskasak nagusi diren testuinguru batean. Laguntza publikoen gaineko ezagutza-mailak gora egin badu ere, horien benetako eragina mugatua da oraindik: gazteen % 8k baino ez du jaso laguntzaren bat.

Bizitegien inguruko gogobetetzea altua da, batez ere ingurunearekin, nahiz eta hobetzeko itxaropenak txikiak izan. Gehienek uste dute datozen urteetan ez dela oso gertagarria beren helburuekin bat datorren etxebizitza bat eskuratzea, eta horrek eguneroko gogobetetasunaren eta segurtasun falta estrukturalaren arteko oreka hauskorrean kokatzen du bizitegi-ongizatea.

9.1. Emantzipazioa

- Nafarroako gazteen emantzipazio-tasa maximo historikora iritsi da 2025ean (% 49,5), bizileku-emantzipazio hutsaren igoerak bultzatuta (% 43), kontuan izanik emantzipazio-mota hori 7,4 puntu igo dela 2023arekin alderatuta; erabateko emantzipazioa, berriz, proportzio berean jaitsi da (% 35,5).
- Emakumeek emantzipazio-tasa handiagoak dituzte oraindik ere (% 51,5) gizonen baino (% 47,7), baina serieko txikienera murrizten da aldea. Gizonen emantzipazioaren gorakadak eragin du murrizketa hori, zeina bizitegi-modalitatean kontzentratu baita ia erabat. Emakumeetan, aldiz, erabateko emantzipazioak behera egin du eta bizitegi-emantzipazioak, berriz, gora (ehuneko sei puntu handiagoa izaten jarraitzen du gizonen kasuan baino).
- Adinaren arabera (Espainiako Gazteriaren Kontseilua)²¹, 16-29 urteko biztanleen % 37,2 familiaren etxetik kanpo bizi dira, 2023an baino 4,1 puntu gehiago, eta 30-34 urtekoen artean, berriz, % 81,6. Bizitegi-emantzipazioa da nagusi gazteen artean, eta erabatekoa, berriz, goiko tartean (azken hori 7,4 puntu jaitsi da 2023arekin alderatuta).
- Atzerrian jaiotako biztanleriak ditu oraindik ere emantzipazio-tasarik altuenak (% 62,9), Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak baino hemeretzi puntu gehiago (% 43,9). Serie osoko arrakala handiena da, batez ere lehengoaren etxebizitza emantzipazioa ehuneko 14,8 puntu handitu baita (2023an % 37,1ekoa zen).
- Bizilekuaren arabera. Iruñeak eta Iruñerriak Nafarroako gainerako eskualdeen antzeko balioak dituzte —erabateko emantzipazioa ehuneko 2 puntu handiagoa da hiriburutik kanpo—. Tentsiopeko merkatuko zonaldeek ehuneko 6 puntu gehiago dituzte, bizitegi-emantzipazio handiagoaren kaltetan.
- Hezkuntza-mailari dagokionez, emantzipazioak behera egin du goi-mailako ikasketak dituztenen artean (2,9 puntu), eta erabateko emantzipazioak, berriz, 5,2

²¹ [Emantzipazioaren Behatokia | Espainiako Gazteriaren Kontseilua](#) [2025eko urriaren 16an kontsultatua].

puntu egin du behera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak burutu dituztenen artean, emantzipazioa ehuneko 8,8 puntu igo da.

- Gurasoen hezkuntza-mailaren eta emantzipazioaren arteko harremanak bere horretan jarraitzen du: zenbat eta txikiagoa familiako prestakuntza-maila, orduan eta probabilitate handiagoa erabateko emantzipaziorako —ehuneko 11,1 puntuko aldea ageri da lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen seme-alaben (% 43,9) eta goi-mailako ikasketak dituztenen (% 55) artean—. Era berean, ehuneko 5 puntu igo da emantzipazioa goi-mailako ikasketak eginiko gurasoak dituzten gazteen artean.
- EUROSTAT metodologiarekin kalkulaturako erabateko emantzipazioko batez besteko adina 30,9 urte da (26,5 urte emantzipazio osorako), eta igoera txiki bat hautematen da (29,4 urtera iritsi baitzen) 2023arekin alderatuta (25,3 osorako). Gazteek aitortutako adina, berriz, 23,1 urte da (21,4 urte osorako).
- 2025ean, independentzia-nahia da oraindik emantzipatzeko arrazoi nagusia, baina pisua galdu du ikasketek eraginda lekualdaketen eta bikotekidearekin bizitzearen aurrean. Erabateko emantzipazioa erabaki egonkorragoekin lotzen da; bizitegi-emantzipazioa, berriz, arrazoi akademikoekin batez ere, eta adin txikiagoetan gertatzen da.
- Gazteen erdiak ez dira emantzipatu, batez ere ikasten jarraitzeagatik edo baliabide ekonomikorik ez izateagatik. Arrazoiak egonkor jarraitzen dute 2017tik, eta beren horretan segitzen dute ibilbide itzulgarriek: ikasketak burutu ondotik familia-etxera bueltatzen direnak.

9.2. Lan- eta ekonomia-egoera

- **Lan-egoera orokorra.** 2023tik 2025era bitartean, bakarrik lan egiten duten gazteen proportzioak egonkor jarraitzen du (% 45,6), baina bizitegi-banaketa aldatu egin da: erabateko emantzipazioak behera egin du, eta, aldiz, areagotu egin da emantzipatu gabe lan egiten duten pertsonen ehunekoa (4,1 puntu) edo bizitegi-emantzipazioa soilik bizi dutenena (3,3 puntu). Oraindik familiaren etxean bizi diren gehienek ikasten jarraitzen dute (% 43,7).
- **Enplegu-mota.** 2025ean, 10 gaztetik ia 6k lan egiten dute, gehienak besteren kontura (% 92,2). Egoerak egonkor jarraitzen du 2023arekin alderatuta, eta igoera txiki bat hautematen da gizonen eta atzerrian jaiotako biztanleen artean. Aldiz, gutxiengo dira emakumeak eta Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak.
- **Kontratuen iraupena.** Soldatapeko gazteen % 75,6k kontratu mugagabea dute (2023an baino % 11,9 gehiagok). Lan-egonkortasuna handitu egiten da talde guztietan, baina intentsitate desberdinarekin.
- **Lanaldi-mota.** Lanaldi osoak gehiengo izaten jarraitzen du (% 79,6), eta ehuneko 3,2 puntu igo da 2023arekin alderatuta; partzialtasuna, aldiz, % 20,4ra jaitsi da.

- **Egonkortasun-pertzepzioa.** Nabarmen hobetu da lan-egonkortasunaren inguruko pertzepzioa: gazteen % 62k enpleguari eusteko itxaropena dute (2023an baino ehuneko 26,1 puntu gehiago), eta ia erdiek diote beren lanpostua loturik dagoela ikasitakoarekin.
- **Hileko eta urteko soldata garbiak.** 2025ean, Nafarroako gazteen batez besteko soldata hilean 1.448,91 €-koa da (19.923,80 € urtean), 2023an baino % 6,6 handiagoa. Finkatu egin dira ordainsarien hobekuntza eta soldata-tarte altuen kontzentrazioa, eta diru-sarrera txikiak dituen taldea ehuneko 8 puntu murriztu da 2017tik. Gazteen % 45,5ek bakarrik adierazi dute aparteko ordainsariak jasotzen dituztela (2023an baino ehuneko 7,5 puntu gutxiago).
 - **Sexuaren arabera.** Gizon gazteek posizio laboral eta ekonomiko hobea dute: % 77,4k kontratu mugagabea daukate (emakumeek baino ehuneko 3,8 puntu gehiago), % 85,9k lanaldi osoan dihardute lanean (ehuneko 14 puntu gehiago, eta, 2023arekin alderatuta, ehuneko 5 puntu murrizten da arrakala), eta batez beste 170 € gehiagoko soldata jasotzen dute hilean (2.500 € inguru gehiago urtean).
 - **Adinaren arabera.** 30 eta 34 urte bitartekoek posizio sendoagoa dute: % 81,4k kontratu mugagabearekin dihardute (16 eta 29 urte bitartekoek baino ehuneko 9,4 puntu gehiago), maiztasun handiagoarekin egiten dute lan lanaldi osoz (ehuneko 11,1 puntu gehiago) eta lan-egonkortasunaren pertzepzio handiagoa dute. Gainera, hileko soldata 200 € handiagoa dute, hau da, urtean 3.500 €-tik gorako aldea.
 - **Jaiolekuaren arabera.** Espainian jaiotako biztanleek lan-egonkortasun handiagoa dute (% 76,4k kontratu mugagabea dute, eta atzerritarren artean, berriz, % 73,8k dute kontratu-mota hori). Hala, alderantzikatu egin da 2023ko joera. Era berean, egonkortasun-pertzepzio handiagoa ageri dute, eta, soldatei dagokienez, urtean 3.000 € inguruko abantaila dute atzerriko biztanleriarekin alderatuta, nahiz eta aldeak apaltzeko joera izan.
 - **Hezkuntza-mailaren arabera.** Goi-mailako ikasketak dituztenek egonkortasun handiagoa daukate (% 81,2k kontratu mugagabea dute), bai eta soldata handiagoak ere, hilean 380 €-ko aldearekin (urtean 5.700 € inguru). Erdi-mailako ikasketak dauzkatenak daude egoera okerrean, haiek baitute kontratu mugagabeen proportzio txikiena (% 67,2, behe-mailakoek baino 3 puntu gutxiago), bai eta lanaldi osoko kontratuena ere (% 71,3, goi- eta behe-mailakoek baino ehuneko 11 puntu gutxiago).
 - **Familiaren hezkuntza-mailaren arabera.** Goi-mailako ikasketak eginiko familietatik datozen pertsonak lan-egonkortasun handiagoa dute (altuagoak dira kontratazio mugagabearen tasak) eta enplegu-jarraitutasunaren pertzepzio handiagoa dute. Gainera, urteko diru-sarrerak 2.500 € inguru handiagoak dira hezkuntza-maila txikiagoa duten familietatik datozenen artean baino.

- **Emantzipazio-motaren arabera.** Erabat emantzipatutako pertsonak dituzte egonkortasun- eta dedikazio-tasa altuenak, baita diru-sarrera handienak ere. Ondotik, emantzipatu gabeak ageri dira, zeinek nabarmen hobetzen baitute egoera 2023arekin alderatuta: ehuneko 21,5 puntu igo dira kontratazio mugagabeen, 12,7 lanaldi osoan eta 200 € baino gehiagoko aldea dute hilean batez besteko soldatan (2.400 € inguru urtean). Era berean, nabarmen murriztu da erabat emantzipatuta daudenekiko arrakala. Hala ere, haien soldata 3.400 € inguru txikiagoa da oraindik urtean. Beste muturrean, bizitegi-emantzipazioa bakarrik duten emakumeek ageri dituzte baldintzarik txarrenak: txikiagoa da kontratu mugagabeen eta lanaldi osoko kontratuen proportzioa, ehuneko 8 puntu jaitsi da lan-dedikazioa eta urtean 1.000 € inguru gutxiago soldatan (are emantzipatu gabekoen azpitik gelditzen dira).
- **Egoera ekonomikoa – Diru-sarrerak.** Gazteen autonomia ekonomikoak serieko mailarik altuena lortu du 2025ean (% 40,5 bere diru sarreretatik bakarrik bizi da), nahiz eta polarizazio handia ageri den oraindik erabateko independentzia lortzen dutenen eta erabat edo partzialki beste pertsona batzuen mende jarraitzen dutenen artean.
 - **Aldagaien arabera.** Handiagoa da Espainiatik kanpo jaiotako biztanleen artean eta hezkuntza-maila txikiagoa duten etxekoen unitateetan, lanean goizago hasteari lotuta. Genero-arrakalak ageri dira oraindik: gizonak independenteagoak dira ekonomikoki (% 64,8k lortzen ditu laneko diru-sarrerak) eta emakumeek, aldiz, familiaren babes handiagoa dute (% 46,8).
 - **Emantzipazio-motaren arabera.** Erabat emantzipatutako pertsonen % 77,5ek diru-sarrera propioak ditu, eta emantzipatu gabeen % 15,5ek, berriz, autonomia-eredu oraindik partziala ageri du.
- Enplegua da diru-sarreraren iturri nagusia (% 60), baina familiaren laguntzak funtsezko zutabe izaten jarraitzen du (% 44,4). Horrek islatzen du enpleguaren hobekuntzak oraindik ez duela bermatzen erabateko egonkortasun ekonomikorik.

9.3. Ikasketak eta prestakuntza

- Inkestatutako gazteen % 57,1ek jada ez du ikasten, eta % 42,9k, berriz, trebatzen jarraitzen du.
- % 76,9k gutxienez eginak ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak, eta % 43,4k goi-mailakoak. Halere, beherakada txiki bat ikusten da erdi-mailako ikasketak dituen taldean 2023arekin alderatuta, eta oinarrizko prestakuntza dutenak ugaritu egin dira (% 11,3tik % 23,0ra).
- Emakumeek gizonek baino proportzio handiagoan jarraitzen dute ikasten (ehuneko 10 puntu gehiago), eta 30 eta 34 urte bitarteko ia pertsona guztiek osatu dute prestakuntza.

- Hezkuntzaren jarraitutasuna txikiagoa da atzerriko biztanleen artean (ehuneko 16 puntuko aldea) eta prestakuntza-maila txikia duten familia-etxeen artean (ehuneko 20 puntuko aldea), nahiz eta azken horietan arrakala 3,4 urte murriztu den 2023arekin alderatuta.
- Emantzipatu gabekoen artean, hamarretik lauk jada ez dute ikasten (2023an % 34,7 ziren), eta emantzipatu direnen artean, berriz, ehuneko 3,1 puntu igo da ikasketak burutu dituztenen taldea.
- Ikasketak burutuz geroztik sei eta zazpi urte bitarteko denbora igaro da batez beste.
- Gehienak ikasketak burutu ondotik emantzipatzen dira, baina ikasten ari den taldeak gora egin du. Oraindik ere aldeak ageri dira sexuaren arabera (gizonen % 44,8 eta emakumeen % 32,1), bai eta jatorriaren arabera ere (atzerrian jaiotakoek % 40 eta Espainian jaiotakoek % 36,9).
- Prestatzen jarraitzeko interesa % 59,7ra igotzen da, eta berreskuratu egin dira 2021. urtea baino lehen ageri ziren mailak. Interes hori handiagoa da emakumeen, 16-29 urteko pertsonen, atzeritarren eta goi-mailako ikasketak eginiko familia-etxeetatik datozenen artean. Erabat emantzipatuta daudenek daukate ikasten jarraitzeko prestasun txikiena.
- Ikasten jarraitzeko motibazio nagusia etengabeko prestakuntzan jarraitzeko beharra da (% 40), eta, ondotik, lan-hobekuntza (% 27) eta garapen pertsonala (% 21). Hazkunde pertsonalagatik motibaturik daudenak, bestalde, gero eta gehiago dira. Prestakuntzaren eta emantzipazioaren arteko harremanak indarra galtzen du, eta ez du garrantzi estatistikorik. Atzeritar jatorriko pertsonen eta hezkuntza-maila txikiagoa dutenen motibazioak bi oinarri ditu nagusiki: enplegarritasuna hobetzea edo lanez aldatzea.
- % 71,2k dio «handia edo nahiko handia» dela egindako ikasketa formalekin duen gogobetetasuna, batez ere ikasten jarraitzen dutenen eta emakumeen artean.

9.4. Etxebizitza

- 2025ean, gazte emantzipatu gehienak (% 62,3) alokairuan bizi dira etxebizitza librean, eta eutsi egiten zaio 2023ko maximo historikoari. Jabetzako etxebizitzak, berriz, behera egiten jarraitzen du eta minimo historikora iritsi da (ehuneko 5,2 puntu egin du behera 2023arekin alderatuta eta ehuneko 18,2 puntu 2017arekin alderatuta).
- Aukeratzetik izanez gero, % 80,7k nahiago du etxebizitza propioan bizi, eta % 18,2k, berriz, alokairuan.
- 30 eta 34 urte bitarteko taldean erosten da etxebizitza gehien, baina erdiek baino gehiagok alokairuan jarraitzen dute. Jabeen % 86,2k hipoteka aktibo daukate, eta % 10ek kanpoko laguntza behar dute hipoteka horri aurre egiteko. Pertsona bakoitzak batez beste 554,68 €-ko kuota dauka, eta erosteko motibazio nagusia

aurrezkoa eta etorkizuneko segurtasuna da (% 54,8, ehuneko 18,7 puntu gehiago 2023arekin alderatuta).

- Alokairua da nagusi 16-29 urteko biztanleen eta emantzipatuen artean. Alokatzeko arrazoi nagusien artean ageri dira jabetzan eskuratzeko zailtasunak (% 49) eta, neurri txikiagoan, hipoteka batek baino kostu txikiagoa duela iruditzea (% 21,5, ehuneko 23,7 puntu gutxiago 2023arekin alderatuta).
- Erdiek baino gehiagok 500 € edo gehiago ordaintzen dituzte hilean pertsonako: 547,15 € batez beste, hipoteka baten antzera. % 75ek baliabide propioekin ordaintzen dute, baina lautik batek kanpoko laguntza behar du. Erabat emantzipatutako pertsonak dituzte alokairu handienak (80,8 € gehiago, batez beste).
- Emantzipatzeko laguntza publikoen berri dutenen kopuruak gora egin du 2025ean, eta nabarmentzekoak dira EMANZIPA (% 48,7, ehuneko 5,8 puntu gehiago), Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Errolda (% 34,4, ehuneko 8,8 puntu gehiago) eta Alokairuen Poltsa (% 31, ehuneko 20 puntu gehiago). Ezagutza-maila hori handiagoa da 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen eta erabat emantzipatuta daudenen artean, bai eta emakumeen eta Nafarroan edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako biztanleen artean ere.
- Laguntzen gaineko ezagutza-mailak gora egin badu ere, gazteen % 8k soilik jaso du laguntzaren bat —zehazki, EMANZIPA programaren barruan—.
- Alokairuko etxebizitzak igogailua eta nolabaiteko modernizazioa duten hiri-blokeetan kontzentratzen dira, eta jabetzakoak, berriz, eskuragarritasun txikiagoa eta berrikuntza gutxiago dituzte.
- Gazte emantzipatuak batez ere bigarren eskuko etxebizitza zaharretan bizi dira, 50 urtetik gorako eraikin kolektiboetan, zeinek kontserbazio-egoera ertaina baitute, eraberritze partzialen edo erabatekoen ondotik.
- Bizitokiei dagokienez, gogobetetzea handia da, batez ere inguruneari dagokionez: erdiek baino gehiagok gogobetetasun handia adierazi dute, eta etxebizitzaren inguruko pertzepzioa, berriz, apalagoa (ehuneko 9,4 puntu gutxiago). Emakumeek balorazio positiboagoak eman dituzte (ehuneko 8 puntu gehiago), bai inguruari buruz, bai etxebizitzari buruz.
- % 66,8k uste du beren bizitegi-itxaropenak nahiko edo erabat asebeteta daudela, baina hamarretik lauk bakarrik diote erabat pozik daudela.
 - % 58,8k uste du datozen bi urteetan emantzipatzea ez dela oso edo batere litekeena. Oztopo nagusiak ekonomikoak eta estrukturalak dira, eta nabarmentzekoak dira erosketa-prezioa (% 36,7), diru-sarrera nahikorik ez izatea edo lan-ezegonkortasuna, baita alokairu garestiak ere.
 - Erabat pozik daudenen artean, % 80,2 dira Espainian jaiotak, eta horrek erakusten du gogobetetze-arrakala ageri dela jatorriaren arabera.

10. FITXA TEKNIKOA

Unibertsoa	Nafarroan bizi diren 16-34 urteko gazteak
Lagin-tamaina eraginkorra	753
Landa-lana egiteko denbora tartea	2025eko apirila-maiatza Markemos Marketing Global enpresak egina
Errore marjina zenbatetsia, laginketa simple bat eta % 95,5eko esanahi maila (z=2) suposatuta	Guztira: % 3,6 Gizonezkoak: % 5,1 Emakumeak: % ±5,2 16-24 urte: % ±5,2 25-34 urte: % 5,1 Nafarroan edo Espainian jaiotako biztanleak: % ±4,3 Atzerrian jaiotako biztanleak: % ±6,8 Erabat emantzipatutako biztanleak: % ±6,8 Bizitegi-emantzipazioa bakarrik lortu duen biztanleria: % ±7,9 Emantzipatu gabeko gazteak: % 5,1
Laginketa-sistema	Konglomeratuen arabera estratifikatua, laginketa-unitate primarioak (udalerrriak) eta azken unitateak (indibiduoak) ausaz eta proportzionalki hautatuta, eta azken unitateak (indibiduoak), berriz, Nafarroako Estatistika Institutuak (NASTAT) sexu- eta adin-kuoten arabera emandako ausazko lagin bidez. Lehen etapako unitateak Nafarroa 2000 Zonakatzea kontuan hartzea dakarten irizpide geografikoen arabera estratifikatzen dira.
Elkarrizketa-mota	Telefono bidezko elkarrizketak. Azken 753 erantzunak lortzeko, 1.500 kontaktu egin dira: 578 baliogabetu egin ziren kuota ixteagatik, 16 ez ziren lokalizatu, 86k ez kolaboratzea erabaki zuten, 35ek telefono okerra zuten, 12 pertsona atzerrian bizi ziren, eta, azkenik, 20 jada ez ziren bizi etxebizitza horretan eta ez zuten eman telefono zenbaki alternatiborik.
Kalitate-kontrola	Galde-sorta guztiak berrikusi eta baliozkotu dira, eta garbitu zaizkie omisio, akats eta inkonsistentzia guztiak.
Haztapena	Emaitzak haztatu ondotik, adinaren, sexuaren eta jaiolekuaren araberrako egitura bat dator 2024ko Biztanleriaren Urteko Erroldako zifrekin (INE, Estatistikako Institutu Nazionala).

11. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Bradshaw, J. (1972). A Taxonomy of Social Need. En McLachlan, G. (ed.), *Problems and Progress in Medical Care: Essays on Current Research* (70–82. or.). Oxford University Press arg.
- Gazteriaren Espainiako Kontseilua (2025). *Observatorio de Emancipación* (2025ko bigarren seihilekoa). <<https://www.cje.org/investigacion/#290-310-2o-semester-2024>>.
- Cachón, L. (2004). Inmigrantes jóvenes en España. *Informe de Juventud 2004*, 708-720. <<https://www.injuve.es/observatorio/demografia-e-informacion-general/informe-juventud-en-espana-2004>>.
- Gil Solsona, D. & Simó Noguera, C. X. (2018). La Investigación empírica sobre la emancipación en España. *Revista Prisma Social* (23), 142–168. <<https://revistaprismasocial.es/ps/article/view/2754>>.
- Roldán, P. (1996). La construcción de tipologías. Metodología de análisis. *Papers: revista de sociología* (48), 9-29.
- Roldán, P & Fachelli, S (2016). *Metodología de la investigación social cuantitativa*. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. <<https://ddd.uab.cat/record/142929>>.

12. TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Gurasoen etxebizitza berean bizi ez diren 16-34 urteko pertsonak. Nafarroa eta Espainia. 2017-2024	4
2. grafikoa. Lanean ari diren 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak. Nafarroa eta Espainia. 2017-2024	5
3. grafikoa. Etxebizitza baten salmenta-prezioaren bilakaera, notario aurrean erregistratutako salerosketen arabera. Nafarroa. 2017-2024.....	6
1. taula. Gazte batek aurre egin beharreko kostua, etxebizitza erosteko eta alokatzeko. 2023-2024	7
4. grafikoa. Gazte batek etxebizitza hipoteka-mailegu bat kontratatuz jabetzan eskuratzearen kostua. Nafarroa. 2017-2024	8
5. grafikoa. Gazte batek aurre egin beharreko kostua, etxebizitza alokairuan eskuratzeko. Iruña. 2018-2023	8
6. grafikoa. Bizitegi-emantzipazio «osoaren» tasaren bilakaera. 2017-2025	10
7. grafikoa. Bizitegi-emantzipazioa: motak. 2023-2025	11
3. taula. Bizitegi-emantzipazio «osoaren» tasaren bilakaera, sexuaren arabera. 2017-2025.....	11
4. taula. Bizitegi-emantzipazioaren tasa, emantzipazio-moten eta sexuaren arabera. 2023-2025	12
5. taula. Biztanleria gaztearen banaketa, motaren eta adinaren arabera (Espainiako Gazteriaren Kontseilua). 2025	13
6. taula. Bizitegi-emantzipazioaren tasa, emantzipazio-moten eta adinaren arabera. 2025	13
7. taula. Bizitegi-emantzipazio «osoaren» tasaren bilakaera, jaioterriaren arabera. 16 urtetik 34 urtera bitarteko gazteak. 2017-2025	13
8. taula. Bizitegi-emantzipazioaren tasa, emantzipazio-moten eta jaioterriaren arabera. 16 urtetik 34 urtera bitarteko gazteak. 2023-2025	14
9. taula. Biztanle emantzipatuak, motaren eta bizilekuaren arabera. 2025	15
10. taula. Biztanle emantzipatuak, tentsiopeko merkatuko zonaldean bizi diren kontuan hartuta. 2025	15
11. taula. Biztanleria emantzipatua, emantzipazio-motaren eta ikasketa-mailaren arabera. 2023-2025	16
12. taula. Biztanle emantzipatuak, gurasoen edo guraso-lanak egiten dituztenen ikasketa-mota eta -maila altuenaren arabera. 2023-2025	17
8. grafikoa. Europako 15-34 urteko biztanleen batez besteko adin zenbatetsia. 2017-2024.....	18
9. grafikoa. Emantzipatzeko batez besteko adina, metodologiaren arabera. 2023-2025	19
13. taula. Aitortutako batez besteko emantzipazio-adina, familia-etxe motaren eta emantzipazio-motaren arabera. 2023-2025	20
14. taula. Emantzipatzeko batez besteko adina, zenbait aldagai kontuan hartuta. 2023-2025.....	20
10. grafikoa. Emantzipazioaren arrazoi nagusiak*. 2023-2025	21
15. taula. Aitortutako batez besteko adina: aitorturiko arrazoi nagusiak. 2023-2025	22

11. grafikoa. Bizikidetza-mota: egiazkoa eta desiratu. 2025.....	22
12. grafikoa. Ez emantzipatzeko arrazoi nagusiak. 2017-2025	23
13. grafikoa. Familia-etxera itzultakoen ehunekoa. 2021-2025.....	24
16. taula. Erregresio logistikoaren eredu osoa etapaz etapa.....	25
Mendeko aldagaia: bizitegi-emantzipazio osoa. 2025.....	25
17. taula. Erregresio logistikoaren eredu osoa etapaz etapa Mendeko aldagaia: erabateko emantzipazioa. 2025.....	26
14. grafikoa. Lan bakarrik egiten duten gazteak. 2023-2025.....	31
15. grafikoa. Soldatapeko gazteak, sexuaren eta jaiolekuaren arabera.....	32
18. taula. Soldatapeko gazteak, kontratu-motaren arabera. 2017-2025	32
19. taula. Kontratu mugagabea duten soldatapeko gazteak, zenbait aldagaien arabera. 2023-2025	33
16. grafikoa. Kontratu mugagabea duten gazteak, bizitegi-egoeraren arabera. 2023-2025.....	34
20. taula. Soldatapeko gazteen lanaldi-mota. 2017-2025	34
21. taula. Lanaldi osoko soldatapekoak, zenbait aldagaien arabera. 2025.....	35
17. grafikoa. Lanaldi osoz lan egiten duten soldatapeko gazteak, bizitegi-egoeraren arabera. 2023-2025	35
18. grafikoa. Datozen sei hilabeteetan egungo lanpostuan jarraitzeko itxaropen oso handiak, aldagaien arabera. 2025	36
22. taula. Aitortutako hileko soldata garbia, tarteen arabera. 2017-2025.....	37
23. taula. Aitortutako hileko soldata garbia. 2017-2025.....	38
24. taula. Aitortutako urteko soldata garbia. 2017-2025.....	40
25. taula. Diru-sarrerekin lotutako egoera. 2017-2025	41
26. taula. Beren diru-sarreretatik soilik bizi diren pertsonak, aldagaiaren arabera. 2023-2025.....	41
27. taula. Gazteak egoera akademikoaren arabera, 2017-2025	46
28. taula. Gazteak, egoera akademikoaren, adinaren, sexuaren, jaiolekuaren eta emantzipazio-motaren arabera. 2025.....	47
19a eta 19b grafikoa. Buruturiko ikasketa-maila eta eginiko ikasketa formalekiko gogobetetze-maila. 2025.....	48
29. taula. Egindako ikasketa formalekiko gogobetetze-maila, aldagai nabarmenen arabera. 2025	48
30. taula. Ikasketak burutu zituztenetik igarotako urteak. 2025.....	49
20. grafikoa. Emantzipatzeko adinaren eta ikasketak burutu diren adinaren arteko erlazioa. 2021-2025	51
31. taula. Hurrengo urtean ikasketa-maila handitzeko asmoa, aldagai nabarmenen arabera. 2025	52
32. taula. Ikasten jarraitzeko arrazoi nagusiak, aldagai soziodemografikoen arabera. 2025.....	53
33. taula. Bizitegi-emantzipazioa lortu duten gazteen etxebizitzaren edukitza-erregimena. 2017-2025	55

34. taula. Edukitze-erregimena, aldagaien arabera. 2025	56
35. taula. Banaka ordaindutako alokairuaren batez besteko zenbatekoa, aldagaien arabera. 2025	58
36. taula. Gazteek ezagutzen dituzten emantzipatzeko laguntza publikoak. 2025	59
21. grafikoa. Etxebizitzaren ezaugarriak. Biztanle emantzipatu guztiak. 2025.....	60
22. grafikoa. Etxebizitzaren ezaugarriak edukitza-motaren arabera. 2025	61
23. grafikoa. Ingurunearekiko eta etxebizitzarekiko gogobetetze-maila. 2025	62
24. grafikoa. Etxebizitzari buruzko itxaropenen betetze-maila. 2025.....	62
25. grafikoa. Bi urtean nahi den etxebizitza eskuratzeari buruzko pertzepzioa. 2025.....	63
26. grafikoa. Gazte batek etxebizitza bat eskuratzeko adierazitako oztopo nagusiak. 2025.....	63
27. grafikoa. Jatorrizko aldagaien korrelazio-matrizea. 2025	67
28. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 1. faktorearen espazio biratuan: «Lan-egonkortasuna eta buruaskitasun ekonomikoa». 2025.....	68
29. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 2. faktorearen espazio biratuan: «Alokairuan bizi den biztanleria ez-nafarra». 2025.....	68
30. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 3. faktorearen espazio biratuan: «Gurasoena baino hezkuntza-maila hobea». 2025	69
31. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 4. faktorearen espazio biratuan: «Langabezia dauden eta gurasoen etxebizitzan bizi diren biztanleak». 2025	69
32. grafikoa. Jatorrizko aldagaiak 5. faktorearen espazio biratuan: «Tentsiopeko zonaldean bizi diren biztanle emantzipatu gabeak». 2025	70
33. grafikoak. Osagai nagusien analisiaren sedimentazio-grafikoa. 2025.....	71
34. grafikoa. Osagai Nagusien Analisiaren lehen eta bigarren faktoreetan txandakatutako espazioko aldagai orijinalak. 2025.....	71
35. grafikoa. Osagai Nagusien Analisiaren azken dimentsioen banaketa biztanle gazteen taldeetan. 2025.....	72
36. grafikoa. Gazteen bizitegi-egoera, talde batzuetan eta besteetan. 2025.....	74

13. ERANSKINA

13.1. Taulak zabaltzea

I. taula. Gurasoen etxebizitza berean bizi ez diren 16-34 urteko pertsonak, adin-tartean arabera. Nafarroa. 2017-2024

Urtea	16-29 urte	30-34 urte
2017	% 19,4	%71,9
2018	% 19,2	% 71,4
2019	% 18,7	% 70,3
2020	% 17,0	% 68,9
2021	% 13,8	% 64,6
2022	% 14,7	% 67,6
2023	% 15,5	% 69,3
2024	% 15,2	% 69,4

Iturria: egileek prestatua Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestako mikrodatuetan oinarrituta.

II.a eta II.b taulak. Etxebizitza-salerosketen bilakaera. Nafarroa eta Espainia. 2007-2024

NAFARROA				
	Salerosketak	Prezioa guztira	Salerosketen aldakuntza	Prezioaren aldakuntza
2007	10.528	205.764,58		
2008	7.698	190.513,34	% -26,9	% -7,4
2009	6.993	185.413,73	% -9,2	% -2,7
2010	5.964	179.387,01	% -14,7	% -3,3
2011	5.432	168.594,92	% -8,9	% -6,0
2012	4.607	158.613,28	% -15,2	% -5,9
2013	3.545	155.535,96	% -23,1	% -1,9
2014	4.724	155.172,22	% 33,3	% -0,2
2015	4.871	131.255,48	% 3,1	% -15,4
2016	5.174	135.076,82	% 6,2	% 2,9
2017	6.047	142.345,56	% 16,9	% 5,4
2018	7.179	154.284,65	% 18,7	% 8,4
2019	6.570	152.518,20	% -8,5	% -1,1
2020	6.377	154.571,81	% -2,9	% 1,3
2021	8.083	165.558,94	% 26,8	% 7,1
2022	8.102	167.470,44	% 0,2	% 1,2
2023	7.750	178.705,91	% -4,3	% 6,7
2024	7.684	183.112,14	% -0,9	% 2,5

ESPAINIA				
	Salerosketak	Prezioa guztira	Salerosketen aldakuntza	Prezioaren aldakuntza
2007	853.568	185.314,56		
2008	564.838	182.707,74	% -33,8	% -1,4
2009	463.800	177.330,53	% -17,9	% -2,9
2010	497.800	177.251,46	% 7,3	% 0,0
2011	356.666	163.599,07	% -28,4	% -7,7
2012	370.005	147.267,48	% 3,7	% -10,0
2013	306.061	136.770,38	% -17,3	% -7,1
2014	369.400	139.836,14	% 20,7	% 2,2
2015	404.355	141.959,07	% 9,5	% 1,5
2016	460.865	144.999,03	% 14,0	% 2,1
2017	536.628	150.737,85	% 16,4	% 4,0
2018	586.397	156.433,43	% 9,3	% 3,8
2019	574.046	160.536,01	% -2,1	% 2,6
2020	490.207	167.122,69	% -14,6	% 4,1
2021	678.522	177.061,50	% 38,4	% 5,9
2022	721.351	183.658,47	% 6,3	% 3,7
2023	642.561	183.184,93	% -10,9	-%0,3
2024	721.041	197.539,62	% 12,2	% 7,8

Iturria: egileek prestatua Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren datuetan oinarrituta.

III. taula. Gazte baten soldata gordinaren, kontsumoko prezioen indizearen eta etxebizitza-prezioen indizearen bilakaera konparatua. Nafarroa. 2014-2024

Oinarria: 100=2014	16-34 urtekoen urteko soldata gordina	Nafarroako KPIa	Etxebizitzaren KPIa
2014	100	100	100
2015	96,7	99,4	100,6
2016	91,7	99,4	102,3
2017	95,6	100,9	104,6
2018	103,4	102,7	108,2
2019	99,9	103,9	112,3
2020	103,4	103,3	114,2
2021	102,7	106,8	117,4
2022	119,8	116,2	125,9
2023	122,0	120,4	133,4
2024	de	123,5	147,2

Iturria: egileek prestatua NASTATen eta Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuetan oinarrituta.

13.2 Galdetegia

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO GAZTEEN EMANTZIPAZIOARI BURUZKO INKESTA 2025

ARGUDIOAK

Egun on / Arratsalde on. Nire izena _____ da. Nafarroako Gazteriaren Institututik deitzen dizut. **Azterlan bat egiten ari gara Nafarroako gazteei eta emantzipazio-prozesuei buruz.** Helburua da ezagutzea, ulertzea eta interpretatzea Nafarroan bizi diren gazteek zer bizitegi-estrategia eta -ibilbideak dituzten gizartean emantzipatiazat jotzen dena konpontzeko, uste baitugu funtsezko pieza dela helduarorako trantsizioan.

Horren harira, zure laguntza behar dugu galdera batzuei erantzuteko. Nafarroako Gazteriaren Institutuak zure anonimotasuna eta erantzunen sekretua bermatzen ditu, erantzunak modu kolektiboan bakarrik aztertuko baitira, agregatu estatistiko baten zati gisa. **Kontuan izan ez dagoela erantzun zuzenik edo okerrik, eta ez dela azterketa bat. Bakarrik jakin nahi dugu zer iritzi duzun gai batzuei buruz.**

I. MULTZOA: HASIERAKO IRAGAZKIAK

1. I. SEXUA

Gizonezkoa	1
Emakumezkoa	2
Beste bat	3
Ez du erantzuten	4

2. I. ADINA

Elkarrizketatzailea: Idatzi adina eta gero kodetu tarteen arabera. Solaskideak 16 urte baino gutxiago eta 34 urte baino gehiago baditu: eman eskerrak eta agurtu, elkarrizketa baliogabea baita.

Hila/Urtea

16-24	1
25-34	2

3. I. ZEIN UDALERRITAN BIZI ZARA?

Elkarrizketatzailea: Idatzi zer udalerritan bizi den.

4. I. NON JAIO ZINEN?

Elkarrizketatzailea: Adierazi erantzun-aukerak.

Nafarroa	1
Espainiako gainerako lurraldeak	2
EBko beste herrialde batean	3

EBtik kanpoko herrialde batean	4
--------------------------------	---

5. I. (EZ galdetu) UDALERRIAREN TAMAINA (DATU-BASEA)

1.000 biztanle baino gutxiago	1
1.001 eta 5.000 biztanle bitarte	2
5.001 eta 10.000 biztanle bitarte	3
10.000 biztanle baino gehiago	4
Kapitala	5

6. I. (EZ galdetu) EREMUA (DATU-BASEA)

Ipar-mendebaldea	1
Pirinioak	2
Iruña	3
Lizarreria	4
Nafarroako Eki-erdialdea	5
Erribera	6
Tutera	7

7. I. (EZ galdetu) POSTA-KODEA

Idatzi posta-kodea

--	--	--	--	--

II. MULTZOA: LAN-EGOERA

1. G. GAUR EGUN, EGOERA HAUETAKO ZEINETAN ZAUDE?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Ikasten ari zara soilik <i>Joan 11. galderara</i>	--	1
Nagusiki ikasten ari zara, eta noizbehinka lan egiten duzu		2
Nagusiki lan egiten duzu, eta, gainera, ikasten ari zara		3
Lan egiten duzu, besterik ez		4
Prestakuntzarako kontratua / praktikak / beka duzu/dituzu		5
Langabezian zaude, eta prestazioa kobratzen duzu <i>- Joan 9. galderara</i>	-	6
Langabezian zaude, eta ez duzu prestaziorik kobratzen <i>-- Joan 9. galderara</i>		7
Beste egoera bat (zehaztu) <i>- Joan 11. galderara</i>	-	8

Elkarrizketatzailea: 1. galderan 2-5 kodea adierazten badu, egin 2. galderatik 8.era artekoak. / 6-7 adierazten badu, egin 9. eta 10. galderak.

2. G. ZEIN DA ZURE LANA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Autonomoa	1
Soldatapekoa	2
Kooperatibako kidea	3

3. G. ZURE KONTRATUA EDO LAN-HARREMANA MUGAGABEA EDO ALDI BATERAKOA DA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Iraupen mugagabeko kontratua	1
Aldizkako finkoa	2
Aldi baterakoa	3

4. G. ZER LANALDI-MOTA DUZU: OSOA EDO PARTZIALA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Osoa (35-40 ORDU)	1
Partziala	2

5. G. HURRENGO SEI HILABETEEI BEGIRA, ZEIN DIRA ZURE LANPOSTUAN JARRAITZEKO AUKERAK?

Elkarrizketatzailea: Irakurri eskala, non 0k "oso txikiak, nuluak" eta 10ek "oso handiak" esan nahi duten

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

6. G. ZER-NOLAKO LOTURA DU ZURE ENPLEGUAK ZURE PRESTAKUNTZAREKIN/ESPEZIALIZAZIOAREKIN?

Elkarrizketatzailea: Irakurri eskala, non 1ek "txikia" eta 5ek "handia" esan nahi duten.

1 Txikia	2 Nahiko txikia	3 Ez txikia, ez handia	4 Nahiko handia	5 Handia
-------------	--------------------	---------------------------	--------------------	-------------

7. G. ZEIN DA ZURE HILEKO SOLDATA GARBIA?

Elkarrizketatzailea: Idatzi eta azaldu hileko soldata garbia zer den: langileak jasotzen duen nomina, honako kontzeptu hauek kendu ondotik: PFEZa, langabeziarako eta lanbide prestakuntzarako ekarpenak eta kontingentzia arruntak.

Idatzi hileko soldata garbia

8. G. ZENBAT ORDAINSARITAN BANATZEN DA ZURE URTEKO SOLDATA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak.

12 ordainsari	1
14 ordainsari	2
Beste batzuk: zehaztu.	3

9. G. GUTXI GORABEHERA, ZENBAT DENBORA DARAMAZU LANGABEZIAN EDO LAN BILA?

Elkarrizketatzailea: Idatzi hilabetetan.

Hilabeteak

10. G. PREST EGONEN ZINATEKE ENPLEGU BAT ONARTZEKO LEKU HAUETAN? ETA ZER LANPOSTU?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bat baino gehiago eman daitezke

Nafarroan	1
Beste leku batean: berdín dio	2
Ikasi dudanarekin lotutakoa	3
Edozein motatako lana	4

ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONA GUZTIEI

11. G. ZURE BALIABIDE EKONOMIKOETAN ARRETA JARRIZ GERO, ZEIN EGOERATAN ZAUDE?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Soilik nire diru-sarrerei esker bizi naiz	1
Batez ere nire diru-sarrerei esker bizi naiz, baina beste pertsona batzuen laguntzaz	2
Batez ere beste pertsona batzuen diru-sarrerei esker bizi naiz, eta badut diru-sarreraren bat	3
Soilik beste pertsona batzuen diru-sarrerei esker bizi naiz	4

12. G. NONDIK DATOZ BATEZ ERE ZURE DIRU-SARRERAK?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Gehienez hiru erantzun onartuko dira.

Zure ohiko lanetik	1
Langabeziako edo gizarte-segurantzako prestazioetatik	2
Errenta bermatutik edo bizitzeko gutxieneko diru-sarreratik	3
Ikasketa-beka edo antzekoetatik	4
Zure bikotekidearen dirutik	5
Zure familiaren dirutik	6
Beste batzuk (zehaztu)	8

III. MULTZOA: HEZKUNTZA

13. G. ZEIN DIRA ORAIN ARTE BURUTU DITUZUN IKASKETEN ARTEAN MAILAZ GORENAK? ETA AITARENAK? ETA AMARENAK?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da. Akituriko ikasketen etapak dira, egiaz burutu direnak.

	Elkarrizketatua	Aita	Ama
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak (masterra, doktoretza)	1	1	1
Unibertsitateko ikasketak (graduak, diplomaturak, lizentziak...)	2	2	2
Goi-mailako Lanbide Heziketa	3	3	3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (<i>Batxilergoa, Erdi-mailako Lanbide Heziketa, 2. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak</i>)	4	4	4
Bigarren Hezkuntza (DBH, Oinarrizko LH, Lanbide Heziketako irakaskuntza, 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria)	5	5	5
Lehen Hezkuntza	6	6	6

Lehen Hezkuntza baino gutxiago (ikasketarik ez edo Lehen Hezkuntza burutu gabe)	7	7	7
---	---	---	---

14. G. ZENBAT URTE ZENITUEN IKASKETAK BURUTU ZENITUENEAN/UTZI ZENITUENEAN?

Elkarrizketatzailea: Idatzi adina, eta gero kodetu.

Ikasten jarraitzen du	0
Urteak	<input type="text"/> <input type="text"/>

16 urte baino lehen	1
16-18 urte	2
19-22 urte	3
≥ 23 urte	4

15. G. BA AL DUZU ASMORIK IKASTAROREN BAT EGITEKO, IKASKETEI BERRIRO EKITEKO EDO ETORKIZUN HURBILEAN IKASKETA BERRIAK HASTEKO?

Bai -- Joan 16. galderara	1
Ez -- Joan 17. galderara	2

Elkarrizketatzailea: 15. galderan 1 kodea adierazten badu, egin 16. galdera.

16. G. ZERGATIK HANDITU EDO OSATU NAHI DUZU ZURE IKASKETA-MAILA?

Elkarrizketatzailea: Ez iradoki erantzunik. Segitu galdetzen: Beste arrazoiren batengatik? Erantzun bat baino gehiago eman daitezke.

Independizatzeko beharrezkotzat jotzen dudalako	1
Lan merkatuak eskatzen duelako lana aurkitzeko	2
Etengabeko prestakuntza beharrezkoa delako: ezin zara gelditu	3
Nire garapen pertsonalerako garrantzitsua delako	4
Beste arrazoi batzuegatik (zehaztu)	5

17. G. ZEIN DA ZURE GOGOBETETASUN-MAILA EGIN DITUZUN IKASKETA FORMALEKIN?

Elkarrizketatzailea: Irakurri eskala, non 1ek "txikia" eta 5ek "handia" esan nahi duten.

1 Txikia	2 Nahiko txikia	3 Ez txikia, ez handia	4 Nahiko handia	5 Handia
-------------	--------------------	---------------------------	--------------------	-------------

IV. MULTZOA: ETXEBIZITZA

18. G. AUKERA HAUETAKO ZEIN EGOKITZEN DA ONGIEN ZURE EGUNGO EGOERA PERTSONALERA, NON ETA NOREKIN BIZI ZAREN KONTUAN HARTUTA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Bakarrik bizi naiz	1
Bikotekidearekin bizi naiz	2
Pisu partekatuan bizi naiz	3
Ikasleen egoitzan bizi naiz	4
Familiaren etxean bizi naiz -- Joan 21. galderara	5
Beste batzuk (zehaztu) galderara -- Familiaren etxetik kanpo bizi bada— Joan 19.	6

Elkarrizketatzailea: 18. galderan 1-4 kodea adierazten badu, egin 19. eta 20. galderak. / 5 adierazten badu, egin 21. eta 22. galderak.

IV. MULTZOA: ETXEBIZITZA – EMANTZIPATUAK

18. Gn = 1, 2, 3 edo 4

19. G. ZENBAT URTEREKIN UTZI ZENION GURASOekin (EDO HAIETAKO BATEKIN) EDO HAIEN ORDEZKOEKIN / HAIEN ZEREGINA BETETZEN ZUTENEKIN BIZITZEARI?

Elkarrizketatzailea: Idatzi adina, eta gero kodetu.

Urteak

16-24	1
25-34	2

18. Gn = 1, 2, 3 edo 4

20. G. ZERGATIK UTZI ZENION GURASOekin (EDO HAIETAKO BATEKIN) EDO HAIEN ORDEZKOEKIN / HAIEN ZEREGINA BETETZEN ZUTENEKIN BIZITZEARI?

Elkarrizketatzailea: Ez iradoki erantzunik. Segitu galdetzen: Beste arrazoiren batengatik? Erantzun bat baino gehiago eman daitezke.

Bikotekidearekin bizitzera joateagatik	1
Independizatzeko gogoagatik	2
Ikasteko lekualdaketagatik	3
Lan egiteko lekualdaketagatik	4
Beste batzuk (zehaztu)	5

Elkarrizketatzailea: Joan IV. BLOKEKO 26. galderara: ETXEBIZITZA – EMANTZIPATUAK

IV. MULTZOA: ETXEBIZITZA – GAUR EGUN EMANTZIPATU GABEAK

18. galderaren erantzuna 5 bada

21. G. ZERGATIK BIZI ZARA GURASOekin (EDO HAIETAKO BATEKIN) EDO HAIEN ORDEZKOEKIN / HAIEN ZEREGINA BETETZEN DUTENEKIN?

Elkarrizketatzailea: Ez iradoki erantzunik. Segitu galdetzen: Beste arrazoiren batengatik? Erantzun bat baino gehiago eman daitezke.

Ez dudalako baliabide ekonomiko nahikorik	1
Gustura nagoelako, ongi, familiaren etxean bizitzen	2
Oraindik oso gaztea naizelako, eta ikasten ari naizelako	3
Ez dudalako lanik, edo ezegonkortasun handia dudalako maila ekonomikoan eta/edo lanean	4
Beste batzuk (zehaztu)	5

18. galderaren erantzuna 5 bada

22. G. ZURE BIZITZA OSOA KONTUAN HARTUTA, UNEREN BATEAN UTZI AL DIOZU GURASOekin (EDO HAIETAKO BATEKIN) EDO HAIEN ORDEZKOEKIN / HAIEN ZEREGINA

BETETZEN ZUTENEKIN BIZITZEARI? Elkarrizketatzaileak irakurri beharrekoa: aldi baterako izan daiteke, lanagatik, ikasketengatik...

Bai, behin 23. galderara	- Joan	1
Bai, bitan 23. galderara	- Joan	2
Bai, bitan baino gehiagotan Joan 23. galderara	-	3
Ez 36. galderara	- Joan	4

Elkarrizketatzailea: 22. galderan 1-2-3 kodea adierazten badu, egin 23. galderatik 25.era artekoak. / 4 kodea adierazten badu, joan 36. galderara.

23. G. GURASOekin, HAIETAKO BATEKIN EDO FAMILIAREN ETXEAN BIZITZEARI UTZI ZENIONEAN, BIZITZERA JOAN ZINEN...

Elkarrizketatzailea: irakurri aukerak. 22. galderan 2 edo 3 adierazi badu, erantzun bat baino gehiago eman daitezke

Bakarrik bizitzea	1
Bikotean bizitzeko nahia	2
Pisu partekatuan	3
Ikasle-egoitzan bizitzea	4
Beste batzuk (zehaztu)	5

24. G. ZENBAT URTEREKIN UTZI ZENION GURASOekin (EDO HAIETAKO BATEKIN) EDO HAIEN ZEREGINA BETETZEN ZUTENEKIN BIZITZEARI?

Elkarrizketatzailea: 22. galderaren erantzuna 2 edo 3 bada, galdetu adina ere.

23. galderaren erantzuna 1, 2 edo 3 bada ----- Joan 25.1 galderara LEHEN ALDIA: ____ (URTE)

23. Gn = 1 edo 2 ----- Joan 25.2 galderara BIGARREN ALDIA: ____ (URTE)

23. Gn = 3 ----- Joan 25.3 galderara HIRUGARREN ALDIA: ____ (URTE)

25. G. ZERGATIK ITZULI ZARA FAMILIAREN ETXERA, GURASOekin, HAIETAKO BATEKIN EDO HAIEN ORDEZKOEKIN / HAIEN ZEREGINA BETETZEN DUTENEKIN BIZITZERA?

Elkarrizketatzailea: Ez iradoki erantzunik. Segitu galdetzen: Beste arrazoiren batengatik? Erantzun bat baino gehiago eman daitezke.

Arazo ekonomikoengatik, baliabide ekonomikoen eskasiagatik	1
Bikotea desegin zelako	2
Ikasketak burutu ditudalako	3
Langabezian gelditu nintzelako, lanik gabe	4
Beste batzuk (zehaztu)	5

IV. MULTZOA: ETXEBIZITZA – EMANTZIPATUAK

1.1. Familiaren etxetik kanpo bizi diren gazteen egoera

18. galderaren erantzuna 1, 2 edo 3 bada (gurasoren batekin edo haien ordeztaritzen direnekin bizi EZ diren pertsonak, EZTA ikasle-egoitzan ERE)

26. G. NOLAKOA DA GAUR EGUN BIZILEKU DUZUN ETXEBIZITZA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Etxebizitza babestua jabetzan (babes ofizialekoa/tasatua) -- Joan 27. galderara	1
Etxebizitza librea jabetzan – Joan 27. galderara	2
Alokairuan etxebizitza babestua (Nasuvinsa Alokairuen Poltsa) -- Joan 29. galderara.	3
Etxebizitza librea alokairuan – Joan 29. galderara	4
Lagatako etxebizitza Joan 32. galderara	-- 5
Beste bat -Joan 32. galderara	- 6

26. Gn = 1,2

27. G. ZEIN EGOERATAN DAGO ZURE JABETZAKO ETXEBIZITZA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Erabat ordainduta	1
Ordainketak egin gabe ditu (hipoteka)	2
Oinordetzan hartutako etxebizitza -Joan 32. galderara	3

26. Gn = 1,2

28. G. ZERGATIK AUKERATU DUZU ETXEBIZITZA EROSTEA EDO JABETZAN IZATEA?

Elkarrizketatzailea: Ez iradoki erantzunik. Segitu galdetzen: Beste arrazoiren batengatik? Erantzun bat baino gehiago eman daitezke.

Aurrezpen eta segurtasun gisa	1
Alokatzea hipoteka ordaintzea bezain garestia zelako/delako	2
Alokatzea hipoteka ordaintzea baino garestiagoa zelako/delako	3
Ez dagoelako etxebizitza publiko eskuragarririk	4
Bestelakoak (zehaztu)	5

26. Gn = 3,4

29. G. ZERGATIK AUKERATU DUZU ETXEBIZITZA BAT ALOKATZEA?

Elkarrizketatzailea: Ez iradoki erantzunik. Segitu galdetzen: Beste arrazoiren batengatik? Erantzun bat baino gehiago eman daitezke.

Ezin dudalako etxebizitza erosi	1
Merkeagoa zelako	2
Behin betikoa ez delako/zelako	3
Nahiago dudalako hipoteka bati ez lotu	4
Alokairurako laguntza publikoak ematen zituztelako/dituztelako	5
Bestelakoak (zehaztu)	6

30. G. ZENBAT ORDAINTZEN DUZU (ZUK) HILEAN ETXEBIZITZA HONEN ALOKAIUAREN EDO HIPOTEKAREN TRUKE?

Elkarrizketatzailea: Idatzi alokairuaren edo hipotekaren hileko zenbatekoa.

Alokairua, eurotan
Hipoteka, eurotan

31. G. NOLA ORDAINTZEN DUZU ALOKAIRUA EDO HIPOTEKA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bakarra onartzen da.

Baliabide propioekin bakarrik ordaintzen dut (nireak, nire bikotekidearenak edo bienak)	1
Baliabide propioekin eta familiaren kanpoko laguntzarekin ordaintzen dut	2
Familiaren laguntzarekin bakarrik ordaintzen dut	3
Baliabide propioekin eta laguntza publikoekin ordaintzen dut	4
Bestelakoak (zehaztu)	6

32. G ZEIN DIRA ETXEBIZITZAREN EZAUGARRI FISIKOAK?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak.

	BAI	EZ
Bi bainugela edo gehiago	1	2
Igogailuak	1	2
Trastelekua	1	2
Garajea	1	2
Eraikin kolektiboko etxebizitza	1	2
2. eskuko etxebizitza	1	2
50 urtetik gorako antzinatasuna	1	2
90 m ² baino gehiago	1	2
Duela gutxi osorik edo partez zaharberitu den etxebizitza	1	2

33. G ZEIN DA ZURE GOGOBEETASUN-MAILA ZURE ETXEBIZITZAREN INGURUNEAREKIN/AUZOAREKIN?

Elkarrizketatzailea: Irakurri eskala, non 1ek "txikia" eta 5ek "handia" esan nahi duten.

1 Txikia	2 Nahiko txikia	3 Ez txikia, ez handia	4 Nahiko handia	5 Handia
-------------	--------------------	---------------------------	--------------------	-------------

34. G ORO HAR, ZEIN DA ZURE GOGOBEETASUN-MAILA GAUR EGUN BIZILEKU DUZUN ETXEBIZITZAREKIN?

Elkarrizketatzailea: Irakurri eskala, non 1ek "txikia" eta 5ek "handia" esan nahi duten.

1 Txikia	2 Nahiko txikia	3 Ez txikia, ez handia	4 Nahiko handia	5 Handia
-------------	--------------------	---------------------------	--------------------	-------------

G35. ZURE EGUNGO ETXEBIZITZA ETA HAREN EGOERA, KOKAPENA, PREZIOA ETA EZAUGARRIAK KONTUAN HARTUTA, ZER ESANEN ZENUKE ZURE ETXEBIZITZARI BURUZ DITUZUN ITXAROPENEN GAINEAN?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun laburra.

1 Ez dira bete	2 Neurri txikian bete dira	3 Ez dira bete, ez dira bete gabe gelditu	4 Neurri batean bete dira	5 Erabat bete dira
-------------------	-------------------------------	--	------------------------------	-----------------------

IV. MULTZOA: ETXEBIZITZA

1.2. Nafarroako gazteek etxebizitzaren arloan dituzten asmoak

ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONA GUZTIAK. Helburua da Nafarroako gazteek etxebizitzaren arloan dituzten asmoak ezagutzea. Bai familiaren etxetik kanpo bizi direnenak, bai oraindik familiaren etxean bizi direnenak. Gazteen kolektiboak etxebizitzari dagokionez dituen itxaropenak, beharrak eta eskakizunak detektatzea. Haien errealitatearen eta asmoen arteko konparazioa egin nahi da.

18. G = 5 – GAUR EGUN FAMILIAREN ETXEAN BIZI DIRENAK

36. G ZURE EGUNGO DIRU-SARREREN MAILA EDOZEIN DELA ERE, GUSTATUKO LITZAIZUKE UNE HONETAN INDEPENDIZATZEA?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun laburra.

Bai, oraintxe bertan independizatzeko nintzateke, ahal izanez gero, baina ezin dut	1
Bai, laster independizatzeko pentsatzen ari naiz, horretarako baliabideak baititut	2
Ez, oraindik ere denbora luzea falta da independizatzeko, ez dut oraindik egiteko interesik	3
Beste batzuk: (zehaztu)	4

ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONA GUZTIAK

37. G ZURE USTEZ, ZER ADIN DA EGOKIA INDEPENDIZATZECO, KONTUAN HARTU GABE ZUK HORRETARAKO AUKERA DUZUN ALA EZ.

Elkarrizketatzailea: Idatzi adina, eta gero kodetu.

___ URTE

16-24	1
25-34	2

38. G. ZEIN IZANEN LITZATEKE ZURE EGOERA IDEALA ETXEBIZITZARI DAGOKIONEZ, FAMILIAREKIN BIZITZEARI UTZIZ GERO?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun laburra.

Bakarrik bizitzea	1
Bikotean bizitzeko nahia	2
Pisu partekatuan	3
Ikasle-egoitzan bizitzea	4
Besterik	5

39. G ETA ETXEBIZITZA EDUKITZEARI DAGOKIONEZ, ZEIN IZANEN LITZATEKE ZURE EGOERA IDEALA, FAMILIAREKIN BIZITZEARI UTZIZ GERO?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun laburra.

Jabetzako etxebizitza	1
Alokairuko etxebizitza	2

Lagatako etxebizitza	3
Beste batzuk (zehaztu)	4

40. G ZURE USTEZ, ZEIN DIRA GAUR EGUN GAZTE BATEK ETXEBIZITZA BAT ESKURATZEKO DITUEN OZTOPO NAGUSIAK?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak. Erantzun bat baino gehiago eman daitezke, baina gehienez 2. Txandakatu aukerak.

Alokairuaren prezio garestiak	1
Erosketaren prezio garestiak	2
Diru-sarrera gutxiegi edo enplegu ezegonkorra	3
Etxebizitza alokatzeko edo erosteko laguntza ekonomikorik edo finantzaketarik ez izatea	4
Errentatzaileen edo bankuen eskakizunak betetzeko zailtasuna	5
Etxebizitza eskuragarrien eskasia	6
Beste bat (zehaztu)	7
ED/EE	99

GUZTIAK, SALBUESPEN HONEKIN: 36. galderaren erantzuna 3 izan bada

41. G. ZURE USTEZ, ZER AUKERA IZANEN DUZU NAHI ZENUKEEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO, HAREN EZAUGARRIEI, KOKAPENARI, JABETZARI ETA ABARRI DAGOKIENEZ, HURRENGO BI URTEETAN?

Elkarrizketatzailea: Irakurri eskala, non 1ek "aukerarik ez" eta 5ek "oso litekeena" esan nahi duten.

1 Aukerarik ez	2 Aukera gutxi	3 Litekeena da	4 Litekeena neurri handian	5 Oso litekeena da
-------------------	-------------------	-------------------	-------------------------------	-----------------------

IV. MULTZOA: ETXEBIZITZA 1.3. Emantzipaziorako laguntza publikoak

42. G. EZAGUTZEN AL DUZU GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO LAGUNTZA HAUETAKOREN BAT?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak.

	Bai, ezagutzen dut	Bai, entzun dut hari buruz hitz egiten, baina ez dut zuzenean ezagutzen	Ez dut ezagutzen
Nafarroako Gobernuaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen errolda	1	2	3
Nafarroako Gobernuaren Alokairuen Poltsa programa	1	2	3
Emantzipaziorako laguntzen programa (EMANZIPA)	1	2	3
Etxebizitza eskuratzeko kenkariaren programa (DAVID)	1	2	3

43. G. JASO AL DUZU INOIZ LAGUNTZA HORIETAKOREN BAT?

Elkarrizketatzailea: Irakurri erantzun-aukerak.

	BAI	EZ
Nafarroako Gobernuaren etxebizitza babestuaren eskatzaileen errolda	1	2
Nafarroako Gobernuaren Alokairuen Poltsa programa	1	2
Emantzipaziorako laguntzen programa (EMANZIPA)	1	2
Etxebizitza eskuratzeko kenkarien programa (DAVID)	1	2